

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

49

Aurkibidea: Adolfo Arejita: GABIREL MANTEROLA ABADE KAZETARIA (1890-1977). **3.** Iratxe Ormatza Imatz: EZKARATZA. **15.** Amaia Iturbide: ERRETRATUA. **19.** Joseba Aurkenerena: AXULAR HANDIAREN HOBIAN. **30.** Iñaki Totorikaguena: AGUR. **35.** Angel Mari Unzueta: KARMELORI OMENALDIA. **36.** Kristina Mardaraz: KARMELORI. **39.** Igone Etxebarria: KARMELO IRAKASLE ETA MAISU. **40.** Adolfo Arejita: ETXENAGUSIAREN EUSKERAZKO IDATZIAK. **44.** Karmele Etxenagusia: EUSKALTZALE EGUNA 2010. KARMELO ETXENAGUSIARI OROIMEN EKITALDIA. **50.** Nerea Mujika: KARMELO ETXENAGUSIA URIBE ETA DURANGALDEA. **52.** Jabier Kalzakorta: AÑIBARROREN ERRE-FRAU BILDUMA POLIT BAT. **54.** Miren Ibarluzea: JA-JAI, GELDOETAN BERE BAI. **67.** Iñaki Sarriugarte Irigoien: BIZKAIKO BERTSOLARIAK 1935EKO TXAPELKETA NAGUSIAN: P. ABARRATEGI ETA E. URIARTE. **69.** Sebastian Gartzia Trujillo: AHOLKU OKER BATEN EMAITZA ZUZENAK. **78.** LIBURUAK. **85.**

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etkezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2010eko uztailean, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeez. Irudiak Jorge Garciak egin eta *La farsa* liburutik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1Ingoa
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizuntza Politikarako Salburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk²

ADOLFO AREJITA

Gabirel Manterola abade kazetaria (1890-1977)



Aldizkari honen orrietara dakargun idazlea, *Gabirel Manterola*, gudu aurreko liburuetan *Manterola'tar Gabirel* izenaz ezaguna dana, ezizen batzuez be ezaguna dogu: idatzi laburrak, aldizkarietan ateraten zituanak, ezizenaz edo izen laburtuaz sinatu ohi zituan, batez be kazetaritzan. *Gama: Ga(birel)-Ma(nterola)* eta *M. 'tar G.* izenpetzen eban sarritan. Beste goitizenen batzuk be bai inoiz. Ohikoa zan gatxizenaz baliatzea bai gerra aurre, bai gerraosteko idazleetan, batez be aldizkari eta egunkarierata bialtzen ebezan lan laburretan.

Gabirelen loba Ander Manterolari zor deusagu *Gama*-ren biografiarik zehe eta osoena. 28 orrialdetan labor baizen zehatz garandu deuskuz haren txikitatik gorako bizimodu eta ibilteak, haren ikas eta hezkuntza urratsak, euskalzaletze bidea, abadejarduna Eibarren, erakunde eta kazetaritza jarduna *Jaungoiko-Zale* eta *Ekin* agerkarieratan, haren euskaldun eta kristau pentsamoldea, euskal ume atzerriratuakaz Ingalaterrara erbestetu beharra, erbestealdiko eginak eta idatziak, euskerazko osterantzeko idaztejarduna eta osterantzeko zertzelada asko, testuari dausala argazki eta dokumentazino ugaria agiri dituala.¹ Hurreko senitarteko baten eskutik, eta beragaz hartuemon estua izaniko batengandik datorren holako biografia bat, laborra izanda be, beti be sinesgarriagoa eta joriagoa izan ohi da; kasu hone-tan trinkoa be bai. Urrunagokoentzat guztiz arrotz diran zertzelada asko agiri ohi dira holakoetan, hurreko edo etxeko diran zehetasun eta oharrak, etxekoak dakizanak baina asagokoentzat ezezagun izaten diranak.

Arterago Juan San Martin euskaltzain eibartarrak birritako aldiz egin eban Gabirelen biografiara hurreratze ahalegina. Lehenengo, haren hilbarri-txostena egin ebanean

(*Euskera*, XXIV, 1979), eta handik hamaika urtera barriro, beronen eta beste euskaltzale biren jaiotza-mendeurrena Euskaltzaindiak ospatu ebanean –Mikel Arruza eta Novia de Salcedo–, 1990eko zezeilaren 23an Bilbon egin eban batzar idegian². Gabirelen Eibarregazko lotura estu luzarokoa izan zan besteak beste, San Martinek hagazko sentidu eban zor nagusia beharbada. Zehaztasun handiz eskeini euskuzan eibartar euskaltzainak idazleonen familiako eta bestelako hainbat zehaztasun.

Bizkaiko Zeanurin XIX. mende akaburantz jaioa (1890), etxean bertan edan ei eban aitita Tiburtziogandik bertsoarako zaletasuna. Hiru anaietarik zaharrena, Felipe, argazkilaria izan eban, eta haren hurrengo, Txomin, euskalzalea eta herri-idazlea, gudu aurreko *Euzkadi*-n, Kirikiñoren inguruan jarduten eben herri-barriemoile hareetarikoa. Erle-ikurra jaso eban bere lanaren sari Kirikiñoren eskutik. Erlea, behargin finaren irudia, hatan be. Gabirel erdikoa zan, eta berau dogu duda barik hiruretarik gehien gailenduko dana, ikaste kontuan, eleiz ekimenean eta batez be idazkuntzan: sortzaile, kazetari, itzultzaile..., eta sasoi haretan ez hain ohikoa zan beste gaitasun baten jabe: kanpo-hizkuntzen ezagule eta erabiltzaile. Eleizgizona izan zan aldetik latina eta grekoa ondo ikasiak zituan, baina kazetari-zereginetan sartu zanean Zornotzako aldizkarian, eta erlijinoaz eta kristautasunaren eguneango pentsabide, eretxi eta joerez ondo jakitun egotea egokonez, *La Croix* egunkari frantsesa, *L'Observatore Romano* italiarra eta beste agerkari kristau giroko batzuk irakurtera behartua sentidu zan; halanda ze, agerkariok erabilezan hizkuntzak menderatza behartu eban bere burua, irakurteko lain gitxienez. Geroago, zoritxarreko gudua-ren ondorioz erbestetu beharra egokitu jako-

nean eta halanberrak oinak Ingalaterrako lurtean ipintera bultzatu ebanean, ingelesaren jabe egitea noraezeko bihurtu jakon. Euskerea eta gaztelaniaz ostean, katalana be ondo ekian, irakurteko behintzat.

Euren belaunaldia be –XX. mende hasiera edo arteratxoagoko belaunaldi hori– halakoa subertau zan: jente sakon eskolatua, asko eta orotarik ikasia, jakintza ugariaz hornidua, batez be gai humanistikoetan. Eleizgizonen artean, belaunaldi horretakoak dira, urte gitxi gorabehera, Joxe Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona. Gabirelek Gasteizko Seminarioan ikaskide izan zituan horreek biok. Belaunaldi berekoak zituan beste zeanuriztar eleizgizon eta euskal idazle ezagun bi be: Hipolito eta Bedita Larrakoetxea anaiak. Gasteizko Seminarioan irakasle onak izan zituela gogorazoten deusku Ander Manterolak bere lanean.

Gabirelen euskal idazle jarduna aitatzea danez gure asmoa, alderdi hori iturri jakinetatik landu ebela susmau geinke XX. mende hasierako hamarkada eta erdian. Etxe eta herri girokoa bazter itxita, Azkueren gerizea urrun ez zala ibiliko susmau daiteke; aurreko menderik argitaratuak zituan honek euskal gramatika pare bat, euskal klasiko erlijioso batzuen edizino gaurkotuak, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* asterokoak, nahiz bizitza laburrekoak gertatu, *Txirristadak* narrazino-bilduma eta beste. Baina honen beste lanen ganetik hiztegi nagusia azalduko da gailen: 1905ean argitara eban *Diccionario vasco-español-francés* izeneko obra bikotxa. Domingo Agirrek be bere hiru elabarriak hortxe mende-mugako urteetan argitaratuak zituan. Lasterrean azalduko dira Jose Manuel Etxeitaranak be, Filipinak galdu ondorengo urteetan Mundakako jaioterrira bihurtu zanean idatzi zituan elabarri eta olerki liburuak.

Bide batez gogoratu beharrekoa da Gabirelen beste ezaugarri bat, beraren idazte- eta itzultze-jardunaz zerikusia dauena, horretatik askoz urrunago doana, hau da: irakurle purrukatua izan zala bere bizi guztian. Ingalaterrako erbestealdian ehundaka liburu irakurri ei zituan, berberak dinoskunez, eta handik osterakoan, Zeanuriko jaioterrian be ordu luzeak igaroten ei zituan irakurten, bere loba Anderrek gogorazo deuskunez. Baina horretarako biblioteka aberats baten jabe be izan behar: bere apalak zortzi-bederatzi mila liburuz hornidurik ei zituan.

Jo daigun bere euskal idatzietara. Kazetaritza izan baeban be bere jardun-eremu nagusia, euskerazko liburu batzuekaitik be ezaguna dogu Gabirelen izena. *Goi-izpiak* erlijino giroko olerkien bilduma dogu batetik (1922), aurretik *Jaungoiko-Zale*-ren orrietan banabanaka argitaratuak. Bertsotarako zaletasuna etxetik jaso ebala esan dogu lehen, eta hitz neurtuz idazteari be gitxi-asko bere bizi guztian ekin eutsan. Gazte samarrik idatziriko txorta horrezaz gain, gerora be asko atera zituan hor-hemen aldizkarietan.

Narrazino generoko beste liburu metxal bat be ezaguna dau: *Ipuintxoak* izenburuaz, hor bildu eban Christoph Schmid (1768-1854) alemaniar kanonigo katolikoaren ipuin txortatxo bat, euskeraz birlanduta. Gabirel ez zan joan ipuinoan ederrarren bakarrik hareen euskal bertsinoak egitera; beren-beregi eta ondo jakitun joten dau urlia autoregana, lanok muinean eben mezuak eta kristinau senak eraginda. Ume eta gaztetxoentzako ipuin jainkozaleak dira Schmid-enak, irakatsidun alegiak. Eta arrakastatxo be izan eban liburu honek, antza, ze 1929ko lehen argitaraldia bigarren batek jarraitu eutsan bost urte geroago. Eta lehenengoko hogeta bat ipuineko txortatxoari beste sei gehitu eutsa-

zan bigarrean. Eta testua osorik berridatzi gainera; idazkera barriaz edertu. Ondo darakus jokabide horrek, Gabirelek eginbide horri gehitu eutsan ardurea eta ahalegina. Ume eta gaztetxoentzako asmoaz onduriko liburua da, gure Bernardo Garro *Otxolua*-k ingelesetik *Abere dontsubak* euskeratuz egin eban ahaleginaren antzekoa. Kristautasunaren, katolikotasunaren, zabaltzaile ereduak ziran atzerriko idazleen lan hautatuak euskeraz emon eta zabaldu, hori zan euron asmoa.

Hitzaldi argitaratuak be mordoia ditu, euskeraren, euskal pertsonaien eta euskal gaien ingurukoak, erlijinoagazkoez ostean. Euskaltzaindia eregi ondoko urteetan hainbat ekimen bultzatu zituan gure erakunde barriak, gehienbat Azkuek bultzaturik, euskal hizkuntza eta kultura hedatu, gizarteratu eta aldi berean sakondu guraz. Asmo horrexegaz eratu zituan *Euskalegunetako itzaldiak*, esaterako. *Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak* Durangon ospatu ziran, eta eurotan hizlari izan genduan Gabirel; izenbururik zehaztu barik baina, Durangoaldeko giza ospetsuen gainean jardun eban (Bilbo, 1922, 55-75).

Itzulpena, berariaz euskerara itzultzea, izan eban Gabirelek bere luma-ahaleginik sendoenetarikoa; beronen bibliografiaren alderdi zabala hartzen dau, itxuraz ezagunena ez bada be. Itzultze jarduna ez euskerara bakarrik, baita ingelesetik gaztelaniara be Ingalaterrako egotaldian. Euskerarako lanen artean ezagunena, *Santuen bizitza laburrak* (1925) beharbada. Baina Zornotzako *Jaungoiko-Zalen* argia ikusi eben liburusketarik mordotxoia dira Gabirelek euskeratuak: *Ama poz-asetzalleari bederatziurrena* (1918), esaterako. Ingalaterratik ostean be ekin eutsan horretan: *Gabonetako antzerti yaunko-ya* (1964) edo *Begoñako Andra Mariari*

bederatziurrena (Bilbao, 1972), adibidez. Baina hainbat oparoago eta ezezagunagoa dogu, barriz, Ingalaterran egoala eta han bizimodua aterateko, enkarguz egin eban itzultze-lana. BBC-ko Foreign Service dala-koarentzat gaztelaniara bihurtzen zituan ingeles testuak. Euskal Herriaren historiaren gaineko Lord Carnarvon-en liburua gaztelaniara iraultzeko ohorea be berea dau.

1947an itzuli zan Ingalaterratik Euskal Herrira, baina gudu aurreko girorik ez eban aurkitu diktaduraren azpian, ez euskerearentzat, ez kulturearentzat. Ha ta guzti be irakurteari eta idazteari oratu eutsan barriro. Gaztelaniara itzuli zituan kristau tematikako saio liburu batzuk. Eta azken urteetan euskal agerkarrietan euskerazko idazlanak idazteari be ekin eutsan, batez be *Agur* astekarian, baina baita *Aranzazu*, *Vida vasca* eta bestetan be.

Idazle lez Gabirel kazetaritzat epaitu izan badogu, titulu hori ez jako zor gure ustez 70eko hamarkada inguruko lan berankorrari, ezpada batez be gudu aurreko hamarkada bi eta gehiagoan *Jaungoiko-Zale* (1912-31) eta *Ekin* (1932-36) aldizkarietan garatu eban ekite eskergeari. Azken baten, bera izan zan aldizkarion eragile, egile eta arima printzipal. Gabirelen orduko kazetagitza hori azterraldi sakon beren-beregiko baten eske dago, baina bego zeregin hori hurrengo baterako.

Baina geure aldizkari honen orrietarako hautu ditugun idatzi-txatalak ezezagunak dira guztiz, artean argitaratzeke dagozalako. Beronen loba Ander Manterolak zirikatuta, Ingalaterratik osterakoan, egutegi antzera memoria laburrak idazteari emon eutsan, lehenengo Eibarko aldiari egokozanak, eta hurrengo Ingalaterrako aldiari. Lehenengo aldi horretako txatalak dira hona ezarri ditugunak.

Eibarren egin nebazan urteak

(atal hautuak)

[*Eibarrera sartuerea*]

1914garren urtea zan. Epailaren³ 28gnean jaupari edo abade egin, eta jorrailaren⁴ 1gnean, Ama Birjina Atsekabetuaren egunean, ostiralez, lehenengo jaupa edo meza emon neban, hamahiru hilabetean 24 urteak bete arte itxaroten egon ondoren; aurreko urtean bostgarren Teologia amaitu neban eta. Aldi honetan, dagonileko⁵ egun baten Durangon abadeen isil-eguna egoala-ta, bertara joan nintzan. Hango zeregina amaituta, Zeanuriko tximist-burdiari⁶ begira nengoala, Don Juan Bautista,⁷ Eibarko abadelaguntzailea, Lemoatarraren gozotegi aurrean nengoala, hitz egiten egoan, eta abadeak esan eutsan Eibarko Isasiko lekaimetxean⁸ lekaimet bat hil zala hiru bat hilabete lehenago, eta hori entzunik, neu be hil-otoitzean egon nintzala esan neutsan. Zelan? Meza Barria emonda hiru bat aste barru, Don Polikarpo Larrañagak⁹ Eibarrera osterea egiteko idatzi eustan, eta egin-eginean be, Isasin hilobiratze¹⁰ bat egoala-ta, joateko esan eutsan. Bidean, Arraindegi kalean, atso bat gaizki gexorik egoala-ta, ikertu¹¹ genduan. Hantxe abade zaharra ezagutu neban.

Nik bertan egon nintzala esan neutsanean, hauxe itandu eustan erderaz: “Zu zara Eibarrera etorteko dan abade barria?”. Nik erantzun neutsan: “Joan gura dodan itandu deuste, baina gazteegia nintzala-ta ezetz erantzun neutsen”. Orduan berak: “Gotzainari barriro eskatzea gura dozu?”.

Lotazilaren¹² lehenengoetan, Lemoa geltokiko arduradunaren bitartez, Don Polik

mezu bat bialdu eban, “Manterola hurrengo bultzian¹³” Eibarrera joateko.

Nik anaia Peliperi esan neutsan¹⁴: “Zuretzat ala niretzat ete dan dei hori ez dakit, izenik ez dau aitatzen eta. Nik uste dot, onena biok Lemoara joatea izango dala. Behar bada dei hori zuretzat izango da. Eibartarrak *krixixagaz* estu dabilz eta, eurak egiten daben gauzarik saldu zeinkean jakin gura dabe eta. Geltokiko arduradunari izenik aitatu daben itanduko deusagu, eta ezetz esaten badeusku, dei hori niretzat izango da. Orduan zuk Bilbora jarraitu zeinke, eta besterantza bada, neu joango naz Bilbora eta zu Eibarrera”.

Lemoan esan euskuen “Manterola” bakarrik aitatu ebela. Orduan neu joan nintzan Eibarrera eta Pelipe Bilbora.

Eibarrera heldu nintzanean, Don Polik geltokira urten eustan, eta agurtu nebanean badinost: “Zu Eibarko lekaimen jaupari eta abade zaharraren laguntzaile izentau zaitu Gotzainak”. Harrituta gelditu nintzan, baina egin eginda egoan.

Hurrengo urtearen lehenengo hilean Eibarrera joan nintzan. Sarrera pozgarria ez neban izan. Bultzia Eibarko *tunelean* sartuaz batera gelditu egin zan. Zer jazoten dan itandu neban, eta hara non dinosten gixajo batek burua bultzinari bota eutsala eta hil egin ebala. Nire aurretik atera ebenean, lehenengo *askitz* edo absolutinoa badaezpandan emon neutsan.

Lehenengo zereginak

Nire lehenengo zereginak, lekaimiai egunero jaupa emon eta gero, parrokiako lanak egitea. Ia egunero meza abestu bi izaten genduzan. Gero gexoai laguntzea eta autor-

kuntzak¹⁵. Eta bai ugari be!, batez be Gari-zumea heldu zanean.

Honango baten hirurogeta bederatzirte-dun gexo bategana deitu eusten. Beste askoren antzeko gixajo bat zan. Sineste gauzetan ezjakina. *Aitagurerik* be ez ekian. “Gizona!”, esan neutsan: “Zelan izan da hau?”. Bere erantzuna: “Ara, jauna! Guri txikitan erderaz erakutsi euskuen, eta guk ezer aitu ez, eta ahaztu egin jatan”.

Handik hamabost bat egunera beste dei bat. Gexoak hirurogeta lau urte eukazan, eta beste hainbeste jazo jatan. Tamalez beterik etxera bihurtu nintzan, eibartarrai otoiak euskeraz egiten irakasteko asmo sendoagaz. Benetan lotsagarri zan gertatzen zana eta.

Andra Mari Atsekabetuaren bederatziru-rena heldu zanean, Enbil'tar Agustin gure txauburuak¹⁶ esan eustan: “Don Gabriel, agurtza¹⁷ esan egizu.”

Ordura arte, hogeta hamabost urtetan beti erderaz otoitzak egiten ziran Eibarko parrokiari.¹⁸ Eta gexoakaz zer jazo jatan gogoan nebala, euskeraz lehenengoz esateko asmoa hartu neban. Izan be, mundu guztiak, euskera egin eta autortu be, eta zelan eta zer zala-ta erderaz eleizkizunak? Gero azalduko dot.

Kulpitura igon, eta “Kurutze Santuaren” hasi nintzan... Aita Gurea...

Ondo-ondoan egoan notario Astaburuaga jaunak abots sendoaz azpitik: “El pan nuestro de cada día...” Ni izerditzin hasi nintzan. “Agur Maria graziaz betea...” eta berak sendoago: “Santa Maria madre de Dios...”. Busti-busti eginda kulpituan.

Sakristiara heldu, eta Joxe, sakristau hogeta hamabost urte eroazan gizon zintzo eta karlista benetakoari itandu neutsan: “Zu, Joxe, zelan da hau? Eibar guztiak euskeraz

hitz egiten dau, eta zer dala-ta erderaz eleizkizunak?”

“Hara, Jauna!” erantzun eustan: “1876garren urtean Bidaurre eritxon durangar parroko bat zala, liberalak hemen sartu ziranean, alkatetzat Ortiz eritxon arabar bat ipini eben. Euskerarik ez ekian. Eta parrokoari idazki bat egin eutsan, aurrerantzean eleizkizunak erderaz egiteko, eta harrezkero holantxe egin dira”. Samintasunez beterik etxeratu nintzan.

Hile batzuk igaro ziran. Bidebarrieta kalean gizon bat gaizki gexorik egoan. Eta arimako gauzetan “hotza” zalako, bildur ginan eleizako barik hilgo ete zan. Azken baten lortu zan Don Juan Bautista zaharragaz autorkuntza egitea. Eta niri esan eustan: “Don Gabriel: Eleizakoak eroaiozuz Bidebarrietako gexoari. Nik ez nekian euskaldun ala erdaduna zanik, baina etxean sarreran euskeraz ziharduela somau neban, eta Eleizakoak euskeraz emon neutsazan. Handik urten nebanean non jakiten dodan, Eleizakoak erderaz egiteko agindu ebana bera izan zala. Hemen esan geinke, aldi bateko pelotari batek Astelenan esan ebana: *Onse kosas para ver ya hemos nasido pues...*

Tabakorria zertarako?

Ni inoiz ez naz izan tabakorri zale, nahiz eta noizean noizean, zer edo zer egitearren, zigarroa erre. Esaterako, seminarioan nengoala igandea ospatzeko, sotana barria jantzita zigarro bat erreten neban, nahiz eta beti gusto txarra hartu.

Egun baten, nire adiskide maite Oiarzabal'dar M. ikertaldi bat egitera etorrela-ta¹⁹, berari atsegin jakon *kuarteroi* bat erosi neban. Beti lez iraduz²⁰ ondotik igarotean,

honantxe agurtu nituan: “Arratsalde on! Zer moduz?”. Nik hau azkenengoau ez neukan zetan esan, bat be ez neban ezagutzen eta. Baina urten egin eustan. Eta batek erantzun eustan: “Ondo, baina tabakorriagaz txarto”. 1922garren urtea zan, erretzaileak txarto ebilzan aldia, urri ebilen eta. Hori askorentzat zoritxar handia zan. Batzuk lanera be, andreak tabakorra zuzenduten ez baeutsien, lanera be ez eben joan gura izaten. Orduan argitaratu neban olerkitxo bat gai honezaz, zigarro batetik zintzilika dagoan gizona astuna ez zala esanez. Nik orduan esan neutsan: “Poztuko zaitut ba, gizona!”, eta harik eta etxera bihurtu, eta tabakorri guztia, kuarteroi osoa, ingi²¹ eta posporo eta guzti, emon neutsan esanaz: “Hartu egizuz, niri baino on gehiago egingo deutsu eta”. Gizona zoratuta joan zan.

Handik bost egunera barriro etorri jatan, eta esan neutsan: “Zelan gabiliz, ba?” “Jauna, konfesau gura neuke”. Nik: “Zergaitik?”. “Berorrek tabakorra emon eustalako”. “Nik ez neutsun emon horretarako, poz apur bat emotearren baino”. Eta berak: “Ba horrexegaitik etorri naz. Etxera noala neure buruari itandu neutsan: abade horrerik zer jautsak ni itun ala pozik izan? Eurak esaten jabek lagun hurkoari Jaungoikoarren ondo egin behar jakola. Orduan, Jaungoiko bat badago, Jaungoiko bat badago, beste mundu bat be bai. Eta beste mundu bat badago, hemen harako gertau behar gara”. Eta beste barik autortu zan.

Eleizatik urten nebanean, sakristau zaharra aurkitu neban, eta itandu eustan: “Bada ki hori zenbat denporan eleizan sartu barik egon dan?”. “Zeuk esango deustazu”, erantzun neutsan. “Ba berrogeta bost urtean, neuk ondo ezagutzen dot eta”.

Handik zortzi urtera hil zan eta neuk eleizakoak emon neutsazan.

Oin erantzun geinako lehenengo itaunari: “Tabakorra zertarako?” “Jaungoikoaren bideak ondo bakanak dira”.

Gexoen ingurukoek zenbat kalte egin leikien

Eibarrera joanda urte batzuk barru, goizeko bostetan gexo bategana iraduz joateko deitu eusten. Ermutar neskatila bat dei egiten etorri jatan. Negarrez etorri zan. “Zer jazoten jatzu?”, itandu neutsan. Eta berak: “Nire osaba bat txarto gexorik dago eta, gau guztian eleizakoak hartzeko eskatzen egon naz. Baina gexoaren koinateak, eleizakoak hartu barik hilteko izena emonda eukanak, esaten eutsan, eleizakoak hartzea aitatu baino hiltea hobeto zala, hain txarto ez egoala, eta osatuko zala eta abar ekin eutsan. Nik barriz baietz esan arren, ez neban ezer lortu”. “Eta zelan etorri zara ba?”. “Neure burutatik”. “Gexoari ezer esan deutzazu?”. “Ez, berak ez daki berorregana etorri nazarik be”. “Eta kalte egiten deutoenak albotik kendu barik zer egingo dogu ba?”. Eta esan neutsan: “Etxe horretan nork agintzen dau?”. “Neuk”, berak. “Neuri emon eidazuz eskubideak eta danak neuk aterako dodaz”, esan neutsan.

Honetan gexoaren etxera heldu ginan. Ez egoan inor atera beharrik. Guztiak ingurutik ihes egin eben. Gexoa egoan gelara sartu, eta beragaz hizketan hasi nintzan. Laster ohartu neban, beste asko lez gixajo bat zala, oso borondate onekoa. Autortuta pozik gelditu zan. Eta esan neutsan: “Oin danak jakin dagien eleizakoak hartu dozuzala, mezea esanda gero, gure Jauna ekarriko deutsut”. “Bai, jauna, ondo dago”.

Eta halantxe, gizostea lanera joiala, eleizakoak eroan neutsazan.

Goiz guztietan ikertzen neban jardunaldia²² egiteko. Berak ni ikustean poz handia agertzen eban eta esaten eustan: “Berori datorrenean pozik egoten naz, egia esaten deust eta. Honeek guzurre baino ez deuste esaten: osatuko nazala, porteri bat zuzenduko deustela eta... Nire porteria barriz zeruan izango da”.

Bigarren egunean andra bat bialdu eusten, hauxe esaten: “Jauna, gexoa ikertzen ez joateko, *sustau* egiten zala-ta”. Orduan erantzun neutsan: “Hori esan dauenari esan egiozu, ondo dala, ni joaten nazanean pozik egoten dala, eta hemendik aurrera egunean birritan ikertuko dodala”. Eta halantxe egin neban.

Hurrengo egunean joan nintzanean, niri ez joateko errekadua bialdu eban emakumea bertan egoan, eta ikustekoa izan zan niri egin eusten txerea. Hoberik ez eta eleiztar zintzoena izan balitz be! Iluntze haretarako “Myrian” misiolari antzerkia “Astelena” pelotalekuan egiteko zan, eta lagun batek itandu eustan: “Badator berori antzerkira?”. “Ez”, esan neutsan, “antzerkiak egunero kalean ikusten dodaz”.

Gauza negargarriak ikusteko jaijo gara

Abadeak hamaika gauza negargarri ikusi beharra izaten dogu.

Egun baten, ez naz gomutetan ziur ze urtetan izan zan, goizeko bostetan gexo bategana arin joateko deitu eusten. San Andres kalea zan, eta kale haretako deietera, erdizko asko bizi ziran eta, arin joan beharra izaten neban.

Badaezpadan hiru Agur Maria bidean esan nebazan, susmo txarra hartu neutsan eta. Neure artean esaten neban, behintzat bekokian baino ez bazan be, untzino donea emoteko astiz banintzan, pozik egongo nintzala.

Eta halantxe izan zan zoritxarrez. Eta gexoaren gelako atera heldu nintzanean, aurrean neukana ikusita, hauxe esan neban: “Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Zertarako deitu deustazue?”. Gauzarik negargarriena neure begien aurrean ikusi neban. Gizon bat ohean, kainoi biko eskopeteari dautsala, bekoki barik, ohe burua bere garaun zatiakaz hondatuta. Han egozanai itandu neutsen: “Ze ordutan jazo da hori?”. Eurak: “Goizeko ordu batetan”. “Behintzat kendu egiozue eskuetan daben eskopeta hori. Non egon zarie lehenago ez deituteko? Ala eleizaz hobiratzea egiteko bakarrik deitu deustazue?” “Hara, horrek komedia antza dauka gizostearen aurrean, nahiz eta Jaungoikoaren aurrean errukia aurkitu. Hiru lehengusu jesulagun edo jesuitak daukaz eta!”. “Horrek ez dauka zerikusirik!”.

Beste barik etxeratu nintzan tamalez beterik. Ez zan gitxiagorako be, bekokian azken igortzia emoteko asmoz joan eta... bekoki barik aurkitu!

Gauza tamalgarriak jazoten dira txitean pitean gure herrian be. Gixajoak, burua galduta egingo eban beharbada, aspaldi eztarriko gexo astunagaz egoan eta.

Gazteak be zelan hiltzen diran

Mila bederatzirehun eta hamazortzigarren urtean (1918), *gripea* zala-ta hainbeste hil ziran aldian, hogeta hamasei urtedun

emakume bateri eleizakoak eroateko deitu eusten. Gure Jaunagaz gelan sartu nintzanean isiltasun handi baten erdian, gexoa dea-darka hasi zan. “Pantaleon! Pantaleon!”. Ea Pantaleon han egoan itandu neban, eta laster agertu zan: “Zer behar dozu?”, itandu eutsan. Eta gexoak erantzun eutsan: “Hara gazteak be zelan hilten garean!”. Danak harriritu gelditu ziran.

Nonbait euren autu aldietan Pantaleonek esaten eutsan: “Gu zaharrok hil egin behar!”. Eta besteak, hilten egoala, horixe erantzun eutsan. Gero, amasa hartu ezinik oxigenoa ekarri eutsoen, eta gexoak badino: “Zergaitik?”.

Hau be gripe aldian gertatua

Hogeta zazpi urtedun mutil bategana deitu eusten. Sugarragaz burutik egiten eban.

Ni joan aurretik, esnea emon eutsan osaba bateri, edanda basua arpegira jaurti eutsan. Kutxilo bat eskuan eta, “errokoteagaz” ez joateko esan eusten.

Gure Jauna gela baten itxi, eta estoleagaz bakarrik hurreratu nintxakon. Ondo hartu ninduan. Nik itandu neutsan: “Zertarako dozu kutxilo hori?”. Eta berak: ¡Hara! Pozu batera jausi naz bai, eta han botila zati batzuk egozan, eta ahoan sartu jataz; eta hare-exek aterateko da kutxilo hau”. Erantzun neutsan: “Gizona, ekazu kutxilo hori, eta horregaz baino hobeto neuk aterako deutsudaz kristal zatiok”.

Zotz baten puntan guate apur bat ipini, ur hotzetan busti eta ahoa igurtzi neutsan. Pozarren gelditu zan. Gero suretan be horixe egiteko esan eustan eta halantxe egin neban.

Gure Jauna hartzeko ez zan gauza eta Azken Igortzia emon gura neutsan. Horreta-

rako, zertarako zan azaldu ondoren, eta adidi entzun, esan neutsan: “Zu gudari egona zara, ezta?”. “Bai, Jauna”, erantzun eustan. Oin “firmes” egon zaite Azken Igortzia emoten deutsudan artean”. Ume bat lez geldi-geldi egon jatan, nahiz ukabila gertu euki. Hiru ordu egin nebazan eta goizeko hiruretan Gure Jaunagaz etxera bihurtu beharrean izan nintzan. Agur egitean, haren eskerrak emon beharrak ez eukan amairik, egin neutsan mesedeagaitik eskerrak emoteko. Gixajoa goizeko seiretan hil zan.

Jardunaldi on batek egin leikezan onurak

Garagarrileko egun erre baten, *boardilla* baten gaizki gexorik egoan andra gazte bateri Eleizakoak eroateko deitu eusten. Teilatua bakarrik euken ganean eta geleak laba bat zirudian. Izerdi patsetan nengoan. Neure zereginak eginda etxeratzeko nenguala, ohartu neban han egozan emakume taldetik bat be ez nebala ikusi eleizan. Gaueko hamaikak ziran. Eta eurak zerbait entzuteko gogo agertu ebela ikusirik, ateburuan gelditu nintzan, jardunaldi bateri ekiteko. Ordubetean ekin neutsan.

Beste gauza batzuek gomutatzen naz: gurasoak umeak ondo hazteari zelango ardureagaz ekin behar deutsien azaldu neutsela. Hamabietan etxeratu nintzan. Handik egun batzuk barru Bitoria izena eukan emakumea hil zan.

Handik hamazazpigarren urtean, egun baten, erietxe edo ospitaletik deitu eusten. Hamar gizon egozala zain eta autortzen joateko. Kapilako atarian gizonok aurkitu nituan. Agur eta barriketan dihardugula, euretariko batek (danak ziran nahaspilen bategaitik-edo erbestera iges egindakoak)

badinost: “Jauna, nik berori ezagutzen dot. Gomutatzen da zer esan eban, oin hamazazpi urte, han boardilla baten, gexoagana joanda?”. Niri bururatu jatan bapatean Bitoria gexoaren *boardilla* izan zala, eta erantzun neutsan: “Bai, Bitoriaren etxean?”. “Bai, jauna; hantxe nengoan ni bazter baten, berorrek esan ebana entzuten. Eta entzun nebana egundo ez jat ahaztu. Horrexegaitik autortzen etorri naz”.

Gizon horri Juanito eritxon. Neure zeregina amaitu eta etxeratu nintzan, eta handi aldi bat igarota, Juanito hori bularretik egoala-ta Eleizakoak eroateko deitu eusten. Beste askoren antzera ezjakin gixajo bat zan. Eleizakoak hartuta gero txarto egoalata, bere lagun sinestebakoak zabaltzen hasi ziran *zibilez* enterrauko ebela, Eleizako barik hilteko izena emonda eukala-ta.

“Ez horixe!”, esan neutsen: “Horrek bere gogoz Eleizakoak hartu zituan eta eleizaz obiratuko dogu”.

Egunero ikertuten neban eta Jaungoikoagaz bakean hilteko gogoa agertuten eustan. Halango baten hil zan eta, arerioak ahaleginak egin arren, eleizaz obiratu genduan. Hara Jaungoikoak gure arimetan zelan lan egiten daben. Hamazazpi urte lehenago entzundako hitz batzuk zelango ondorena ekarri eben. Izan be, Jaungoikoaren bideak harrigarriak dira! Egia handia benetan, esandako hitz onak beti bere onura dakarrela, eta lurbira honetan arimako gaietan be ez dala ezer galtzen!

Luzaroan biziteko biderik onena bizitza ez laburtzea da

Gizon bat burutik beherakoak hartuta erdi elbarrituta gelditu zan. Erren egiten eban,

baina nahiko ondo gelditu zan. Egun baten arineketan joateko deitu eusten. Gizon hareri barrero burutik beherakoak emon eutsan, eta Eleizakoak emon neutsazan.

Etxekoai esan neutsen: “Honek zeozer egin dau, holan txarto egoteko”. “Bai,” erantzun eusten: “Atzo eztegu batera joan zan, eta han jataldi eder bat egin eban eta ostean burutik beherako hori etorri jako”. Tamalgarrria benetan! Urte batzuk gehiago bizi zeitekean gizona adinik onenean hil zan.

Beste baten, hogeta bost urtedun mutil bategana arin joateko deitu eusten. *Dremia atake* ikaragarriagaz egoan. Ama bakarrik egoan etxean eta neuk hiru ordu laurenean eutsi behar izan neutsan, hormeagaz burua jotzen eban eta.

Txarraldia igaro jakonean, autortu eta beste zereginak egin, eta esan neutsan: “Lorentzo, ahoagaz neurrian ibili hadi; jatekoagaz arduraz ibili ezkeror urte askotan bizi heinteke, osterantzean badakik, beste holango aldi bat etorten bajata, ez dok bizirik urtengo”. “Bai, bai” esanda, bakean itxi neban.

Handik hamabost egunera, non jatortazan, arrapalada baten joateko, gure mutil hori guztiz txarto egoala-ta. Joan nintzan eta negargarriro egoan, arpegia ubel morauta, konorte barik. Amak, lebatza-ta holako gauzak emonez, gainera, aurreko egunean Elgoibarrera lagun batzukaz joanda, izugarrizko jan-edana egin ebala, piper eta guzti. Ez eban urteerarik eta hogeta bost urtedun hil zan bere erruz, luzaroan bizi izan zeitekeana.

Egia da bai, asko gazterik hiltzen dirala, euren erruz bizitza laburtzen dabelako.

Izarrik be amesetan?

Batzuen irudimena noraino heltzen dan ikusteko, hara hemen jazokune bat.

Egun baten andra batek bidez ninoala hauxe itandu eustan: “Jauna, zelan dago *urlia* Olarreagako gexoa?”. “Nik dakidala Olarreagan ez dago gexorik”, erantzun neutsan.

Itaun horren susterra jakin gurarik, ames batean eukala ikusi neban. Gure auzoko andra batek amesetan egin eban, Olarreagako *urlia* gaizki gexorik egoala. Eta bere auzoko bateri hauxe esan eutsan: “Badakizu bart ames bakan bat egin dodala?”. “Zer?”, itandu eutsan besteak. “*Urlia* gexorik txarto dagoala”...

Besteak ostera, amesa egiaztat hartuta, soloan lanean egoala, hormea bitarte ebala

garririk gorakoa baino ez zan ikusten eta, igeltzeru bat zuriz jantzita handik igaroten ikusi eban. Eta bapatean egin eban: “Horrek Don Gabrieleke izan behar dau *urliari* Eleizakoak eroaten”. Eta beste barik, ni gero ikusi ninduanean, ea gexoa zelan egoan itanduten etorri jatan.

Begira irudimena zer dan. Alde batetik, ames lez lagunak esan eutsana, benetan jazotako lez hartu eban. Eta gero hori buruan ebala, zuriz jantzita igeltzerua Olarreagarantza joiala ikusi ebanean, uste izan eban ni Eleizakoak eroaten nintzala. Eta hara inondik susterrik ez eukan gauza bat egiaztat zabaltzen da. Hamaika holango ikusten da gaur egunean be!

Guzurra sinesteko erretzasun gehiago nonbait, egia aintzat hartzeko baino.



Oharrak

¹ Ander Manterola (2005): *Gabirel Manterola (1890-1977)*. Bidegileak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

² Juan San Martin (1990): “Don Gabriel Manterola. Mendeurreneko oroitza”, *Eusker*a, XXXV, 282-288 or.

³ Epail: martia.

⁴ Jorrail: apirila.

⁵ Dagonil: abuztua.

⁶ Tximist-burdi: argindarrezko tranbia.

⁷ Juan Bautista Ibargutxi, eleizgizona, Ubideko semea eta euskal idazle ezaguna.

⁸ Lekaimetxe: monja-komentu. Lekaiame: monja.

⁹ Aldi horretan Eibarko parrokiaren koajutore, erre-tore-laguntzaile. Sindikalaritza katolikoan buru-belarri sarturik ibili zuen gudu aurre guztian Eibarren. Hainbat liburu eta argitalpen idatzi zituen, euskal langileriaz, euskal arrantzu-eskolez, euskal moral eta ohiturez, Eibarko historia-gaiez, besteak beste. Euskaraz ere *Mendiko Eguna* izeneko zarzuela bat eta *Amets larria* antzeslana, 1923an Eibarren taularatua. ELA sindikatoaren sustatzaile eta babeslea izan zuen, eta artikulu asko idatzi zituen sindikalaritza gaiez, batez be *El Dia* eta *Euzkadi* egunkarietan eta *Argia* eta *Yakintza* aldizkarietan.

¹⁰ Hilobiratze: enterru, lur-emote, ehorzketa, bea-tze.

¹¹ Ikertu: bisita egin.

¹² Lotazil: abendua.

¹³ Bultzi: tren.

¹⁴ Felipe hiru anaietarik zaharrena zuen. Gabirel gazteena. Erdikoari Txomin eritzan. Euren ama, Nikolasa Urigoitia, gazterik geratu zuen alargun; aita, Florentino Manterola, Gabirel zazpi urteko mutikotxoaren zala hil jaken eta.

¹⁵ Autorkuntza: konfesinoa.

¹⁶ Txaunburu: (*neol.*) parroko.

¹⁷ Agurtza: errosarioa.

¹⁸ Eleizkizunak erderaz, gaztelaniaz, egiteko ohi-tura, Gabirelen esanari jaramoten badeutsagu, 1879. urtean edo hor inguruan hasi zuen Eibarren; azkenengo karlistatea (1872-76) amaitu eta ostetxoan.

¹⁹ Martin Oiarzabal, eleizgizona eta euskal idazlea.

Ikertaldi: bisita.

²⁰ Iraduz: priesaz.

²¹ Ingi: papera.

²² Jardunaldi: barriketaldia.

Ezkaratza

Herritik gurasoakaz etorri zan, umea zala. Ez dau ia gogoratzen zelakoa zan herria, zelakoak etxeokak. Hotza eta zabaltasuna lotzen dauz herriagaz. Sentipenak, laino artean. Ezin, ezer zehatza gogora ekarri. Berrogeta hamabost urte bete dauz oraingo asteen, eta aspaldiko partez ahaleginak egin dauz herriko etxea akordura ekarteko, lagunak, senideak; baina ez jatorko ezer burura, hotza eta zabaltasuna baino ez. Lapikoan ortuari batzuk bota dauz, ordubete egosten izango dauz eta lekak gozogojo jango dabez; gaur, ganera, termometroa zeroaren inguruan dago, eta eskertuko deutsielakoan dago.

Ama meztara joan jako. Lehen domeketan baino ez zan joaten, baina udatik hona egunero joaten da, ia-ia. Ez deutso galdetu zergaitik, bildur deutso erantzunari. Eta hori da, hain zuzen be, bere bizitzan nagusi egin dan berbea: bildurra. Esanahi osoagaz, bildurra, umetako mamu formako eta eukiz betetako zer hori. Baina, tira, ondo konpondu da orain arte horregaz be, eta hemendik aurrera ezer ez da izango okerragoa. Alde horretatik, beti izan da baikorra. Personen bildur da, baina ez geroari begira.

Lapikoko estalgia kendu eta patata zatiak bota dauz, eta ezkaratza osoan zabaldu da leken usain gozoa. Jatekoa preparetea gustuko dau. Hurrengo egunean zer egingo dauan, zer behar dauan pentsetan emoten dau ohean, loak hartu arte. Goizetan, harrikoa egin, labadorea ipini edo erropak eskuz garbitu, eta, gero, gogotsu ekiten deutso: ortuariak garbitu eta zatitu, lentejak edo dana dalakoa beratu, patatak zuritu... irratia be ez dau ipinten, gozamenaren gozamenaz. Aspaldion, ganera, goizaren zati eder bat bakarrik egiten dau, ama meztara joaten hasi danetik.

Kaletik etorri da ama, hotzitura, eta esnea bertu deutso. Nor ikusi dauan, zeren ganera berba egin daben, abadeak zer esan dauan. Danaren barri emon deutso. Ondo moldatzen da beragaz.

Jenio bizia dauka amak. Ez da makurtzen inoren aurrean, ogi santua hartzeko ez bada. Beti esan deusie halako ama daukala. Baina, antza, batzuek bildur deusie, pentsetan dauana esaten dau-eta. Berak gurako eban halakoa izatea, baina ez da. Bera ezebeza baino ez da, isila eta apala.

Hotz egin arren ez dau euririk egiten, eta eskuz garbitu dauana kanpoan eskegiteari ekin deutso.

Orduantxe lehenengo pisukoak urten eta agurtu dau. Oso andra jatorra da. Bakarrik bizi da, baina alabea astero jatorko. Irribarretsu ibiltzen da beti. Gustuko dau beragaz berba egitea. Senarrari, ostera, ez jako gustetan lehenengo pisukoa, ez beragaz berba egitea. Etxean senarra dagoanean ez dau eskegiten ezer kanpoan, badaezpadan be.

Eguerdiro eguzkiak lehenengo pisuko andrearen etxean jotzen dau, eta, udan, bero handia egiten ez badau, soina bilozik egoten da leihoan, eskuagaz aspaldi kendu eutsen titia estaltzen dauala, jentea ohituta ez dagoala-eta ez dauala inor bildurtu gura esaten deutso irribarrez.

‘Ola, zer, zelan, ondo?’, lehenengo pisukoak.

‘Bbbb bai, ondo, betiko antzean’.

‘Hotz egiten dau, bai, baina gaur eguzkiak dana alaitzen dau, ezta?’

‘Bai...’ eta irribarre txikia atera jako. Gurako eban lehenengo pisukoa lakoa izan. Indartsu eta umoretsu!

Telefonoak jo dau, salan. Amari berbetan entzun deutso; antza, lobeagaz dago. Berak be gogoa dauka semeagaz berba egiteko. Seme bakarra da. Gainera, aste bi baino gehiago dira azkenengoz deitu ebanetik. Neska-lagun bakarra ezagutu eutsan semeari, eta haren herrira ezkondu zan. Oraindino ez dabe umerik ekarri. Pentsetan dau lobak izateak bizitza alaituko eutsala; nahiz eta, seguru antzean, gitxi ikusi, erranaren herria urrun dago-eta. Auto-bus bi hartu behar dira herrira joateko. Semeak dino denpora lar behar dauala eurei bisitea egiteko. Ez dauka kotxerik. Eurek be ez daukie kotxerik, eta, bestela be, senarra beti dago lar nekatuta asteburuetan ezer egiteko. Umore onez dagoanean, hilean baten-edo beragaz urtetan dau, koadrilakoak tabernetan bueltea egin baino lehen.

Salara sartu orduko amari ‘agur laztana’ entzun deutso. Ondo dagoala esan deutso amak. Politiko konpondu izan dira beti biak. Gazterik alargundu

zan ama, gizonak Laba Garaietan itxi ebazan birrikak, osasuna eta bizitza. Eta semearen logelan beste ohe bat ipini eutsien.

Semea be isila da. Amari gatxa egin izan jako beti jakitea zer dauan buruan. Eskolatik etorten zanean be ez eutsan ezer esaten. Gaztetan, urtebete igaro zan, neskalguna eukala jakin arte.

Antza, semeak amagaz hartu-emon estuagoa dauka; beharbada, urteak egin dabezalako logela berean. Batzuetan nahibagetu be egiten da, bere burua horretatik kanpo ikusita, amagandik eta semeagandik aldenduta, baztertuta. Berak ez dau jakin inoiz hartu-emon estuak izaten, edo sortzen, edo egiten. Ez daki inoiz lagunik izan dauan. Lehenengo pisukoa laguntzat hartu leiteke?

Gaztetan, eratzuna eskuan jarteagaz batera, beste neska batzuekaz batzeari itxi eutsan, bere senarrari dana emon behar eutsalakoan: denporea, maitetasuna, etxe garbia, jateko gozoa eta seme-alabak. Horretan, baina, ez eban asmau. Luzaz egon ziran lehen semea ekarteko. Gizonak bere errua zala esaten eutsan. Baina senarrak ez eutsan ezer esan behar, berak jakin baekian arazoa berarena zana. Ez zan andra oso bat, ez; eta oin be, ez da. Txikia da eta txikia sentiduten da. Behi txikia beti txahala, esaten eutsan aitak. Eta bai, holan da, zelan ernalduko zan bada? Txahalak ezin dira ernaldu.

Halan ba, semea etorri zan, baina gehiagorik ez. Bere barrua ez zan izan inor babesteko gai. Ezebeza zan orduan be, eta are gehiago hilekoagaz, hileko min eta ezinegonari batzen jakon odol ha ezertarako balio ez ebalako sentimentua. Ganera, odola berez zikina da; lizun eta lohi sentiduten zan. Hamaika trikimailu egin behar izan ebazan, gizonak hilekoa igarri ez eian. Batzuetan, baina, gizonak, igarri; eta beti izaten eban zeozer esateko: odola bai, baina semerik ez; basurdeak baino zikinagoa zara; kendu enbarazutik arrain ustelduei baino hats

handiagoo darizu-eta; ez ni ikutu holan zagozan bitartean, ez dot gura-eta zugaz nahastau. Eta antzekoak. Gizonak esaten ebanagaz bat etorten zan, baina holakoak esaten eutsazanean negar egiteko gogo handiagoo egiten jakon eta negar-antpulek ez urteteko sekulako ahaleginak egin behar izaten ebanzan.

Dana dala, gitxitan esaten deutso ezer gozorik. Bere asmo bakarra ezer zakarrik ez entzutea da.

Gizona berba gitxikoo da. Ez deutso inoiz parkatu seme bakarra egin izana. Eta eskerrak, arra izan zala, emea izan ezkeroo, bertan itxi eta beste emakume bategaz joango zan. Seguru-seguru. Horrexegaitik emoten deutzaz bere artean eskerrak senarrari.

Gizonaren lana nekagarria ei da, eta txahal bategaz ezkondata dago, behia inoiz izango ez danagaz. Onartu behar dauz, gizonaren aldarte onak eta ez hain onak. Bai, horixe, ezkondata dago. Bizi artean. Berotu ez dau inoiz berotu. Zaplaztekoren bat jasoten dau noz edo noz. Txixi-markaren bat, bultza be inoz egiten deutso. Eta, bai, beti esaten deutso baietz narrutan egin gura badau. Bere betebeharra da. Etxea garbi izan, jatekoo egin, seme-alabak izan eta ohekoak egin. Lau betebeharrak eta baten kale. Era batera edo bestera, eskua ezarten deutzazanean, merezidu dauala iruditzen jako.

Zapatua da, baina gizonak ez dauz jantzi kaleko erropak. Lantzean behin, ez dau urtetean goizeko txikiteoaa egiten. Eta etxeko erropakaz ibiltzen da. Ama da etxetik urten dauan bakarra, eta ogia ekarri dau.

‘Ogi horrek itxura eskasa dauka’, gizonak, lehor.

‘Ba, gaur goizean erosi dot’, amak; bera be, lehor.

‘Aurreko egunekoaa emongo eutsuen’, temati, gizona. Atso honek, antza, ez dau amore emon gura. Ba, inork ez dau zalantzan ipinikoo nik esandakoo, ezta atso-zahar honek be!

‘Jan eizu apur bat, ezer esan aurretik’, zorrotz. Gizon guztien artean suhina hau izatea be! Bada markea! Eskua luzatuko neuskio, gustura, ea isiltzen dan.

‘Neuri ez eidazu egin berba holan, gero! Atsoa!’, ozenago. Honek niri esan behar deust zelan egin berba, ala?! Ahal baneu txiki-txiki egingoo neban!

‘Eeee, ba, see, see, se-semeak atzoooo deituu ebann...’, esan dau isilik, bien artea hartzekoo. Burua makurtu dau. Zaplaztekooa merezidu ei dau. Baina ez dau zaplaztekorik jaso. Ez deutzie begiratu be egin. Entzungoo ete eutsien?

‘Et, et, et! Niri, gero, ez esan atsoa! Niri begiruneaa, gero!’, ozenago. Baina morroi honek zer pentsetan dau! Orain ez dago begirunerik edadekooak! Gizon mirrin halakoo!!

Eta gizonak, arpegierea estu, gorputza gogor, begiak sutan, eskua altzau deutso.

Amak, sendoo, bizkor, giharratsu, eskuaz besoari heldu deutso.

Nor bainoo nor.

Betazalak batzekoo bildur da. Hormatu egin da giroaa, hotz dago dana, zero azpitik. Leiak ezkaratza hartu dau. Beste behin, behiaren eta zekorraren ondoan, txahal jaiio barria bainoo txikiagoo da. Lurralde gozoo baten egon gurakoo leuke. Ez... Ez... Ezin dau ezer pentsau. Hormatuta dago.



Erretratua

Gau nahasia eta oinazetsua igaro ostean, Itziar Oizek goiz hartan poema bat idazteari ekin zion buru-belarri. Biren bat ordu eman zituen eginkizun horretan (hitz zehatzak aurkitzen, bertsio desberdinekin frogatzen eta azken erabakiak hartzen). Jarraian, ispiluratu zenean, begitarte antzaldatuarekin, desitxuratuarekin topo egin zuen. Ez zen izutu, maiz gertatzen baitzitzaion hori, batez ere, poemak idatzitakoan. Saiatu zen makillatzen, baina azkenean gelditu zitzaion begitarte eramatea erabaki zuen. Oraindik ere hamabiak zirenez, hirira joatea erabaki zuen eta ohi zuen bezala museoren baterantz abiatuko zenez, trajerik dotoreena eta zapatarik ziratuena jantzi zituen. Gerriko txukun bat ere aukeratu zuen. Berdin egin zuen poltsarekin. Eta berdin barruko arroparekin, koadroen aurrean erradiografiatuta bezala sentitzen baitzen. Badaezpada ere soingainekoa (berdea eta oilar hankadun marrazkiz betetakoa) hartu zuen, eskumako eskuan erdi tolestua zeramana. Eta kalerik kale ere ibiliko zenez, betaurreko beltzak hartu zituen, horrela hobeto ikusiko zuelako, gardenago, ifrentzuago (nolabait esatearren), gainera euliak uxatzeko egokienak ziren.

Hirira hurbiltzen zen guztietan bezala, jendez mukuru zeuden kaleetatik eta indarrean zetozen espaloietatik begitarteak trumilka hurbiltzen zitzaizkion, zenbat-nahi eta noiznahi, harrobi batetik erauzitakoak bailiran, zanpa-zanpa elkarri jarraitutako urratsak bailiran. Zirrara erauntsien moduan sentitu zituen, murgil sakona egin zuen haietan, geruzaz geruza aztertu nahi izan zituen: zernahi kostaturik ere, denek zeukaten zer emana, haragi-haragian bizi izandako bizipenen islak baitzekartzaten. Aspalditik sartzen ez zen museo baten aurrealdean *Gizon-emakume ospetsuen erretratuak eta gertakariak* irakur zitekeen errotulua antzeman zuen 2010eko urtarrilaren lehenengo aste hartan eta urratsak harantz bideratu zituen. Erretratuak oro har gustatzen zitzaizkion. Nortasuna begitartean zegoe-la uste zuen Itziar Oizek, edozein test psikologikotan baino askozaz gehiago. Hau hain zitzaion horrela, ezen literatur kritika bat egin baino lehen, liburuaren azal hegaletan datozen egileen argazkiei maiz erreparatzen baitzien, haietan barneratzen zen buru-belarri, alde guztietatik miatzen zituen, gunea edo argia bilatu arte miatu ere, horixe baitzuen sarritan abiapuntu iruzkinetarako. Honetaz gain,

hiztegieta ageri ez den hitza (“argazkitu”) asmatu zuen, berarentzat esangura berezia zuela adierazteko. Beraz, museoan sartu zen, pinturak bizitzan ataka gaitz askotatik irteten lagundu ziolako eta honako filosofia erakutsi: sarritan bizirik edo hilda egoitea berdintsua izaten dela. Gertakariei dagokienez, historia pinturaren bidez ulertzeari garrantzitsua zeritzon eta mugimendua irudietan ikusteak baduela bere xarma uste zuen. Arrazoi honengatik ere museoan sartu zen.

Erretratuak zeuden areto nagusiaren sarreran karteltxo bat zegoen, non hauxe idatzita baitzegoen: “Debekatuta ozen hitz egitea”. Oharra ez zitzaion gustatu, baina irentsi zuen, oparitzen dizuten gozoki mingotsa irensten den moduan. Izenburuak zioen legez, erretratuak sona handikoak ziren, goi mailako ofiziotan jardundakoenak. Nahiz eta estilloz ere ez zitzaion laketa (anakronikoegia, perfektuegia iritzi zion), ibilaldi batzuk egin zituen bertan, beti bezala koaderno gorrixkan oharra hartzen (gero etorriko zen zuzenketa, akupuntura hori). Bisitari kopuruari dagokionean, bakar batzuk baino ez zeuden eta zeudenak batzuk erdi despistaturik bezala zebiltzan (oso ondo ulertu gabe zertan zertan berpiztu haien garrantzia, ze demontre egin zuten bizitzan horrelako omenaldiak jasotzeko). Bisitari haietariko batzuk barregarri zeudela begi bistakoa zen: lepoak luzatuta, oilaskoak bezala erretratu jainkotu haiengan zer aurkituko, zerbait erdiesteko zain. Itziar Oizek hauei han zer arrantzaturik ez zegoela ohartarazteko gogoia izan zuen, baina badaezpada ere ez zuen ahorik zabaldu. Beste batzuk elkarretaratze isiletan bezala zeuden han-hemenka sakabanatuta, han erakusten zen mailara iritsiko ez zirelako beldur zein lotsaz bilduak edota alderantziz, ur handitan sartzea ohituta daudenen traza hartuta.

Erretratuen ondoko azalpen txartelxoetan inoizko izen-abizenik arraroenak irakur zitezkeen, luze

samarrak eta ahoskatzerakoan, mihia trabatu eta ahotsa urrunarazten dizkizuten horietarikoak. Existitzen zirela sinesteak berak ere lanak ematen zituen. Inskripzioak ere izaera bertsukoak ziren, andre eta jaun gorenen, jaurerrien, maiorazkoen eta bestelako tituluen arteko parafrausetan sartuak. Jarraian, katalogoari begirada bota zion. Hatz orekarietz edota txori ehulearen atzaparrez igaroarazi zituen orrialde bakanak, gero irakurraldi bukaeran amaraun bilakatu zitzaizkionak. Berme batzordearen arabera, erakusketa hark nekez omen zuen berdinek. Koadro bat begiratzean, lasaitasunak ohi dakartzan hobariez ere hitz egiten zen katalogo hartan eta baita mundu hau hobetu beharraz ere.

Luzeran zein zabaleran bi eta hiru metroren arteko tamainakoak ziren, garai desberdinak islatzen zituzten eta belztasunek euren toki propioa zuten. Koadro haietan lau gailentzen ziren eta lau horietatik, bereziki, bat, areto erdian zegoena, besteak baino argiztatuagoa zena. Guztiak garaipen gosez zeuden, indartsu eta desira betean. Oholtza lana egiten ziharduten. Haien artean garaile nor izango zen erabakitzeke lehiaketa zegoela ematen zuen, lehiaketa sinbolikoa esan nahi dut.

Itziar Oizek hasieran ertzetara begiratu ostean, altzairuztatutako eta arragotutako begirada bete zuzendu zion areto erdian zegoenari eta hori egiten zuen bitartean, bozgorailu baten durundia nabaritu zuen barrenean. Izan ere, erretratatuaren osteko leihoaren angeluak sortarazitako argi efektuak erakusketaren izar bilakatzen zuen. Hain erabatekoa zen kontua, hain distira bat-batekoa zerion, ezen pinturak bere baitan kabitu ezinda ematen baitzuen, errealitatera jauzi egin nahi balu bezala. Geruza mehe bezain gardenaz estalita, eginkizunaren eta egingarriaren arteko gurutzaketa magikoa begi bistan jartzen zuen. Gain-gaineko azalaz gain, mamirik barrukoena. Agur eta ohore airea, oro betor eta bedi dioen abegitasun jarrera. Dohainok aitorga-

rriak baziren ere (erakusketaren antolatzaileak horretan saiatu ziren, plater gogor hura behar bezala ikusleentzat jartzen), Itziar Oizi ez zitzaion gustatzen. Erretratua berrogeiren bat urteko andreaarena zen, agian gorte bateko dama, XVIII. mendeko gaztelu frantziar bateko aretokoa. Marko obalean sartuta eta estilo rococoz pintatuta. Beraz, ezin kenzuko irribarre karmin haren ondoan lepokoek, apoiatzen zen apaintze mahaiak eta belarritakoek zein eraztunek mahats mordo erori eta errepikatuak ziruditen, izurra izurtu beharra dagoela dioen teknikiari jaramon eginez. Antzestu nahian zebiltzan keinu errepikaezin haietatik sortutako higidura erreflexuek iradokizunezko gaztelua eraikitzen zuten. Itziar Oizek damari begirada soila igorri zion eta damak Itziar Oiz neurritz gain jantzi zuen, bere egitekoa horixe zela baieztatu eta justifikatu nahian. Dama beste batzuekin batera zegoen, baina besteengandik urrun, horregatik ere nabarmentzen zen. Koadroaren ezker aldean zeuden andreak ezberriak gabe une horretan gertatzen ari zen Frantziako iraultzaz hizketan ziharduten, behintzat egiten zituzten keinu azpimarratuek hori adierazten zuten.

Bigarren koadroa espiritualtasuna (bere perspektiba propioarekin), idiosinkrasia eta soslaiaaren psikologia zaintzen zituen bilduma batetik aterata zegoen. Magistratu edo letradu bat zen, togaz eta ile kiribilez apaindua, dandy puntu halako bat zeukana eta atmosfera hieratikoa bilduta. Saialdi baterako jarria, hain zen urruna, ezen larmintza larrukara baitzeukan eta begirada lainotan harrapatuta. Estiloz eskola ingelesekoa zirudien. Itziar Oizek gihar betean begiratu zion, bere barne muinetik tiraka egin nahi izan zuen, haren hatsa nabaritu, ez erakargarria zitzaiolako, baizik-eta jakin-minagatik, giro hartan barneratu nahian, baina porrot egin zuen. Haraino heltzeko lana egin behar izan zuela beste irakurketarik ez zuen jaso ahal izan erretratuaren begitartearen aldetik. Esku artean zigorrak

ezartzeko zerabilen zilarrezko makilatxoak xaxatzeko gogoa zeukan. Erretratatuaren atzeko eszenatokian epaiketa gela jendez lepo zegoen eta han eztabaidatutako aferak kutsu politikoa erakusten zuen. Izan ere, Oliver Cromwell politikoa eta militarra ahotan zeukaten, haren aldeko defentsa sutsua eginez. Horrek ere distantzia areagotzen zion.

Hirugarren koadroko pertsonaiak hiletistik salbatua zirudien, oraindik ere modu xumean entzun zitekeen korokarekin, begiradaz guztia milikatu nahi harekin, baina xehetasunek eta sinpletasunak galerazia. Marmolezkoa ere haragi kolorea. Estilo errealistak (XVII. mendeko espainiar korrante pikturikoari zegokionak) ez zion irmotasunik opatzen. Agian kanpoko giroak erasana zegoen, garai hartan Espainiak arazo anitz zeuzkalako, moriskoen egoztea edota Hogeita Hamar Urteko gerran parte hartzea, adibidez. Ahoa itxita eta belarri ernerik ikuskatu zuen Itziar Oizek.

Laugarren koadroko pertsonaia XIX. mende hasierako espainiar gazte bati zegokion eta diban batean erdi etzanda zegoen, kanpoan gertatzen ari zen Independentzia gerrari buruzko eztabaida sutsuetatik landa, gauza guztiez haratago. Kasaka ubel kolorekoa zeraman, eskumako eskuan liburu bat eta hazpegiak zehatz askoak bazeuzkan ere, gorputzeko azalari (zertxobait erregorrituari), marfilezkoa edo portzelanazkoa zirudielako, mitotik zein elezaharretik zetorkeen nolabaiteko kutsua zerion. Pintorea teknikan trebatua zen, baina bizitasuna falta zitzaion. Itziar Oiz koadrotik hurbilko jarri zen, xehetasunen peskizan eta baita entzun zitzakeen gorteko zurrumuruengatik eta errezoengatik ere. Lasaitua hartu zuen, ez baitzuen azkenean ezer arrarorik susmatu. Erretratuari ezpainetan atera zitzaizkion zauriak orbainduko ote zitzaizkion itxaron zuen Itziar Oizek, baina ez zen horrelakorik gertatu. Estiloz eskola flandestarrekoa zirudien.

Beste ezein koadro baino nabarmenago izan nahi bai, baina nabarmenen artean ez zegoen batean, hamabigarren erretratuan, hain zuzen ere, iltzatu zituen begiak Itziar Oizek. Hau ere tonu ilunekoa zen, XXI. mende hasierari zegokion eta oraindik pintura freskoa zegoela zirudien. Elkarren ezagunak balira bezala begiratu zion erretratatuak koadroaren hondotik eta Itziar Oizek «sator halakoa, azkenean bilatu zaitut! Izango dugu gerora zertaz mintzatua!» ahoskatu zuen ahapean. Eta baita «oraingoa ez didazu bizkarrik emango, bizitzan gauza batzuek ez dute atzera bueltarik!» ere. Itziar Oizek koadroko pertsonaia erkituta eta zahartuta susmatu bazuen ere (urteak ziren ikusten ez zuela), ohartu zen oldarka begiratzaren ziola pipertuta eta kitzikaturik bailegoan eta baita ere izukaitz eta zain bihurriko zirauela. Hura begiratzeak hozka egin zion barrenean Itziar Oizi, zeinak kargu hartu baitzion eta mehatxatu esanez «zin dagizut ostera ere itzuliko naizela». «Ez izan eta bai uste» aurpegiratu zion murmurikatuz azkenean. Histeriaz barre zantzoka hasteko gogoia ere eduki zuen, baina erreprimitu zen. Beti bezala kapitainez jantzita zegoen hiltzailea (noblezia titulu baten jabe ere bazen, nahiz eta une horretan Itziar Oizi ez zitzaion gogoratzen zein arraio ote zen). Guztiz tente begiratzaren zuzen erretratatuak Itziar Oiz. «Ezta ukiezin balitz ere!» pentsatu zuen Itziar Oizek. Eskumaldean gerra ontzi batzuk zeuzkan, urrutitik begiratuta jostailuzkoak ziruditenak. Zein batailari edo batailatorik zegokion ezin jakin, dena zehaztugabea baitzen koadro hartan. Agian Golkoko Lehenengo Gerrari edo Golkoko Bigarrenengo Gerrari edo auskalo...!

Koadroen egileen izenei ez zien garrantzi handirik eman, Itziar Oizen iritziz, koadro baten balioa koadroan bertan baitago eta ez egilearen izenean, hau oso ospetsua izanagatik ere.

Koadroen xehetasunak mikroskopioz aztertu zituen, froga bideografikoak egiten balego bezala.



Honetaz gain, begiak argazki kamerak bezain zehatzak zeuzkan eta belarriak grabazio telefonikoak entzuteko bezala ezarriak (koadroetako gertakariari adi). Gero, blok marroi batean oharrak apuntatzeari ekin zion, espioitza lan baten emaitzak transkribatu edota froga judizial baten txostenari azken zertzeladak propinatzen bailegoan. Koadroak orpo orpo jarraitu zituen, haien itxurak eta errealtateak ikertzen, haien fideltasunik ezak eta egiaztagiriak balantza berean jartzen. Kontrolpean eduki nahi zuen dena. Dokumentu komertzialak erreparatzen edota berrespen judizialak sinatzen ari zelakoan zegoen. Izan ere, Itziar Oiz beste zeregin batzuen artean detektibe lanetan ibilia izan zen, zehazkiago esateko, agentzia bateko detektibe pribatu gisara, beraz, bazekien zer zen kaudimen gabezien eta maulen kontua eta ohartzen zen propietate intelektualaren, zerga iruzurraren eta bahituraren arazoak arte alorrari ere bazegozkiola.



Detektibe bizitzatik zantzuak gelditu zitzaizkion, adibidez, egoera horietarako propio zeukan bufanda beltza zeraman beti, zetazkoa zirudiena, azpikeriaz mugitzen zuena eta azpikeriaz begiratzeko zintuena, sugerik malapartatuenaren modura. Begirada urpean ibilarazten zuen, marmarka egon ohi zen sarritan (tabernako marmarrez, txakurrek janari hondarretan ateratzen duten hots berberaz) edota baita totelka ere, hitzen barruko hoskidetasuna eta esanahia bilatzearen (aukeratzen hasiz gero, nahiago zuen toteldura zolia zizipaza zozoa baino). Konplizitate keinu bilduma ere egiten zuen (blok marroian apuntatzen zuena). Hoztasun zehatza praktikatzeko zuen, gauzak ezin direla berotan egin uste baitzuen, beraz, zernahiri ere buru egiteko erne egon beharra aldarrikatzearen alde zegoen. Eszeptizismoaren izenean batzuetan Ezdeus txakurraren jana dastatzen zuen (txirbil nutritibo horiek). Adibidez, kapitain hiltzailearen koadroa ikusten ari zen

bitartean, txirbil horietariko bat zeukan hortz artean. Sarritan aurrera jarraitzeko ahaztea beste erremediorik ez dagoela uste zuenez, ahanzturak izaten zituen, beraren iritzi garrantzi gabeko akats txikiak, beste batzuen aburuz, berriz, hutsune larriak zirenak (edota barkaezinak). Distantzia mantendu nahian, gidatzen zuen sedana bigarren lerroan apartatzeko ohitura izaten zuen (beste automobil batzuk ere erabiltzen zituen –Rolls Royce, chevrolet bat eta limusina bat–, Amerikan luzaro bizi izandako osaba batek oso noizbehinka eta opari gisara uzten zizkionak jai egun batzuetan). Detektibe izateak beste jardun eta jarreretatik aspektuak hartzea eskatzen zuenez, bizi zen lurraldean hain ohikoak ziren mitinetatik mezu garrantzitsuak azpimarratzeko joera txertatu zitzaion. Bestaldetik, nahiz eta bere bizitza pertsonalean kotoi artean zebilen (esan nahi dut mundu honetako martxa azkar eta zoroarekin erkaturik zeharo lasai), talaiia zirudien etxe bat zeukan bizileku (detektibe bat dagokionean), zeinetatik begiak zorrotzuz gero, ingurune guztia (azken eta urrutiko xehetasuna barne) ikergai baitzeukan.

Aldi hartan hemerroteketan orduak sartzen zituen egunkarietatik ateratako kasuak irakurri eta mikrofilmetan artxibatzen. Astelehenetan arraindegietara joatea gustatzen zitzaion, itxita dauden egunetan: kanpoaldetik salmahai hustuei begira geratu eta eleberri beltz kutsuko istorioak otutzen zitzaizkion. Eta otu ez ezik, errealitatean ere bizi izan zituen, ikertu behar izan zituen.

Istoria garrantz askotan sartu behar izan zen. Adibidez, hatz salatzailearen hiltzailearen kasuan. Hatz salatzaileak kale jakin batzuetan jarduten zuen: norbait seinatu eta seinatua handik denbora batera desagertzen zen, bahituta eta gero hilda. Hiltzaileak talde oso bat koordinatzen zuenez, hilketa ikertzeko garaian arazoak katramilatzen ziren, hainbat arlotan eta hainbat norabidetan katramilatuta

ere. Askotan sarea lepo inguruan estututa nabaritu izan zuen Itziar Oizek (a zer nolako bufanda zen hura!). Gainera, hiltzaileak hildakoa betortz hozkaren bitartez zigilatzen zuen eta hozka marken kontua ere soka luzeko arazo suertatzen zen. Hiltzaile euritakoduna, berriz, jaietan aritzen zen, euritako punta pozoitsua orpoetan (disimuluan bezala) iltzatuz. Hasieran zaintiratuak eta bihurrituak ziruditen haiek, baina gero heriotza zetorren. Cricket batedun hiltzaileak komunak zituen esparru eta buruan kolpeak emanda hiltzen zituen biktimak (gehienetan emakumeak, berrogei urtekoak eta ilehoriak). Burukomin eta lan gehien ematen ziona, ordea, karruseleko hiltzailea izan zen, hirurogei urteko gizonezkoa. Hasieran ile-apaintzailea izan zen emakumezko ile-apaindegi batean eta bere espezialitatea kardatuak eta mototsak izaten ziren, errulokak, pintzak eta horrelakoak erabili behar ziren orrazkeretan. Ile-apaindegi hartara joan ziren batzuk hil ziren buruko gaitzez jota, baina gehienak adinekoak izanda, nork hartuko zuen susmorik? Aipatu hiltzaileak bainuontzian egoteko ohitura zeukan, bainuontzitik balkoiraino joatekoa. Balkoian mutur batetik bestera ibili ohi zen, urduri ibili ere, trena galdu izan balu bezalaxe. Ile-apaindegitik bainuontzira eta balkoira eta balkoitik azkenean karruselera egiten zuen jauzi eta karruselean, eskuan teleskopio bat zeukalarik, tiro egiten zuen, modu sotilean balkoian aritzen zen garaietan, lasto baten bidez arroz aleak beheko auzoei jaurtikitzen zizkien eran, baina oraingoan era hilgarrian. Gutunontzietako hiltzailea edota betazal metalikoak zeuzkana (horrela ere ezaguna zen), aldiz, hiriko postetxe desberdinetara joaten zen. Bertan zela, gutunontzia zabaltzean, hots etengabeak sortarazten zituen, hainbeste ezen kaletik zihoazen ibiltariak automatikoki buruak jirutzen baitzituzten atzerantz. Hotsak haien atzetik zihoazela antzemanda, hurbiltzen ziren gutunontzi hartara eta orduan hil-

tzaileak bizar xafla handiak atera eta lepoko eta besoetako zainak moztzen zizkien. Basoko hiltzailea, ordea, biktima aukeratu edozein kale kantoitan eta inguru-minguru zebilkion, basapiztiak bezalaxe, harik eta akabatzen zuen arte, horretarako itua-ren moduko zirkulu konzentriko amaigabeak eginez. Dentista hiltzailea pentsamendu eta hizkuntz politika bakarrekoaren aldekoa zenez, dialektoak zerabiltzaten pazienteei inplanteak eta enpasteak alderantziz jartzen zizkien, euren joera makurra zuzendu eta gizartea hobetu beharrez. Hori lehenengo pausoa baino ez zen. Bigarren pausoa emateko George Bernard Shawen lanean oinarritutako G. Cukor-en *My Fair Lady* filma zegoen. Izan ere, Pigmalion eskultorearen elezaharretik abiatuta, Enrique Higgins fonetika irakasleak Liza Doolittle saltzailea eta ahoskeran trebatu nahi duena ikasle hartzen du. Dentista hiltzaileak bere kontsultatik igarotako guztiak (emakume zein gizon izan) Liza Doolittle bihurtzen zituen, baina filmean ez bezala, derrigorturik, horretarako fonetika klase jasangaitzak eta aspergarriak emanaz. Azkenik, amaiera zoriontsuak bakarrik nahi zituen hiltzaileaz gogoratu zen. Izan ere, zioenez edo sinestarazten zenez, bizitza ipuin miresgarria izatea exijitzen zuen eta horretarako bidean aurkitutako edozein oztopo (elbarri bat, gaixo kroniko bat) erditik kentzen zuen.

Baina behin gizakien maltzurkeriez eta trikimailuez aspertu zen Itziar Oiz eta bakartuz joan eta horrela esparru isolatu eta zedarrituetan egotera zaletu zen, bibolin hariz blindatutako kaiolak ziruditen lekuetan ibiltzera. Museoan detektibealdi hura gogoratzearekin batera, kaiola blindatu batean bezala sentitzen zen. Jarraian eta keinu instintibo batez zeramatzan eskularru beltzei begira jarri zen.

Koadroari koadro eta ibiliari ibilia, erakusketa aretoa bi aldiz zeharkatu zuen ibili mantsoak egi-

nez. Aretolan giro epela bazegoen ere, soingainekoa jantzi zuen, urtarilaren eraginez barrua zertxobait hoztuta baitzeukan. Erakusketa hartako begitarteak estandarizatuak baziren ere, tasunen bat edo beste estandarizatuak edukitu behar zutelana han egoteko pentsatu zuen. «Hizki handitara ekarriak izateko zer egin ote zuten?» galdetu zion bere buruari Itziar Oizek, «zeintzuk instituziok enkargatuak zeuden konde, monarka eta duke haiek eta gertakari haiek horrela agerrarazteko, zein asmorekin eginda zegoen hura guztia?». Baina burua ez zuela lorrinduko, ez zuela buruz gorako aizkolketarik egingo erabaki zuen. Ondorioztatu ere egin zuen berari ez zeukatela haiek zer eman eta aukeran nahiago zituela spot batzuk koadro haiek baino. Bakar batek ere ez zion bihotz barrua irauli.

Aretoko sarrerarantz jiratu zuen burua, txakur zaindariaren jaspezko eskultura, *cancerbero*-arena, zegoen tokira. Bisitariak neurrian sartzen ari ziren. Giroa nahasten hasi zen: eztabaida zirtzilak entzun zituen, ez zuen ulertzen zertatik zertara agertu ziren distira batzuk, nondik nora hurbildu zitzaizkion, txirbilak antzeman zituen eguratsean, baita lama-dak ere. Urratsen klake hotsek zorabiatu zuten zertxobait. Hasiera samarretik eduki zuen susmoa egiaztatuta zen: entropia edo etxeko hizkera erabiliz, norbait zebilen airean dena hankaz gora jarritz. Eskuko ispilua oratu eta tupea eta gorgona ileak zeuzkan (lagun batek esaten zion bezalaxe erdi txantxetan erdi benetan) eta ezkerreko eskuko eri pototsa gorrituta eta minduta urduritasunaren urduritasunaz, hatz-bizarrak banan-banan erauzteagatik. «Betiko errezeloak» murmurikatu zuen bere baitan.

Jendearen artean bideak urratuz, erretratuetara hurbildu zen berriro eta inguru guztiari gaina hartu nahian, lepoa luzatu zuen eta hainbeste sartu-irtenka ibili ostean, bihurrituta zeukala iruditu zitzaion, orkatila bailitzan. Koadroetako erretratatu batzuk antzaldatuak zeuden: batzuk jarreraz aldatu zirela-

ko (aulkitik altxatzerakoan edota begiak igurtzi, zintz egin edo garauren batean hazka egitean) edota biologiaren bilakaeraren eraginez (batzuk asko zahartu ziren eta baten bat gorpu ere aurkitu zuten, mihisearen denboran gaindi gorpu).

Halako batean gogaiturik zela, Itziar Oizek bisitari batengan jarri zuen arreta: gizon bat zen, hirurogeita bat urtekoa gutxi gorabehera, hiritar arruntaren itxura zeukana jantziari eta ibilerari dagokienean, baina keinu duin batez sostengatua. Izkina batean zegoen eta argi murrizta eta hertsiaiatik ikusten ari zen koadroko begitarte eskaneatzen ziharduela zirudien. Ezpainak ertzatu eta bere buruari zerbait esaten zion, zenbait esaldi mugagabe txirimizkatzen eta sasitzen ari zen. Itziar Oiz hurbildu eta hizketan hasi zitzaion koadro baten aitzakian, baina lehenengo esaldiaren erdialdera iritsi aurretik, museoko zaindari bat hurbildu zitzaion begiak txitxildurik, eskumako eri erakuslea ezpainetan pausatuta eta ahotsaren tonua jaisteko gaztigatuz.

Hain isilka hitz egitea (sekreturen bat elkarri aitortzen edo gaizki esaka ariko bailiran) ez zela gauza iritzirik, museoko kafetegira abiatu ziren Itziar Oiz eta Josu Aurre, bisitari edadetua. Itziar Oiz hizketari heldu zion aurrea izan zen. Gogoko izan zuen lehenengo unetik Josu Aurreren koadroak begiratzeko modua, begirada hari zerion errespetua; ikasi nahi bai, baina bizitzaren baldintzak behartuta ikasketak burutu ezin izan dituztenek daukaten errespetu eta distantzia modu zaindua.

–Ni museo txiki batean bizi naiz, esan nahi dut, etxea marraztu eta pintatzen ditudan koadroz eta paperez beteta dauzkadala. Koadroak eta paperak haur jaio berriak bailiran tratatzen ditut. Pinturaren azalak babestu eta janzen nau bizitzaren aurrean –esan zion Itziar Oizek eta, berriro ere, nabaritu zuen Josu Aurreren errespetuzko begirada hura, aurreiritzirik gabea.

–Egokitu zaigun mundu hau gauzez gainezka dago, ezertarako balio ez duten gauzez mukuru, baina jakintza eta museoak ez daude inoiz soberan, ez horixe –erantzun zion, aspalditik oldoztu eta mamitutako ondorio bat plazaratzen den bezala.

–Gaurko erakusketara etorrita, zer iruditzen zai-zu, Josu?

–Beno ni ez naiz aditua, zalea baino, hiritar arrunta eta jubilatua eta orain lantegira joan behar ez naizenez, aisialdiak kultur jardunaldietan ematen ditut irakurtzen, liburutegira joaten eta noizbehinka zina ere banao. Bete gabeko ametsak laztantzen, badakizu, eta zure galderari erantzunez, oro har esanda, erakusketa urruna iruditu zait. Urruna alde-ratuta adibidez duela lau aste ikusi nuenarekin. Hura ere figuratiboa zen, baina izenburuak horrela-koxeak ziren: *Mari Pili catering zerbitzari gogoan-garria izokinezko pintxo azpil batekin, Perutxo itur-ginaren dotorezia eta trebeziak* edota *Mikel jaun prestuaren burua estolda baten zirrikitu batetik ikus daitekeelarik* eta, egia esateko, gertukoak ziren niretzat, etxeko ateen artetik bezala nengiln pase-atzen. Irudiak indar handikoak ziren, plastikoak, kolorea zuten muina eta bazirudien izokinezko pintxo bat han bertan dastatzen zeundela, okinde-giaren usaina barruraino sartzen zitzaizun, erai-kuntzako langilearen keinu zaildua haragian txertatuta gelditu edota arrain saltzailearen esku hotzak sentitzen zenituen. Bestaldetik, hemen tonu arrun-tean hitz egiteko debekua gehiegi iruditzen zait. Beno, hau nire aburu apala baino ez da.

–Erabat ados, gainera nik argiago hitz egingo dut, sartuko naiz mamitan, alor batzuetan lotsa erabat galduta baitaukat, zorionez; mihipekorik gabe jarduteari atxiki natzaio aspalditxotik. Hasteko, kultura desakralizatu behar da, koadro bat mihise gainean ipinitako pintura geruza da eta eleberria hitz bat bestearen atzetik jartzen egiten da eta hor-ko koadroei buruz, urrunak ez ezik, zurrnak ere

badira edo, zehazkiago esanda, zaharkitu itxura darie. Eta bi, horko ohar genealogikoak nori axola zaizkio? Inori ez. Politiko edo abokatu entzutetsu horren aita edo aitona nor ote zen? Niri bost axola, xehetasun genetiko eta genealogikoez asper eginda nago, norbanakoa bakarrik dago munduan, bakarrik historiaren aurrean eta hor leinu kontuek ez dute ezer egiten. Eta honekin lotuta, gauza zoragarriak ez direla existitzen argituko dizut, gehienez duinak, duintasuna errebindikatu behar delakoan nago, gau-za duinez erdi mespretxuz hitz egin ohi da eta ez jauna, gauza duinak baliotsuak dira (baliotsuak diren bakarrak, agian) eta eskuetako hatzez konta daitezke. Ez zaitetz gehiegi ardua arlo metafisiko-ez, Josu, sinets nazazu, zerbait bai, ordea, eremu eta leku guztietan baitago ikasteko eta zuk esperien-tziaz dakizunez, ikastea beti aholkagarria baita, adi-na edozein delarik ere. Aretoan isilpean hitz egin beharrari buruz, ordea, ergelkeria hutsa deritzot.

–Desakralizazioa, agian, giltza hitza horixe da –gaineratu zuen ohar gisara Josu Aurrek.

–Bai, baina bestaldetik, beste oztopo batekin topatzen gara, Josu, definizioarekin, hain zuzen ere, oso zaila baita koadro eta pintura bat definitzea. Bi koadrok ezaugarri berdina eduki ditzakete eta zeharo desberdinak izan. Adibidez, Goyak erretra-tuak egiten zituen, belztasunak erabiltzen eta histo-riaren kontaketa koadroen bitartez utzi zigun. Bai-na mesedez ez konparatu Goya eta *Gizon-emakume ospetsuen erretratuak eta gertakariak* deritzon era-kusketa hau!

–Ez, ez dago konparatzerik, koadro hauek ez daukate arimarik –atera zitzaion barru-barrutik eta borobil-borobil Josu Aurreri.

–Eta erretratatu batzuek ziur aski bizi zirenean ere ez zeukaten arimarik –gaineratu zuen Itziar Oizek zorrotz.

Asaskatzen egongo balitz bezala esan zuen azken hau eta jarraian isiltasunean murgildu zen:

bihotzak helmugara heltzen ari den korrikalari baten taupada kopurua zeukan eta hatzak urduri mugitzen zituen serbilleta batean. Jarraituko luke gai batetik bestera jauzi egiten eta maiseatzen eta kritikekin argi sortak jariatzen berari gustatzen zitzaion bezala, baina nahiago izan zuen gurpil zoroari galga jartzea. Jakin bazekien-eta barneko marmarra hasten zitzaionean zer zen hura, barne mihi ezgaraikoak eta kaotikoak lanari ekiten zionean. Kopeta sakelatik atera berri zuen zapi batez xukatu zuen. Gero, zerbait esan zuen itxurazko gauzei buruz, garrantzia kendu nahian bezala.

–Jantzi garesti batek ez du zertan hobeia izan –gaineratu zuen Josu Aurrek.

Kalean zeudela, soingainekoaren poltsikoan eskuak sartu, beti gordeta eraman ohi zituen ping-pongeko pilotak atera eta esku batetik bestera igarorazi zituen, malabarista baten moduan.

–Gustatzen? –galdetu zion Josu Aurreri haietari-ko bat aiererantz bultzarazten zuen uanean.

–Bai –erantzun zion harrituta Josu Aurrek, ez baitzuen horrelakorik espero.

–Nire obarioak dira –argitu zion hotz eta motz Itziar Oiz inoiz baino ironikoago batek.

Orduan Josu Aurre sekulako barre algaretan ito zen, hainbeste ezen begietatik zerizkion malkoak zapiak xukatu behar izan baitzituen, obarioak deskralizatu behar direla pentsatuz edo.

Larunbata zenez eta bai Itziar Oiz eta bai Josu Aurre eginkizunetatik salbuetsiak zeudenez, bazkaltzera joan ziren, arratsaldean berriro museora itzultzeko asmoa baitzuten. Jatexera heldu bitartean Josu Aurrek kontatu zion jakintzarekin babes-туago sentitzen zela bizitzan eta baita gauza soilak (zuhaitzak, errekek, bideak, harriak...) maite zituela, guztion eskumenean daudelako.

Itziar Oizek adi-adi entzun zion kontaketa, hiri inguruko paisaia begi ninietan zulagailu leun gisara sartzen zitzaion bitartean, hirietako mikrogeogra-

fiak belardiak bailiran leun zapaltzen zituen heinean edota baita ere hirigintzaren gehiegikeriak sortarazitako etxe orratz zatarrak ukabilez suntsitzeko gogoia sartu ahala.

Itziar Oizek azpimarratu zuen ezjakintasuna linbo itxurako infernua dela, gizarte mailak asmatu diren izugarrikeriarik handienetako batzuk direla eta hipokrisia, berriz, beti krisalidan dagoen muntroa eta azken bi puntuoi begira, gizartearekiko nolabaiteko distantzia mantendu nahirik, munduaren aurreko bere jarrera modu urrunean egotea zela.

Bazkarian zehar entzundakoari berriro ere erantzun nahian, Itziar Oizek Josu Aurreri argitu zion bizitzan ez zuela jokatu behar hain apal, berak inteligentzia emozionala zeukala, oso jende gutxi zeukana. Azaldu ere egin zion aipatu inteligentziaz gain, inteligentzia abstraktua zegoela (jakintzarekin lotuta dagoenari deritzola horrela eta, adibidez, ordenagailuekin lan egiteko egokia dela), jakintza instrumentala (objektuekin edukitzen dena eta bai entxufe bat konpontzeko, bai pianoa jotzeko baliagarria), inteligentzia makiavelikoa... inteligentzia mota asko daudela, baina berarena inteligentzia emozionala zela, ezbairik gabe. Azpimarratu zion inteligentzia mota honek nola tratatu behar den jendea, nola amore eman eta besteekin zer nolako portaera eduki behar den, guzti horretaz diharduela eta hori gizartean bizi garenez, zeharo garrantzitsua dela eta eguneroko bizitzan beharrezkoa (eta ondorioz, gero eta baloratuagoa izaten ari dela). Erne jarraitu zion Josu Aurrek. Segidan, sorbaldan eskua jarrita, goi mailak edota balizko gauza zoragarriak uxatu behar direla zehaztu zion ostera ere, batetik, egon ez daudelako (buruko ameskerietan ez bada) eta, bestetik, goi mailako hegaldietatik eroriz gero, betirako gelditzen zarela lurperaturik. Bukatzeko, honako adibidea ipini zuen. Zientzialariak harroputzak baino ez dira sarritan eta zientziak filosofiatik honako ikasgaia hartu beharko luke: aurkikun-

tzak giza eboluzioaren parekoak izaten dira, hau da, kate luze baten barruko aurrerapausoak, baina ez erraldoiak, ezta sekulakoak ere. Izan ere, gizateria-ren bilakaera nahiko mantsoa izaten da, hori du ezaugarri. «Beraz, epelkeria gutxiago arlo batzue-tan Josu» bukatu zuen esaten Itziar Oizek.

Bazkalostean, arratsaldeko bostak jo berritan *Gizon-emakume ospetsuen erretratuak eta gertakariak* zeritzon erakusketara sartu zirenean, betiko zaindaria han zegoen idi begi haiekin eta ezpainak luzatu-luzatuta, ahalik eta isilen ibil daitezela aholkatuz baino gehiago aginduz eta aginduz baino gehiago ahakar eginez. Itziar Oizek zetazko galtzerdien urratsez aretoa galtzadatu berri bazuen ere, giroa jasanezinago egin zitzaion oraingo honetan, klaustrofobikoagoa. Batetik, zelatatu eta epaitua sentitzen zen, kamera ezkutu batek bere urrats guztiak zehatz-mehatz jarraituko balitu bezala. Bestetik, pintura estilo hura ez zitzaion gustatzen, enkor-tsetatua iritzi zion, xehetasun finduegiak, zurrune-giak eta hotzegiak erdiestearren, adierazkortasuna, malgutasuna eta trazu solteak sakrifikatzen baitzi-ren. Gainera, aspalditik ikusi ez duzun pertsona erdi ezezaguna zaizun bezala, koadro haien begitarreak (pintura zirenez, nahitaez beste denbora batetik, bes-te leku batetik etorriak) zertxobait antzaldatuta naba-ritu zituen, arrazoi desberdinengatik antzaldatuta nabaritu ere. Batzuk soldadu emerituz, gotzainez, artzapezpikuz edo brokerrez jantzita, beste batzuk, berriz, hotzez dardarka, askozaz argalago, haserre (mutur luze eginda) edota besterik gabe zurrungaka. Aretoaren sarrerako *cancerbero*-a esfinge bilakatu-rik ikusi zuen. Bisitari aspertuek koadroen tamaina-ko aharrusiak egiten zituzten, baina zapiatz estalita, erdi disimulatuta, ziur aski lekuaren dotoreziak era-giten zien begiruneagatik edo gaiari buruzko haien prestakuntza leku publiko batean frogatzeagatik.

Itziar Oizek Josu Aurre ukalondoaz ukitu eta belarrira hauxe errebelatu zion: «hamabigarren koa-

droko pertsonaia nire aitona batek ezagutu zuen hilt-zaile batena da (hauxe da gordeta neukan sekretua)». Bere burua trafikatzailatzat edota bitartekaritzat zeu-kan, baina azkenean hiltzaile zela deskubritu zen. Hori entzun bezain laster, Josu Aurrek begirada ilt-zatu zuen koadroan (literalki esanda), gero sabaira begira jarri eta oihu bat jaurtikitzekotan egon zen.

–Badakizu, hiltzaile batzuk (pribilegiadun hilt-zaileak) hilean bizian bezala dabilta, eginkizun berberean. Besteak hiltzea, antza denez, ofizio ez ezik, afizio ere bilakatzen zaie. Agian, museoko zaindaria bisitariak isilarazten ditu pertsonaia horrek hilketak behar bezala burutu ditzan, xeheta-sun eta kontu guztiak ondo neurturik, hilketa arte-lan perfektu gerta dadin. Badakizu, mundu honeta-ko zein hartako arazoak antzemanekin dira sarri-tan –azaldu eta irribarre egin zuen bere mikatzean.

Josu Aurrek beste irribarre bat itzuli zion eta jarraian handik hanka egin zuten hurrengo arte. Izan ere, hurrengo astean eta arratsaldean ordu berean joan ziren, bostak jo berritan, eta ia egunero.

Tartean kapitain hiltzaileari buruz hitz egiten zuten arratsalde batean bai eta bestean ere bai.

–Zer jarrera hartuko zuen iaz gertatu zen “Ala-krana” atunketariaren aferaz, badakizu, Indiako Ozeanoan pirata somaliar batzuek bahitu zutenaz? –galdetu zuen gaizto papera jokatu nahi duen akto-re aurpegia jarriz Itziar Oizek.

–Batek daki, horrelakoa izanda, gestio diploma-tikoetan ahalik eta oztoporik gehienak jarriko lituz-ke eta pirateriarekin kolaboratuko luke, keinu kon-plizeak igorriko lizkieke, zanpatutako lurra bezala ikusitako itsasoa ere bere jabego pribatutzat joko baitzuen –gaineratu zuen aiko-maiko Josu Aurrek.

–Edo atxilo hartutako piratekin itun arraroren bat sinatuko zuen –borobildu zuen Itziar Oizek sukarre-tan ero. Zeren inori otuko ez zitzaizkion gauzarik bihurrienak antzematen zituen, epe luzera antzeman ere, eta inflexio punturik arriskutsuenak gauzatu.

Ostegun batez Itziar Oiz hiltzailearen erretratua-
ren bekoz beko jarri eta oihuka hasi zitzaion oldar
betean:

–Ezagutu zintudanetik iritzi nizun gordina.
Hemen nago, puntual-puntual (eta hau esaterakoan,
erloju bildumaz gogoratu zen, “Saski-Naski” mer-
tzeria eta opari dendan lan egin zuen garaian hartu
zuen zaletasunaz). Azkenean egin dugu elkarren
kontra tupust, ni naiz bai, hil nazazu. Begira naza-
zu aurpegira koldar hori, begi arranpalo horiekin!
Jadanik zer galdu handirik ez daukat-eta!

Neurrian gairidika itzuli zion mespretxua Itziar
Oizek, besteak beste, bero-beroan hitz eginez eta
baita ere modu bizian gogoratuz kapitain hiltzaile-
ak besteei mina egiterakoan, beti asmatu zuela erdi-
tik, edozertan barruraino arraun egiteko trebezia
erakutsi zuela eta horretaz landa, ez zuela inoiz egi-
naren lotsa aitortu. Izan ere, hiltzailearen erretratua
barruraino zeukan txertatuta Itziar Oizek.


Segidan, zerbait lasaituta, soingainekoaren pol-
sikoetatik ping-pongeko pilotak atera eta malaba-
rismo jolas txikiak egiten hasi zen berriro.

–Bai, hemen nago, ea esnatzen zaren, ea esna-
tzen zaren, ez egin ez ikusiarena edo ez entzunare-
na! Hori da falta nuen bakarra! –esan zion ping-
pongeko pilotak gero eta bizkorrago mugiaraziz
kapitain hiltzaileari.

Zaindaria izututa hurbildu zitzaien, arauak
apurtzen ari zirela gogoratuz, baina Josu Aurrek
azaldu zion hura salbuespen egoera zela, antzerki
hutsa eta antzerkiak pinturarekin omen dituen
harremanez ohartarazitakoan, zaindaria lasaitzea
lortu zuen. Josu Aurrek eta Itziar Oizek barre egin
zuten museotik ateratakoan.

Lau eskutara egindako idazkiez ez zela fidatzen
esan zion bere buruari Itziar Oizek metroko gelto-
kirantz zihoazela, gerta zitekeelako odol kutsatua
jasotzea bezalakoxea izatea aipatu bizikizun litera-
rio hori, magia beltzaren bitartez bi eskuk beste
biak hipnotizatu eta azken bi hauek lehenengo
eskuen menpean idaztea haiek nahi dutena, aho tor-
turatuek torturatzaileek entzun nahi dutena esaten
eta aitortzen duten moduan. Eta hori guztia zergatik
eta zertarako gertatzen zen? Joko ziztrin baten
bitartez eta promesa faltsuak direla tarteko mende-
kuren bat hartzeko edota bekaizkeria itsuak bultza-
tuta beste batzuen aurrean bestearen irudia salatze-
ko eta saltzeko, zikintzeko... Horrelakoak gertatzen
direla errealitatean. Bestetik, norbanako zalea
zenez, nortasuna paperean inprimatzea idazleak
bestek ezin zezakeela egin uste zuen. Baina Josu
Aurrerekin desberdina zen, konfiantza handikoa,
osaba baten modukoa gertatu zitzaiolako. Beraz,
aurrerantzean elkarrekin gelditzeko eta hitz egiteko
proposamena luzatu zion Josu Aurreri eta honek
baietz esan zuen (edukiko zuten zer solastatua, jaki-
na baietz). Horrela, sinbolikoki lau eskutara sina-
tutako itun bat (hitzezkoa, baina idatzizkoaren
bezainbesteko balioa zeukana) adostu zuten. Metro
txartela makina kanzelatzaitetik igaro eta jadanik
bestaldean zela, agurtu zuen Itziar Oizek Josu
Aurre eskumako eskua airean bortitz inarrosiz. Josu
Aurrek kapela jantzi berritan zuela, berdin erantzun
zion. Elkarrengandik urrutiratu baino lehen, ping-
pongeko pilota bat jaurtiki zion Itziar Oizek Josu
Aurreri «zuretzat, opari gisa» esanez eta Josu
Aurrek barre zabal batez jaso zuen oparia.

Axular handiaren hobian



*“Oren guziek dute gizona kolpatzen
azkenekoak du hobirat egortzen”*

Horrela irakur daiteke Sarako kanpandorrean idatzirik testuan eta tradizioak dienez, Axularrek berak idatzitakoa da. Egia izan ala ez, gauza da ez zaiola arrazoirik falta hor emandako mezuari, eta eliza inguratuz dagoen hilerria ikusita, guttiago oraindik, horko hilarri lauburudunen azpian ehortzitakoez mezuaren egitasunaren lekuko isila ematen baitigute.

Axular handiaren hilobia eliza barruan dago, aldare aldean, eta lurreko harlauzan idatzirik dagoen testuak honela ziurtatzen digu. Askotan egon naiz Sarako elizan, Axularren hilobiaren aitzinean eta beti nire barneko gogoetek XVII. mendera eraman naute, Axularren inguruko Sarako idazleen eskola famatu haren garaira. Nire begiek ezin izan dituzte garai zahar haietako lekuak, pertsonak eta

gertaerak ikusi, baina nire gogoetek bai. Eta Sarako elizako gela batean, mahai biribil baten inguruan jarririk, ikusi izan ditut Urdazubiko seme handia zen Axular, Sarako erretore ospetsua, eta bere inguruan, ezker-eskuin eserita, beste apez idazle lagunak: Joanes Etxeberri Ziburukoa, Argaiñarats, Gillentena, Haranburu, Haraneder, Hirigoiti, Materre, Pouvreau eta Voltoire. Axularrek, bere itzal handiaz eta bere ahots dotoreaz bilkura zuzentzen zuen.

Axularren itzala aipatu dudanez, kontatu egingo dizuet orain, behin, Lapurdiko apez batek honi buruz kontatu zidana. Axular handiak eta beste bi apez lagunak, Azkainekoa bata eta Senperekoa bestea, deabruaren eskolan ikasi behar zutela erabaki zuten. Deabruak baietz esan zien, erakutsiko ziela, baldin eta eskola bukatzean, hiruretako bat berarekin gelditzen bazen betiko. Hiru apezek baldintza onartu ondoren, deabruaren eskolan ikasteari ekin zioten. Osora, urtebete eta egun bat egin zuten eskola hartan, Sara eta Urdazubi artean kokaturiko leize-zulo batean alegia.

Urtea eta egun bat bete ondoren, deabrua hitz egitera joan zitzairen: *“Errandako denbora bukatu da. Tenorea da zuen hitza bete dezazuen!”*

Axular handiak baietz erantzun zion, emandako hitza betetzeko prest zeudela. Axularrek Azkaineko apezari aurretik irteteko eskatu zion, leize-zulo hartatik kanpora joateko, eta ondoren, bere atzetik Senperekoari, eta azkenik, bera.

Deabruak, jarritako baldintza oroitu nahian, galde egin zion: *Zuetako nor da orain nire?*

Eta Axularrek erantzun: *Har ezazu nire gibeletik heldu dena!*

Deabruak atzaparra luzatu eta ateratzeko zen azkena harrapatu zuen, zer harrapatu eta... Axularren itzala! Hori dela eta, handik aurrera Axular itzalik gabeko gizona izan zen.

Baina, badirudi hau ez dela Axularrek deabruarekin izandako pasadizo bakarra, nire apez lagunak

beste hau ere kontatu baitzidan. Egun batean, Axular bere herrian, hau da Nafarroako Urdazubin, meza eman ondoren, bere amarengana hurbildu eta honela esan omen zion: *Ama entzun iezadazu ontsa, gaur Aita Saindua deabruarekin ezkonduko baita!*

Egun berean, Axular itzala ebatsi zioten deabruen leize-zuloko sarreraraino hurbildu zen eta bertan infernua zen deabururik trebeena berarengana ekartzeko eskatu zuen. Prakagorri izeneko deabrua bere aurrera iritsi bezain pronto honela galde zuen: *Zenbat denbora behar duk Erromara joateko?* Eta Prakagorrik erantzun: *Oren erdia joateko, oren erdia bertan atsedena hartzeko eta beste oren erdia itzultzeko. Osora oren bat eta erdi.* Atsekabaturik Axularrek honela erantzun zion: *Hi ez haiz nik behar dudana deabrua!*

Orduan, Axularrek beste deabru bat eskatu zuen, lehena aski trebea eta lasterra ez zelakoan. Eta horrela, berehala, Supindar izeneko ekarri zioten. Galdera bera egin zion Axularrek: *Zenbat denboraz egingen duk hik Erromarako joan-jina¹?* Eta Supindarrek ihardetsi: *Bortz minutu hara, bortz minutu han atsedena hartzen, eta bortz minutu itzultzeko.* Axular piztu zen hau aditzean eta poz-pozik honela erran zion: *Hi haiz nik behar dudana.* Eta aldameanean zegoen amari begira: *Ama, ekar iezadazu nire geruza, Erromara noa eta!*

Deabruaren bizkarrera igo eta hegaka Erroma aldera abiatu zen. Erromara iritsi eta han ikusi zituzten den-denak, dotore jantzita, eta janariz eta edariz betetako mahai eder baten inguruan jarririk. Aita Sainduaren eta Satanen ezteiak ziren. Axularrek, kanpo aldetik atean jo zuen eta ireki zion andreak honela erran zion: *Otoi, erraiozu Aita Sainduari mahaia neurtzeko bere kanakaz² jakin dezagun zenbat luze eta zenbat zabal duen.*

Aita sainduak horrela egin omen zuen, eta luzea eta zabala neurtzean gurutze sainduaren seinalea egin behar izan zuenez, bertan zeuden deabru guz-

Petru de Axular
Ordiak jiradutea lachin

Petru de Axular
Ordiak 28

P. de Axular Ordiak

tiak zerraldo erori ziren, hilik. Bi minutu pasa ondoren, Axular Supindar deabruaren bizkarrera igo eta Urdazubira itzuli zen. Eta oraingoan honela erran omen zion amari: *Ama, Orhi mendian elurra ari du!* Eta amak, harriturik, honela erantzun: *Baina seme, hik ba al dakik non dagoen Orhi mendia?* Eta Axular: *Bai ama, begira iezaiozu nire geruzari.*

Ama aho bete hortz gelditu zen elurrez zipriztindutako geruza ikusi zuenean. Geruza zuri-zuria zegoen eta bere semea hain laster horren urrutitik etorrira. Eta hori Axularrek ez ziola inoiz aitortu Erromaraino joana eta itzulia zela.

Nire apez lagunak erran zidanez, Axularrek Aita Sainduaren ezteia eragotzi zuenez geroztik, apez guztiak ezkontzeko baimenik gabe gelditu dira. Hori izan omen zen Aita Sainduaren mendekua, eta nire aurrean, kontu-kontari nuen erlijiosoaren aurgian irakurrita iruditu zitzaidanez, ez omen zuen debeku hau oso gogoko.

Duela zenbait urte, Saran izan nintzen, berriro ere, eta beti egin dudan bezala, Axularren hilobira hurbildu nintzen. Eliza ilun-iluna zegoen.

Iluna eta bakartia, han ez baitzen arimarik ikusten. Edo behintzat, hori iruditu zitzaidan niri. Ohi bezala, buru belarri nintzen nire gogoetan. Konturatu gabe, eta bakarrik nengoelakoan, ozenki pentsatzen hasi nintzen:

Axular, zure hilobitik entzuten badidazu, erraidazu otoi, zure itzala berreskuratu zenuenentz? Eta nire harridurarako, ondoko ilunpeetatik ahots dotore batek erantzun: *Axularrez galde egiten baduzu, ez xerka hobi honetan, hemen datzana ez baita Sarako erretore handia!*

Hagitz aztaturik ahotsa irtendako tokirantz begiratu nuen eta ilunpeetatik irtenaz apez pottoko bat ikusi nuen. *Nor zaitut?* –galdetu nion. *Ez zaitzu axola, Jesukristo gure jaunaren zerbitzari fidel bat, bertzerik ez duzu jakin behar–* ihardetsi zidan

lapurtera zaharkitu batez. –*Eta nor da orduan hobi honetan datzana?*– galdetu nion harridura handiz. –*Herrian hilik aurkitutako eskale ezezagun bat!* –apez pottokoak erantzun. Zer pentsa ez nekiela gelditu nintzen, eta orduan apezak honela kontatu zidan.

Urdazubi eta Sara artean bada leize-zulo sakon bat eta oraingoz inork ez daki noraino iristen den. Batzuek diotenez, hortxe dago lurra eta zerua lotzen dituen zubi magiko mirengarria. Hortik igarotzen dena ez da hiltzen, beste mundura, hil gabe, bizirik iristen baita. Axular eta bere lagunek bazuten zubi honen berri eta behin bilkura batean zeudela hortik pasatzeko aukera zozketatu zuten beraien artean. Zozketan Axular izan zen irabazle. Eta horrela, ilunabar batean, Sarako eskolako apezak zubi mirengarriantz abiatu ziren. Leize-zuloan sartu, eta kriseilu baten argiaren laguntzaz zenbait oren egin ondoren, zubiraino iritsi ziren. Estua zen oso, eta hondorik gabeko amildegi baten gainean zegoen zintzilikaturik. Axular bere lagunak agurtu eta aurrera joan zen. Zubia zeharkatu ondoren bes-

te aldeko iluntasunean galdu zen. Axularrek, abiatu aurretik, hitz eman zien bere lagunei itzuliko zela, beste aldean, beste munduan, zeruan alegia, zer zegoen kontatzeko, eta liburu sainduetan kontatzen den bezain onuragarria bazen, berarekin eramateko.


Egunak igaro ziren, eta Sarako herritarrek bere erretoreaz galdezka hasi zirenez gero, herrian topatutako eskale baten hilotza hartu, Axularren arropaz jantzi, eta erretorea hilik zegoela zabaldu behar izan zuten. Sarako herriak ohore handiz hobiratu zuen aldare azpiko harlauza hartan. Urteak igaro ziren, eta Axular ez zen inoiz itzuli.

Horixe da apez bitxi hark Sarako elizan kontatu zidana. Dena aditu nuenean, ezin izan nintzen gelditu galdetu gabe: *Eta nor zara zu hori dena jakiteko?* Eta apezak erantzun: *Orduz geroztik zain dagoenetako bat.*

Eta deus gehiago erran gabe, gorputza jiratu eta elizako ilunpeetan galdu zen. Inoiz gehiago ez dut ikusi Sarako elizaren aldare aurrean topaturiko apez pottoko hura.

¹ Joan-etorria.

² Neurtzeko erabiltzen zen makila berezia.



2010eko apirilaren 24an, Iurretako herriak eta Gerediaga Elkarreak erata, omenaldia egin eutsen Karmelo Etxenagusiari, haren jaiotze-egunean.

Aurtengo Euskaltzale Eguna ospatzeko ekitaldiari “Oroimen ekitaldia” ipini eutsen izena.

Karmeloren familia, senideak, izan ziran ospakizuneko zati handienetako bat.

Herriaren izenean, alkateak ezeze, herriko dantzariak eta eleizako abesbatzak parte hartu eben.

Ganerakoan, antolatzaileen laguntzaile izan ziran Bilboko Eleizbarrutia, Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia.

Karmeloren lagun, ezagun eta iurretar askok parte hartu eben. Hona hemen han berba egin ebenen hitzaldiak.

Agur

Eguerdion hurbildu zareten jaun eta andere guztioi.

Gure herriko gizon haundi bat gogoratzeko eta oroitzeko bildu gara eguerdi honetan. Gaurko egunez, orain dela 78 urte, elizate honetako baserri batean jaio zen bera. Gazterik, ikasketak direla eta, bere jaioterria utzi eta beste toki batzuetan jarri beharra izan zuen bere habia.

Baina... herri honetako olerkari batek, Joseba Sarrionaindiak, idatzi zuen bezala ez zuen ahaztu bere sorterria

Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak
Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak ez bada abaildu eta oholetan.
Ez du niniak begia uzten ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.
Nekez uzten du gezalak itsasoa ez hare harriak basamortua.
Ez du liliak udaberria uzten ez elurak zuritasuna.
Bere sorterria nekez uzten du sustraiak han dituenak.

eta horrela izan genuen Karmelo Etxenagusia, bere sorterrian sustraiak finkatutako arbola. Nahiz eta Begoñako parrokoa izendatu 1990ean, eta nahiz eta askotan entzun “bilbotar batek nahi duen tokian jaiotzen dala” berak beti esan zuen “iurretarra naiz...” eta Iurretak munduan zehar izan duen enbaxadore nagusienetakoa izan genuen. Herri txikiko semea izatea haunditasunarekin eraman zuen.

Bihotzean eraman zituen gure dantzak eta noski kuman ikasi zuen euskera. Horren adierazgarri, bul-tzatu zituen ikastegiak, eskainitako hitzaldiak eta berriketaldiak, idatzitako liburuak... argi baitzuen gure hizkuntzaren nortasuna, gure euskeraren garrantzia. Bernat Etxeparek aldarrikatu zuen bezala euskera erabili eta zabaldu behar zela mundu guztira.

Apaiza izanik, euskeraz otoitz egitean sinistu zuen, eta ez bakarrik umetan ikasitako “aita gurea”, eliza katolikoaren bestelako errotoak ere euskeraz burutzeko lan egin zuen, fedean ere, euskerak ere bere tokia izan zezan.

Eta... Karmelo eta bere lanei buruz mintzatuko dira nire mahaikideek eta beste barik eurei uzten diet hitza, zuei, eskerrik asko etortzeagatik.

Eskerrik asko

Karmelori omenaldia

Sarrera

Karmeloren alderdi erlijiosoa agertzea eskatu deuste omenaldi honen antolatzaileek. Beste ezer baino lehenago eskerrak emon nahi deusedaz, honako eginkizunak sortu deustan pozagaitik. Gehienetan ez da alderdi hau aitutzen. Penagarria da, gehienetan sinesmena beste alderdi guztien oinarria eta bulzagilea dalako.

Karmelori dagokionetik, badira ni baino egokiagoak bere sinesmenaren barri emoteko: bere bizitzako ibilbidean luzaroago berarekin izan direnak, hain zuzen, edadez eta bokazioz berarekin eskuz esku joan eta gaur be hementxe gure artean direnak (Ander Manterola, Juanito Gallastegi, Andoni Gerrikaetxebarria edo Lontzo Zugazaga, esaterako). Niri, aspaldi bere ikasle izan ondoren eta euskera eta latin kontuetan azkenera arte beragandik ikasi ondoren, azkeneko urteetan, batez be gotzain laguntzaile izendatu ebenetik aurrera, lankide eta lagun izatea suertau jat. Eta benetan suertea izan da niretzat. Arrazoi askogaitik, baina printzipalena, hauxe: bere bizitza (fedebizitza) atzekoz aurrera ikusteko eta kontenplatzeko aukera emon deustalako. Hau da, bere fedebizitzari buruzko argirik ederrera bere azken momentuetan ikusi ahal izan dot. Estadioari emon eutsan azkeneko bueltan bere ondoan egon ahal izateak justifikatzen dau, beharbada, nire presentzia gaur hemen gai hau labur azaltzeko.

Hiru ataltxotan banatu dot esan nahi dodana, gure tradizioan hiru diralako bertute teologalak edo Jainkozkoak edo Jainkoagandikoak: sinesmena, itzaropena eta maitasuna.

Fededuna

“Bizi bagara, Jaunarentzat bizi gara; hiltzen bagara, jaunarentzat hiltzen gara; bizitzan eta heriotzan Jaunarenak gara. Hainbestetan inoren gorpuaren aurrean esatea tokau jatazan S. Pauloren berbok, orain niretzat dira eta halantxe hartu gura dodaz bihotzez eta gogo onez”. Horixe esan euskun Karmelok hitzez-hitz bere ohe ondoan gengozaioi, gaixoen oliadura edo untzinoa ospatu ondoren, hil bezperan. Gitxitan suertau jat pertsona baten azken txanpan egotea eta bere fedebizitza hain bizi eta zuzen hartzea.

Sarri askotan, heriotzak argitzen dau bizitzako ibilbidea. Karmelorenak argitu eta handitu egin eban bere aurreko ibilaldia. Txikitatik hartu eta landutako sinesmena izan zan Karmelorentzat bere poz, ardurara, lan eta dedikazioen iturria. Hau da, bere euskaltzaletasuna, bere ardura liturgiarako testuak ahalik eta txukunen jartzeko, Ebanjelioaren zerbitzari izateko asmoan eben iturburua.

Gaurko ekitaldi honen barri emoteko, egunkari baten honako izenburua agertu da asteon: “Homenaje a un campechano”. Izan be, bizi-poz a dariola eukan Karmelok. Norbere izaerak sinesteko era mar-katzen dau eta baita bestetara be: fedeak izaera aberasten dau. Aspaldiko teologo-en esaera da, graziak ez dauala natura aldatzen, baina bai jasotzen eta hobetzen. Ba, hara: graziak eta izaerak enpaste ona euken Karmelorengan.

Itxaropenez betea

Karmelo ez zan berez optimista. Errazago ikusten eban botila erdi hutsa erdi betea baino. Baina opti-mista edo pesimista izateak ez dabe zerikusi zuzenik itxaropenarekin. Izaerak dira, ez bertuteak. Zertan ikusten zan edo ikusten genduzan bere itxaropenaren arrastoak eta ezaugarriak? Hiru puntutan, labur esateko:

Lehenengo, otoitzean. Aurreko atalarekin lotuta doa hau estu eta zuzen. Otoizlaria zan Karmelo. Jesusen jarraitzaile lez, Jainkoagaz landutako hartuemonetan sendotzen eban bere itxaropena, behin bai-no sarriagotan egoerak esperantzarako bide handirik erakutsi ez arren.

Bigarren, eroapenean. Pazientzia da itxaropenaren eguneroko jantzia. Arazoak soseguz aztertzea, aldeko eta kontrako arazoak ahalik eta zehatzen lantzea: horixe zan edozein erabagi hartu aurretik berarekin emon beharreko pausua. Gotzain eta bikarioen batzarretan, sarritan tokatzen jakon bai bata-rekin edo besteekin gauzak bere puntura ekartea.

Eta hirugarren, jente apal eta behartsuekin izaten eban jarreran. Batez be nagusiekin eta gaixoe-kin aparteko karisma edo estiloa eukan. Diferentziak egitekotan, behetik gora egiten zituan. Honetan era-kusten eban, bene-benetan sinesten ebala Ebanjelioa apal, makal eta behartsuena dala lehenengo.

Maitagarria eta maitalea

Karmelo hil eta egun gitxira, honako hau komentau eban lankide batek gotzaindegian: “Era de los que humanizaba la institución”. Eta zer egiten eban horretarako? Lankideak banan banan agurtu, ain-zakotzat hartu, berba borobil batez esateko, maitatu. Maitalea zalako zan maitagarria. Eta maitatua zalako zan maitatzeko gauza.

Maitasuna eta apaltasuna bat etozan beregan. Umila zan. Berba horrek latineko “humus”-ekin dauka zerikusia. Humus ez da kea, lurrazala baino. Hau da, lurrazalean dabilena da umila, besteen maila berean dabilena, ez gorago. Egia esan, Karmelo gure maila berekoa zan. Nor sentidu da deseroso bere-gaz, pertsona inportante baten aurrean balego lez? Nork ikusi dau handikiro jantzita edo “kapisai-oz” apainduta? Ez zan ba geure modu-modukoa?

“Ez dot uste inogaz ezelango zorretan nagoanik; inork nigaz era bateko zein besteko zorrik badau, parkatuta dago”. Hau be entzun genduan bere azkenetan. Geu gengoan nolabaiteko zorretan berarekin, omenaldi hau –bere neurrikoa, herrikoa baino gehiago etxekoena ospatu arte. Baina zor hori parkatuta daukagu aurretiaz.

Aurrekoa idaztean, ez dot inor santu egin edo kanonizatu gura denporea baino lehen. Ez dot “santo subito” edo holakorik aitatu nahi. Bai, ostera, argi jarri, Karmelo gure pastakoa zala, bere balio eta bel-durrekin, bere zalantza eta bihozkadekin. Baina danen ganetik, konfiantza ikaragarria eukan Jainko maitalearengan. Eta, azken baten, horrek egiten eban eta egiten gaitu fededun.

Eskerrik asko.



KRISTINA MARDARAZ

Karmelori

On Karmelo jaio zinen
familia euskaldunean
hezi zintuena bere
Jainko onaren bidean.

Abade ta apezpiku
sinesten zendun fedean,
euskal kulturaren alde
fin-fin jarduna lanean.

Bihotzean Iurreta,
ta zu herritarrenean;
nahiz ta heriotzan aginduz

ez egon aldamenean
eskerrik asko bihotzez
herriaren izenean.

Gogoratuko zaitugu
lagunok betiraunean.

Karmelo irakasle eta maisu

Egunon jaun-andreok, ondo etorri ekitaldi honetara hurreratu zarien guztioi, eta eskerrik asko Karmelo Etxenagusia gogoratu behar dogun egun honetan hemen egoteko konbitea egitearren. Ohore handizat hartzen dot, hainbeste ikasle eta jarraitzaile on eta ospetsu eduki dituan maisu izanda, gaur haren ganean neuk berba egitea.

Alderdi bat baino gehiago erabiliko doguz gaur Karmelo gogoratuteko. Gaiok banandukeran, niri irakasle alderdia jorratutea egokitu jat. Beste askok be berba egin leikie horren ganean, hemen zagozienen artean be, bakotxak bere esperientzia kontetako, ikasle asko pasau ziran-ta haren eskoletatik. Neu be bai. Neu be Karmeloren ikasle izan nintzan Derioko Udako Euskal Ikastaroan.

Ni Derioko Ikastarora lehenengoz joan nintzanean, ikasle, hemen mahaian dagoan Nerea literatura-ko irakasle euki neban. Esango neuke ordurako Karmele Etxenagusia be irakasle ebilela, Durangoko beste taldetxu bategaz; eta orduan ez bazan, handik gitxira hasiko zan ha be, ikasle urteak egin ostean, irakasle.

Mailak gora egin ahala, literaturaren alderdi ezbardinak ikasten genduzan. Bigarren mailan literatur motak edo generoak; hirugarrenean Bizkaiko idazleak; laugarrenean Gipuzkoa eta Nafarroakoak eta bosgarrenean Iparraldeko literatura. Hori zan Derioko Udako Ikastaroko programa.

Programa hori gehien-gehien Karmelori zor jakon, eta ez programea bakarrik, baita literatura ikas-tea be. Orduan sortu ziran gau-eskola eta euskaltegietan ia inork ez eukan bere programan literaturarik, gramatikan oinarritzen eben ikasteko metodologia. Derion, ostera, literaturari denpora asko emoten jakon. Zenbat ordu egiten ete genduzan ikasle denporan egun batetik bestera lanak egiten!

Baina zergaitik halako garrantzi literaturari? Ba euskera gramatika, deklinabidea eta atzizkibidea baino gehiago zala erakusteko. Hizkuntza bat kultura baten adierazle da eta hori sorkuntzarik ederrenaren bitartez irakastea beste ezer baino garrantzitsuagoa zala uste ebelako.

Kontuan hartu behar da ikasleak, danak ez baziran gehien-gehienak bai, euskaldunak zirala, etxean euskerea normal-normal bizimodua egiteko erabilten ebenak. Hareei erduen bitartez irakasten jaken leiduten eta idazten. Baina ikasleok ikasteko gogo hartzeko, ezinbestekoa izango zan zaletasuna eragitea, gustura sentiduazotea, testuok leidutea kargea eta lorra izan beharrean goatzeko bidea izatea.

Eta Karmelo apartekoa zan horretan. Haren eskoletatik pasau diran ikasle asko eta askori gauza bera entzun izan deutset: euskera eta literaturako teoria erakustea baino gehiago egin ebala ikasleak leidute-ra zaletu. Zenbat irakaslek gurako leukie gaur be holango emaitza lortu euren eskoletan! Gatzena horixe dalakoan nago. Berak azaltzen dau *Euskerea nire bizitzan* liburuan bere metodologia zein zan Semi-narioko ikasleei euskera irakasten hasi zanean:

“Gramatika bera be guztiz baztertu barik, ur sakonagoetan sartzen hasi ginan, literatura ederraren itsaso atseginean. Astean eskola bat baino ez genduan izaten, gitxiegi gauza handirik egin ahal izateko. Ha ta guzti be, urte bakotxean lau-bost idazle hautatu eta euren lana aztertzeari ekiten geuntsan, geroago gogotsuago. Idazle bakotxaren eder-mundua zein zan, bere bihozkadak zelan azaltzen zituan, bizitzako arazoan aurrean ze jokabide eukan... Horixe zan, gitxi gorabehera, gure bidea. Eskola barruan nik haria baino ez neutsen emoten, eta gero eurak euretara, bakotxak bere gela barruan, lan txalogarriak egiten eustezen. Irakasleak eurak eta irakaslea, danok pozarren.” (80-81 or.)

Lehenengo Seminarioan hasi zan Karmelo euskerako eskolak emoten, nekez irakasten zanean eta euskerea eskolan baztertuta eta bape prestigio barik egoan sasoiari. Aurrendari izan zan horretan.

Ez eban lagun makala topau gero, Ander Manterolagaz, Derioko Ikastaroa antolatuteko. Bakotxak ardura eta zeregin diferenteak euki izan dabez, baina esango neuke beti emon izan deusiela alkarrerri babesa eta beti egon direla alkarrerri lagunduteko prest edozertarako behar zanean. Horregaitik, Anderraren ekinaren porazuz idatzi eban Karmelok *Euskerea nire bizitzan* liburua, Adolfo Arejitak esanda daukan moduan, testamentu moduko bat, euskereari jagokonean. Idatzi be, alkarrizketa itxuran, nahita berak aitortu hasikeran sasi-alkarrizketa dala, asmautako pose bat dala, berari hobeto jatorkolako. Nor dan hor kazetari edo itaungilea? Ander ipini eban interlokutore; izan be, asmautakoa izan arren, benetan izatekotan pentsetan dot gusturen beragaz egingo ebala holako bat.

Derioko Ikastaroa lehenengoz 1970ean egin zan. Ordurik eta bere zereginetan urte sabatikoa hartu eta Erromara joan arte, hutsik egin barik parte hartu eban Ikastaroan, eskolak emoten. 20 urte guztira, eta urte gehien Iparraldeko literatura irakasten.

Ikastaroko jokabidea zan ikasle izandakoak irakasle izatea gero, eta neuri be heldu jatan txandea. Literatura irakasten neban, beheko mailetan lehenengo eta gorago gero. Halako baten Karmeloren irakaslekide izatea suertau jatan. Urte batzutan jentetza itzela ibiltzen zan eskoletan eta maila bakotxeko hainbat talde egiten ziranez, irakasleak be asko behar ziran.

Dana dala, irakaslekide izan arren, Karmelo danon maisu izan zan beti. Urte baten, bosgarren mailan lau talde egozan, eta Iparraldeko literatura irakasteko lau lagun ibili ginan: Karmelo bera, Andres Urrutia, Aitor Etxebarria eta neu. Kontua zan laurok gitxi gorabehera bateratsu ibiltea: programa, gaien banaketa, erabili beharreko testuak, ikasleei eskatu beharreko idazlanak eta holakoak bateratu beharra ikusten genduan. Halan ba, Karmelok batu ginduzan, Begoñan hatan be. Bazkaria egin genduan alkarregaz eta han lotu ginduzan kontuok. Laurok ginan irakasleak, baina bera maisu.

Nik halan pentsetan dot, eta uste dot beste biek be gauza bera esango leukiela. Dana dala, Karmelok berak ez eban inoiz holangorik erakutsiko, ez eukan harrokeriarik bera beste inoren ganetik jartzeko. Horregaitik zan danon maisua; bakotxari berak ekianetik beti animoa emoten jakiten eban, ‘Zuk bai ondo’, ‘Holan, holan segidu, idatzi sarri-sarri’, ‘Leidu hau edo bestea’... Egoan lekuan egoala, entzuten jakiten eban eta bakotxari zeozer atsegina esaten. Horregaitik zan maisu, horretan egoan bere handitasuna, baina bera egundo be besteen ganetik parau barik.

Karmeloren helburua esan dogu zaletasuna sortzea zala. Horretarako testu politikak, atseginak, aituteko errezak... aukeratu eta eroaten ebazan eskolara. Leidu be gustu handiz egiten eban, berak gozatuten eban eta hori besteoi sentiduazoten jakiten eban.


Haren eskoletan kantuak be leku handia hartzen eban. Herri literaturako txatal zoragarriak hartu, leidu, aitu, eta abestuten irakasten euskun. Beragaz ikasita daukadaz nik ‘Bereterretxeren kantorea’, Etxahunen ‘Urxapal bat’, ‘Maitia nun zira’, Elisanbururen ‘Solferinoko itsua’ eta beste asko. Gela osoa kantuan ipinten ginduzan, kantua osorik buruz ikasi eta pozik... Udan bazkalosteko nagia arintzeko be izango zan hori apur bat, baina benetan probetxuzkoa zala esango neuke, alderdi afektibotik eragiten euskun, zaletasun eta espresibidade alde horretatik helduta.

Hona berak zelan azaltzen dauen bere jokabide hori:

“Eta, zure metodologian, euskal kantak be berarizko lekua euken...”

Halan da, bai. Aspalditik hartuta neukan jokabide hori. Baina ez, gero, eskolen berezko astuntasuna arintzeko bakarrik eta batez be. Nik hautatu eta erabilten nebazan euskal kantak gure herri-literaturaren zati on bat ziran, eta hauxe zan nire asmoa: gazteak kantok aztertu eta ondo ulertu egiezala, eta gero buruz ikasi. Hori holan egin ezkeru, bihar-etzi be gogoan izango ebezan, eskola barruko beste gauza asko ta asko ahaztu arren be. Bide hau, gehien baten, Udako Ikastaroan erabili neban geroago, baina aurreko urteetan baita Seminarioan be. Ni neu ez naz belarri eta boz oneko kantaria; hori holan dala, beste batzuen laguntza eskatzen neban.”

Gauza batek harritu nau beti Karmelorengan. Bera izan da ikasleen irakasle, eta irakasleen artean maisu. Baina zelan heldu zan bera horretara? Berak ez eban eskolarik hartzeko aukerarik euki, bitartekorik bez zer leidu edo euskeraz zer egoan jakiteko; eta jakinda be, eskuratu ahal izateko. Ha ta guzti be, gaur egun daukaguzan bitarteko guztiak eukita baino be maila hobea eukan berak. Zer zan ba haren doaia? Berezkoa. Berezko sena, berezko sensibilitadea, izakerea halangoxea. Kapaz zan testuetan edertasuna ikusteko; eta ez ikusteko bakarrik, besteei erakusteko be. Positiboa zan ganera, animoa emoteko, aurrera egiteko, bultzatuteko ingurukoak, apurka-apurka gauza handiak egin daitekezala-ta. Eta



berezkoa eban apaltasuna; bera maisu izan, baina zeinda maila bereko kide bat balitz moduan. Pertsona gitxi dauke gaitasun hori.

Niri suertau jatan *Euskerea nire bizitzan* liburua atondutea. Orduan barriro euki neban beragaz hartu-emon, erabagi egin behar zan liburuan zer sartu eta zer ez, argazkiak lortu, testua egokitu eta erizpideak finkatu. Orduan be eskuak libre itxi eustazan, nahiz ta berak kriterio argia euki. Bere lana apala zala-ta, bera ez zala ur handietan ibiltekoa-ta, matraka-zalea bez ta... ez egoan arazorik haregaz behar egiteko. Beti arpegikera onagaz hartzen ninduan, eskuartean ardura larriak erabili arren.


Ostantzeko egoeratan be suertau izan gara. Orain dala ez dakit zenbat urte, baina asko, Aste Santuko oporrak aprobetxauta, egun batzuk pasetan joan nintzan Nafarroara. Orreaga eta Ibañeta inguruetan nenbilela, mendirik mendi, autorik apenas ebilen kamino baten, han Bilboko matrikulako kotxe bi, bata gorantza bestea beherantza. Bidea hain zan estua, pasau ahal izateko astiro-astiro ginoazan, Karmelo auto baten gidari, eta neu bestean. Berbaz geratu ginan autoak bide erdian itxita. Harrezkero beti gogoraturen eustan han zelan topau ginan, nik baino zehatzago jakiten eban non izan zan be.

Beste behin, gotzain arduretan ebilela, gure herrira etorri zan parrokiara bisita pastoralala egiten. Orduan be txeratsu ibili zan, jenteartean danak agurtuten eta danari zeozer atsegina esaten. Ezagunak be zenbat gero, zetatik edo hatatik!

Nik nire kasuan be uste dot eragin apurren bat euki ebala bera irakasle eukiteak, gerora literaturaren zurkuluetatik ibilteko. Eskertu besterik ezin deusat egin pertsona moduan, euskalzale moduan eta irakasle moduan irakatsi deustana.

Eta zuei be eskertzen deusuet hemen egoteko aukera emotea eta niri entzuten adi-adi egon izana.

Eskerrik asko.



Etxenagusiaren euskerazko idatziak

Jaun-andreak, agur:

Hirukotxa da ni Iurretako herrian Karmelo Etxenagusiaren omenez zuen aurrean berbetan egotearen poza eta ohorea. Lehenengo, Iurretan dalako, eta iurretar izan eta sentidu izan dalako bere bizi guztian Don Karmelo, auzoz eta baserriz jositako herri apal bateko seme, nahiz eta bere bizirik gehianean Durangoko uriagaz bat eginda ezagutu izan bere herria. Bigarren, omenezko ekitaldi honetan mahaikide izateko zoria dodalako, neure irakasle eta maisu izan dodanaren gomutaz. Eta hirugarren, Euskaltzaindiaren izenean natorrelako bertora.

Omenduaren lau abe sendoren ordezeko edo ordezkotzakakoak batu gaitue gaur hemen: Iurreta eta Durangoaldearenak –Gerediaga eta familiakoa–; gotzain ezagutu eban Eleizbarrutiarena; euskera kon-tuetan loturarik estuena izan eban Derioko Ikastaroa eta Labayru Ikastegiarena, eta azkenik Euskaltzaindiarena, beronen urgazle eta ohorezko kide izan baitzan gure Karmelo; eta, esan daidan bide batez, ondo baino hobeto bete zituala honen Jagon Sailaren helburuei jagokezan betebeharrak, euskera irakasle eta material sortzaile izan zan aldetik.

Karmelo Etxenagusiaren euskerazko idatziez eta argitalpenez berba batzuk esatea izentau jat niri, eta horri helduko deusat laburzurrean. Baina horretara jo aurretik, Don Karmeloren ezaguera zelan egin neban nik –eta gela bereko ikaskide Seminarioan izan ginanok– esatea zilegi bekit. Derioko Seminario-Ikastetxean, bostgarren kurtsoa –orduko Erretorikoetako lehenengoa– egitera ginoiazala, aurreko kurtso bietan legetxe euskaldunei euskerazko eskolak opatu jakuzan –ez dot uste euskerarik ez ekienek aukera hori izan ebenik–; 1967ko udagoiengan izango zan hori, oker ez banabil.

Aurreko urtean eta urte bi lehenago be hanean ikasita gengan, oinarritzat Xabier Peña-ren metodoa gerabilela: gramatika altsi bat, lantzean berba apur batzuen esangurak buruz ikasi, idazketa batzuk egin eta noiz edo noiz lantzean literatura testu hautatu batzuk entzun edo irakurri. Akorduan daukat ondino, Don Karmeloren aurreko kurtsoan, Jose Mari Ituarte ondarrutarra izan genduala irakasle eta Domingo Agirrereren *Kresala*-ko *Kitolisen* kapitulu irakurri euskula, eta Ikomestxu seme bardingoaren heriotzea, uretan itota, iragarri euskunean kapitulu amaieran, negar-anguluak dariola edo negarrak urten beharrean geratu ginela laugarren kurtsoko ikasle tolesbageok.

Hasikin horren hurrengo kurtsoan ezagutu genduan ba Don Karmelo irakaslea. Gogoan dot euskerazko eskolok arratsalde izaten zirala, bazkalosteko atsedanaren ondoren; loak hartzeko ordu hobe berez, hizkuntza menderatx baten marapiloak askatzeko baino. Halanda be, batzuetan betazalai eutsi

ezinik bazan be, adi eta zuhur ekiten geuntsan euskera ikasteari Don Karmeloren akularitzapean. Gure irakasle samurrak beharbada igarrita eukiko eutsan bazkalosteko aldatsgora pike horri, eta berez be ederzalea eta berbaldi atseginekoa izan bera, halanda ze dala ez dot gomutan haren eskola-jardunak gogaikarri egin jakuzanik.

Bi-hiru urte lehenago ziklostil sistemaz ateratako liburu txukun bat banatu euskun guztioi –asko ez genduan ordainduko kontizu–, eta haxe izan genduan ikasturte horretako gure ikasliburu nagusia. Kartulina berde argia eban azala, luze-zabala D-4 neurrikoa. Bizkaierazko literatura-testu hautatuen antologia zan. Barruko azalean etorren liburuaren fitxa: “Carmelo Echenagusia Uribe Pbro. *Euskal-idazle-en Lorategia (Bizkaieraz - itzlaud).* Antologia de Prosistas Vizcainos. Seminario de Derio. 1965”.

Lorategia eritxan antologia horri, ostean etorriko ziranei legetxe. Orduko seminarioan latin edo grekoa ikasi eta itzultzeko be horretarikoxe antologiak erabilten ziran, eta *florilegio* eritxen honeei: *Florilegio de la lengua latina* edo antzeko izenburuak ebezan. Latineko *florilegio* horreek maila diferentetakoak ohi ziran: errazenetik gatxagorakoak. Baina helburu berbera eben: hizkuntza horretako lorarik ederrenak ikasleari eskeintzea. Don Karmelok be antzera jokatu eban bere *lorategi* horregaz: euskerazko –kasu honetan bizkaierazko, ikasleok bizkaieradunak ginan, hatan be, eta–, pitxi-lorarik politenak hor txortaturik eskeini gura euskuzan, baina maila errazekoak, ulergatx izan eitekezanak albora itxita. Horregaitik emongo eutsan behintasuna hitzlauzkoari, poesia bazter itxiaz, eta kontaerari, narrazio laburrari, beste genero batzuei barik. Lorategiko testu hautuok erraz ulertzekoak izatea ezinbestekotzat eukan. Euskera ikaste kontuan autodidakta izan genduan Don Karmelo, eta neke apartekoa ipinita menderatu behar izan zituan Filosofia-Teologia ikasle urteetan, eskura heldu jakozan euskera-liburu batzuk. Bere buruan ikasi eban, Zamarriparen irakur liburuak errazago aitzen dirala Orixeren *Euskaldunak* edo *Meza-bezperak* baino. Ondo jabetuta egoan, bera ikasle izan zan denporan legetxe, orduko euskera-ikasle bardingo samurberaok be, berbaz jarduteko mihinpekorik ez bageunkan be, gramatikaz eta lexikoz erren genbiltzala. Euskerazko letretan hasibari ginanontzat ez eban testu gatxegirik gura; honeek barruan euki eikeen ederra guk gozatzeari behinagokoa eritxan.

Lorategi horren bidez murgildu ginduzan Don Karmelok euskeran eta euskal literaturan: prosazko testu leunen bidez. Pozik irakurri genduzan Kirikiño mañariarraren *Abarrak* bietako ipuinak. Harako *Zerutar bat*, *Atxuriko millagra*, *Gaztela-mutillak* eta beste batzuk. Ebaristo Bustintzari berebiziko jerea egiten eutsan Iurretako semeak. Ipuin edo pasadizu barre-eragikarriak ziran mañariarrarenak, umorez beteak, eta herri-herriko euskera bizi eta gatzez betearen jabe, bestetik; ezin nei seguru esan baina, biak Durangoaldeko seme izateak be ez ete eban zerikusi ezkuturen bat izan Kirikiñoganako begikotasun horretan? Domingo Agirreren *Kresala*-tik harako *Arrain saltzalleak*, *Tramana ta Brix*-en eztabaida gatz-ozpinezkoak. Felix Bilbao frantziskotar gaztearen *Ipuin-barreka* be alagalako bilduma izan eban, eleji ugarikoa, *Don Fakundoren erbia*, *Ezkontza-hauste bat* eta antzeko ipuinak guri irakasteko. Zamarriparen idatzietatik *Iketzako abade zarra*; Juan San Martin-en *Zirikadak* liburutik *Burua zalakuan giltza*; Errose Bustintzaren *Lamiña dantzaria*, eta atzerago joanda, Mogelen *Peru Abarka*-gaz be jo genduan, eta berba-jardunotako hitzlauzko ipuin-alegia bakarra hautu euskun: *Azeria ta Txarria*-rena.

Bizkaierazko lorategi horrek berehalakoan euki eban segida, euskal lorategiaren bigarren maila. Derioko Seminarioko ikasleok euskeran aurreratu ahala hurrengo urratsa emon behar zan. Ikasleok ez

ziran bakarrik gu lango batxiler mailetako bizarra oraindino mehatz agiri genduanok. Goi mailetan Teologia eta Filosofia ikasten ziharduen ikasle ia gizon eginak be baziran, euretariko batzuk gaur idazle eza-gun bihurtu diranak gainera. Eta norbere hurreko oilalurretik urrunagoko mugetarantz jo behar zanez, Don Karmelok gipuzkerazko idazleen antologia egiteari emon eutsan, eta hara hor 1967an *Euskal Idazleen Lorategia [itz. lauz]. II. Gipuzkeraz* non ateraten deuskun. Aurrekoaren ziklostil sistema berean, baina txukunago eta borobilduago. Honek bere kartulinazko azala gorriskea eban, more argi antzekoa. Eta hurrengo kurtsoan berean ezagutu genduzan guk lorategi honen bidez gipuzkera literarioaren idazle hautuenen pitxi lirainak. Gorago esan dan modura, alderdi biri erreparatzen eutsen gure irakasleak antologiarako testuak batu orduan: balio literarioari, edertasun eta kalitate literarioari, jakina; baina baita gozagarri, erakargarri eta ulergarri izateari be: atsegin emonez irakastearen lema zaharra eban gogotan sendo erroturik. Eta hurrengo ikasturteko gure euskera eskolak be arratsaldeko bazkal osteko ordu neketsuetan izanagaitik, han igaro ziran gure begi aurretik Manuel Larramendiren barriketaldi umoretsuak, Gipuzkoako handiki eta jauntxo erdera zaleei zuzenduriko zirikadak, Mayans jakintsuari eginiko ziztadak, eta euskera erabiltearen alde gipuzkoar zalduntxoei eginiko aupadak. Han irakurri genduzan lehenengoz Kardaberazek *Euskeraren berri onak* saioko txatal gogoangarri bat: *Andre donostiarraren erretorika*, hain zuzen. Han sufridu genduan Sebastian Mendibururen nafar kutsuko euskarako berba eta esakerak –guretzat Kardaberazek baino urrunagoko eta arrotzago ziranak– ikasi beharrez. Gipuzkerazko beste klasiko ezagunenak (Gerriko, Juan Bautista Agirre, Juan Antonio Mogel bera), eta XIX. mendean barrena idatzi daben beste askoren lanak irakurri eta aztertu genduzan: Bizenta Mogelen *Ipui Onak* bildumako bat edo beste be ez ditugu ahaztuta. Eta buruan josita oraindino Juan Ignazio Iztueta-aren *Gipuzkoako Kondaira*-tik atera zituan pasadizu zelebre batzuk: *Zezen-joko bat Amezketako plazan*, berbarako. Paskual Iturriaga, Ignazio Lardizabalen Bibliako pasarteak eta batez be Pedro Migel Urruzunoren ipuin barre-eragileak. Gipuzkera modernoko eta batasun bidean idazten eben autore mamint-suen lanetara be heldu ginan: Domingo Agirre (*Garoa: Ana Joseparen diru-zaletasuna* eta *Malentxoren azken agurra* atalak), Orixe (*Santa Kruz apaiza: Aramaiotik igesi*), Lizardi, Salvatore Mitxelena, Agustín Anabitarte (*Aprikako basamortuan*), Justo Mokoroa (*Erraondoko azken danbolinteroa*), Zaitegi, Koldo Mitxelena (*Asaba zaharren baratza*), Luis Villasante eta beste batzuk. Berba batez, gipuzkera lorategiaren bidez euskerazko mundu artean ezezaguna azaldu zan gure aurrean. Handik gitxira aterako eban, baina oraingoan inprimategian eta gizarteari begira –ez arteragoko biak lez, barrurako– *Euskal Idazleen Lorategia (itz. lauz)* (Donostia, 1969).

Egiari zor jakon guztia esateko, gramatika be landu genduan Don Karmeloz, ohi eban lez apunte erara atondu zituan material batzuen bidez. Sebero Altuberen *Erderismos* liburua oinarritzat hartuta euskal sintaxi-arauen laburpen bat egin euskun, eta haxe erabili genduan guk, orduan eta geroago be, gramatika-gida lez.

Lorategietara jo daigun atzera. Karmelok urrezko arau bat gorde eban bere lorategiotan, geroagoko baten izan ezik: hildako idazleak bakarrik sartzea. Derioko Udako Euskal Ikastarorako hainbat geroago atondu ebana da salbuespena: *Euskal Idazleak Bizkaieraz* (1980). Bilduma honetako testu-antologia Don Karmelorena da oso-osoan, baina badau atzean testu-azterketa eta ariketa eraskin bat, Jon Kortazar eta Aitor Etxebarria, orduko irakasle gazteen artean ondu ebena. Baina antologia horretan zeharka-

tu eban Rubicon ibaia gure literatura-epaileak. Laugarren zati bat eskeini eutsan hor XX. mendeko literaturari, *Gerraostekoak* izenburuaz. Eta horretatik nahigaberen bat edo beste be jasan behar izan eban. Izan be, hildakoek nekez erakutsi leikie kezarik, lorategian sartu nahi ez, baina bizi diranak erraz; eta halako lorategi baten neurri estuetan ezin kabidu guztiak, eta sartu diranak be ez neurri berberaz; eta idazle guztiak kontentuz geratzea erraza ezin izan, ezta Don Karmelorentzako be.

Euskal Idazleak Bizkaieraz bilduma, euskerearen ofizialtasunaren eta euskal ikasle gorakada bizkorren aldikoa da. Eta Derioko Ikastaroan ezeze, beste ikastetxe askotan be erabili izan zan. Hango txatalak goi ikastetxeetan be lantzen ziran. Batez be orduantxe lehentxoago Derion lekutu zan “Begoñako Andra Mari” Irakasle Eskolan; bizkai euskerea literatura bidez lantzeko, liburu honexetako testuak erabili genduzan luzaroan. Mesede handia egin eutsan antologia honek euskera eta literaturaren irakas-kuntzari gure artean, gizartean urak zurrumbilotsu ebilzan sasoiari, gainera. Eta euskereari mesedea, Karmeloren betiko senear: hizkuntza lantzeko biderik emonkorrena, literatura dalako horretan.

Aipu labur bat Don Karmeloren osteratxoagoko beste antologia bati: *Iparraldeko Euskal Idazleak* (1981). Derioko Ikastaroan gorengo mailan Iparraldeko literatura irakasten zan, eta urtero kartulina-karpetan baturiko ziklostil-orriakaz atzera eta aurrera ez ibilteko, aurreko lorategien bidetik, antologia eder bat ondu eban; Ikastaroaz ate, batez be Iparraldean, arrakasta polita izango ebana; hainbeste ze, handik lasterrera argitaraldi barria egin behar izan eban, eta bigarren hau be gehiturik eta orrazturik atera eban.

Etxenagusiak bere burua zorretan ikusten eban Iparraldeaz: bizkaiera-gipuzkerazkoak eginak zituan, baina mugaz bestaldekorik ez. Artean hartuemon handia eukia zan hango eleizgizon euskalzale batzukaz: Piarres Andiazabalegaz esaterako. Arteragoko urteetatik eraturik egoan eleizbarruti guztien artean liturgia euskeraz finkatu eta bateratzeko sortu zan Liturgia Batzordea, eta haretako kide ziran Bizkaitik Don Karmelo, Lino Akesolo eta Mikel Zarate.

Bai aurreko *Bizkaierazko* eta oraingo *Iparraldeko* idazleen antologia biotan hitz neurtuari be leku egin eutsen, Derioko Ikastaroaren egitarauan poesia be lantzen zalako, jakina! Baina Iparraldekoari buruz baegoan arrazoi sakonagorik. Hitz neurtuzko bertso askok euren doinua eben, eta euren soinuan kantetan ziran eskolan, ikasi eta azertuaz gainera. Iparraldeko literatura tradizioaren zati handi bat, gainera, doinuari atxikia egoan. Eta hizkera bera bizkaitarrontzat zailagoa izanik, zein modu gozatsua-gorik haretara hurbiltzeko, kantua baino?

Lorategi edo antologia guztiotan bada egitura bardintsu bat. Gure irakasleak, hauturiko testuen egi-leari buruz halako sarreratxo laburra eskaini izan deutso, laburra baina trinkoa; eta horrezaz ostean, testu hautatu bakotxari egokozan lexiko-ohar argigarriak, eta antologia bakotxari bere aurkibide osagarriak: egileka (idazleen benetako izenak eta goitizenak be zerrendan dirala), gai edo arloka –batzuetan idazleak eskualdeka be sailkaturik–, eta liburu guzti-guztion atzenezan *berbarik berezienen* glosario orokorra. Lorategiginen horren luzaro jardun ondoren, akabuan Don Karmelok berak esan ohi eban: nik pentsetan dot, nik euskerearen alde egin dodan ahalegin nagusia lorategiak egitea izan dala. Hori dala nire espezialidadea euskal literaturan.

Gogoeta horretan apur bat sakonago jota, gogoratu daidan, Etxenagusia lege kanonikoetan ikasia eta aditua zan aldetik, euskal literaturaren arloan be antzeko epaile lana egin ebala. Don Karmelo izan dabe gure euskal idazleek izan daben notario aitatuatariko bat, eta trebeenetarikoa bere laburrean. Lorategie-

tako idazle guztiei eta bakotxari eskaini izan deusan sarreratxoan garandu dau bere ebatzia: nor zan, bizitzako zertzeladaren bat noizik behin, zer idatzi eban, eta batez be ze epai edo eretxi merezidu eban berorren lanak. Epaia emoterakoan oso aintzat eta berbaz berba jasoko zituan euskal literaturaren kritiko zorrotzenen eretxiak. Mitxelenarenak sarri, Lafitte, Villasante, Mikel Zarate adiskidearenak edo beste batzuenak bestetan. Baina apaltasunik handienaz isurtzen zituan bere-bere eretxiak dira sarri balioetsuenak, gure idazleak epaitu orduan: labur, baina neurritz, hotz eta zorrotz finkatzen ditu bere epaiak.

Euskerea nire bizitzan (2003) dogu Don Karmeloren azken liburua. Hau be bilduma da berez, baina ez besteren izkribuen bilduma, bere-bereena baino. Bateko non edo han eginiko berbaldia, euskal aldizkariren baten argitaraturiko alkarrizketa edo kazeta-lana, eleiz ospakizunen baterako idatzitako sermoia eta osterantzeko beste idatzi labur batzuen bilduma. Baina askotariko txatalen txorta horri, Ander Manteolaren aholkuz, sarrera luze bat gehitu eutsan, *Euskerea nire bizitzan* izenburua daroana, eta liburuari sarrera egiten deusana: testamentu modura itxi deuskun biografia moduko kapitulu luze hori, euskera berez-berezko zoragarrian idatzia, eta idazlearen jaiotzako hizkuntzaren inguruko ibilbide eta sentierak beste inon baino gardenago garantzen deuskuzana. Hauze da, zinez, Don Karmeloren euskera munduaren testamentua. Eta horren ondo jakitun zan bera. Euskal gotzain batek euskeraz idatzitako liburua zanaren kontzientzia osoa eukan gure omenduak, beste eleizgizon euskaldunen erakusgarri be izan eitekena. Berau irakurtea gomendatuko neuskio zuzen, gure Karmelo idazle legez, euskaldun legez eta gizon legez ezagutu gura dauen edonori.

Bilduma horretako alderdirik baliotsuena, literaturaren aldetik, idazleen omenez egindako berbaldi edo idatzietan dagoke. Batez be Bizkaikoei, eta beragaz hartuemona euki ebenei hartu eutsen ardurea: Mikel Zarate, bere irakasle-lagun Seminarioan eta Ikastaroan urte luzeetan izan zanari, Eusebio Erkiaga sortzaile handiari, Abeletxeri, Lino Akesolori, Pedro Puxanari, Bibliaren itzulpenak dirala-ta aparteko estimua eutsan Jaime Kerexetari.

Aipua merezi dau bilduma horren barruan datorren literatura-historia laburrak be, Mikel Zaratek bere *Bizkaiko Euskal Idazleak* idatzi baino lehenagokoa eta honen hazia be izango zana: *Bizkaierazko Eleriti (literaturaren) Atze edo edesti laburra*. Euskal hizkuntzaren eta literaturaren gaineko sarrera orokorra, eta herri-literatura baino ez zituan landu. Hortik gorakoa eginkizun gelditu zan. Don Karmelok bere eskoletarako, eskola-apunte gisa, atondu eban literatura-historitxo hau, ikasleentzako beste material egokirik eskura ez egoan denporan, hor 1967 inguruan.

Asmo berberaz ondu zituan gorago aitatu doguzan lorategi eta antologia guztiak be, eta bardin argitaratu barik geratu diran beste apunte-txorta batzuk. Halan, esate baterako, 1980-81 ikasturtean, gudu aurre eta gudu osteko literaturaren gainean eskeini euskun ikastaro monografikoa: euskal poeta eta saio-gile modernoen apunte bikainak borobildu euskuzan Don Karmelok, ordurako euskera zaletu fin ginan ikasleontzako: Lizardi, Lauaxeta, Salbatore Mitxelena, Orixe, Gabriel Aresti, Joxe Azurmendi, Luis Mitxelena, Xabier Lete, Bitoriano Gandiaga eta beste idazle puntako batzuen gainekoak.


Baina eskoletarako ezeze, eskolen atxakiaz be idatzi zitala gehituko neuke. Liburu edo liburuska baten taiua eta egitura betea dabe eskolarako asmoz onduriko idatziok, baina literaturaren irakaskuntzak orduko urteotan gure artean ezagutu eban interes laburraren faltaz beharbada, ez eutsan eretxi argitara emotea.

Gogoeta gaintiko bat: argitaratu ondoren beste jagitasun bat hartzen dabe goian gogoratu doguzan idatzi honeek guztiok, eta *Euskerea nire bizitzan* testamentu-liburua dogu dinogunaren adigarri agiririna.

Eta amaitzeko. Arantzatxoa itxi deusku, dana dala, Don Karmelok bere heriotza ustebako goizegi-koaz. Gotzain-ardurak itxi eta batera, gogotsu agertu zan euskeraz idazten eta euskeraren gainean aztertzen ekiteko, baina patuak ez eutsan horretarako astirik laga; handik gitxira gaixotu jakun eta idazte lanetarako ezinean gertatu.

“Eginak egin bakoari itxaron” dino gure esakera batek, eta Etxenagusiak, irakatsi ahala onduriko edukiak idatziz itxi deuskuzanez, hor dira berak idatzia bere oinordeko eta gure gozamenerako.

Esan dot. Eskerrik asko.



Euskaltzale eguna 2010

Karmelo Etxenagusiaro oroimen ekitaldia

Eguerdion danori:

1932. urtean apirilaren 24an jaio zan gure tio Karmelo Ertximingoko (Ertzilbengoako) baserrian. Bere ama be, gure amama Carmen, egun berekoa zan, eta horregaitik gaurko eguna ospakizun eguna izan da betidanik gure etxean. Guk geuk gogoan ditugu joan zirenak eta gaurko ekitaldi honi esker, arrazoi bat gehiago izango dogu, apirilaren 24a gogoratzeko.

Lehenengo eta behin, gure eskerrik beroenak oroimen ekitaldi honen antolaketan ardura eta lana hartu dozuen guztioi: Gerediagari eta Iurretako udalari, Euskaltzaindiari, Labayru Ikastegiari, Bilboko Gozaitegiari, Iurretako Kofradiei, dantza taldeari, korukoei. Aitortu behar deusuegu, ekitaldi honen barri emon euskuenean, etxeok benetan ikututa gelditu ginela, eta guretzat gaur hemen esan direnak entzutea, oso pozgarria izan dala, eta aldi berean, gogortxua be bai, bera, gure tio, ez dagoelako jada, gure artean.

Niri, familiaren arloa jorrazteko eskatu deuste, ea zelan urtetan daben.

Karmelo baserriar familia baten jaio zan eta sustrai horreek ez ebazan ez ezkutau ez galdu. Etxera etorten zanean, askotan, barrura sartu baino lehen, ortura joaten zan begiradatxo bat botatzera edo ikorra, iko batzuk jaten. Baserriar munduko usadio asko gorde ebazan, eta, giro horretako jaietan be gogotsu hartzen eban parte, San Blasetan edo Urkiolan adibidez.

Bera beti sentidu izan zan Iurretako semea, eta bertakoen artean gozatu egiten eban. Ertzimingo, Arandia, Gazteñetza, Bizko, Goizko, Ertzile, Etxetxu, Ertzilurruti, Tabernabarri, Arriandi, Uribeko Santa Maña, Azkorra, Goiuria, Bakixa, Oromiño, Orozketa, San Miguel eliza eta plaza inguruak, Montoie, eta beste hainbat eta hainbat leku zein gogoko zituan, danok dakizue. Etxera etorten zanean, nekez bueltauko zan Bilbora, auzokoren bati edo familiakoren bati bisitatxu bat egin barik; familia handi batekoa zan, osaba-izeko eta lehengusu-lehengusina asko ziran eta dira (gara) eta danekin hartuemon handia eukan.

Etxera, familiaz gozatzera eta bake bila etorten zan ahal eban guztietan. Horregaitik sekula ez eusku- zuzan aitatu be egin, bere ardurak eta burukominak. Umeekin egotea beti gustau jakon eta gu beragaz umetan eta nagusitan be, eskursino asko egindakoak gara. Etxekoekin ardurak ez, baina bere zaletasun- nak betetzen bai ahalegintzen zala. Guk beti jakin izan dogu zer ekarriko euskuen Bilboko erregeak: ipuin, liburu eta diskoak. Bardin urtebetetze edo beste ospakizun batzuetan, eta azkenerarte egin eban hori. Guk gustora irakurri eta entzuten genduzan berak ekarritakoak eta gaur da eguna, gordeta dogu- zala. Bere Bilboko etxe zaharrean be, gu joaten ginenerako prest eukiten ebazan ipuin eta entziklopedia koloretsuak. Berari eta gure gurasoei esker ikasi genduan euskeraz irakurten umetan, Kili-Kili koadernotxoekin eta.

Baina tiok bazituan beste zaletasun batzuk be: lagunak, mendia, itsasoa, biajeak, jaietako bazkari eta bazkari ostekoak, futbola, txirrindularitza, pelota, ingurukoek erretatuak ateratea... eta hizkuntzak ikas- tea. Bera ingelesa ikasten serio hasi zanean, horren zaletasuna be gudan pizten ahalegindu zan eta berak ikastaroetan edo Ingalaterran pasau ebazan estutasunak umorez kontatzen euskuzan, eta bide batez, ingeleseko liburu, aldizkari eta bideoak trukutzen genduzan. Bera irakasle moduan apur bat ezagutu gen- duan. Gudan euskera eta euskal kultura suspertzen ahalegindu zan, beti modu onez, sekula esan barik “hau egin behar dozue” edo “hau ez dozue irakurri behar”. Bere liburutegia be zabalik geunkan beti. Bere etxeko euskerea ez eban sekula galdu, gero osotu eban sustraia zala esaten euskun eta aholku ber- dina emoten euskun. Beretzat euskeraz berba egitea guztiz garrantzitsua zan, eta euskeraz irakurtea eta idaztea be bai.

Etxean oso langilea zala bagenkian, sarri ikusten genduan bere Olivetian idazten, eta etxea errebis- taz, liburuz eta paperez gainezka eukan, baina guk nagusi egin arte sekula ez dogu jakin izan zeri eki- ten utsan, berak ez ebalako holakorik kontetan. Gero, bere lagunek esanda, edo irakurritz jakin izan doguz gauzak eta sorpresak izan ditugu sarritxo.

Biajei buruz berba egitea bai gustetan jakon, eta beretzat munduan zehar euskaldunak topatzea, Ekuadorren edo Ameriketako Euskal Jaietan, zein esperientzia zoragarriak izan ziren kontatzen euskun.

Kristau sinismen sakonekoa zala badakizue. Zenbat ezkontza edo hileta, familia, lagun eta auzokoe- nak, ospatu ebazan! Eta guri errespetoa, pertsoneri, ideiei eta sinismen ezberdinei agertu euskun beti. Ez zan eztabaidazalea, brometan ez bazan, eta bere azgazki guztietan agertzen eban irribarraz ibili zan bizitzan zehar.

Eta akabetako, bere etxekoekin izenean, gure eskerrik beroenak.

Karmelo Etxenagusia Uribe eta Durangaldea

Karmelo Etxenagusia Uribe Iurretan jaio zan 1932ko apirilaren 24an, Arandia auzoko Ertzilbengoa baserrian. Gurasoak be iurretarrak ziran, Pedro Santos eta Carmen.

Lehenengo ikasketak Herriko Plazako eskolan egin ebazan. Ume zala oraindik, 11 urterekin, Seminarioko bidea hartu eban; Gordexolan hasi ebazan lehenengo mailako ikasketak. Umetan itxi baezan be bere jaioterria, ez eban Iurreta eta iurretarrekin lotura inoiz galdu.

Bere bizitzako unerik garrantzitsuenak Iurretan izan dira. 1955ean abade egin zan Begoñako Basilikan baina meza barria Iurretan emon eban. Bertan, Don Domingo Zuluagak egin eutsan meza barriko hitzaldia. Bera, Iurretako abade izandakoa, izan ei zan abadetzarako zaletu eta bideratu ebana. Abadeztako urrezko ezteguak be, Iurretan ospatu ebazan 2005ean. Jubilau ondoren, Durangaldera hurreratu zan, Berrizko Mesedeetako mojen komentura, denpora gitxi, oso gitxi izan arren.

Karmelok Iurretan eta Durangaldean gozatu eta atsedena hartzen eban eta indarbarritu egiten zan.

Urkiolazalea zan. Leku baketsua, arnasbarrizkeko tokia... aurkitzen eban bertan. Paisaiatz, mendiez eta giroaz batera inguruko baserritarrekin, artzainekin berba egitea gustukoa eban. Sarri joaten zan Urkiolara. Joseba Lejarzak, Urkiolako Santutegiko parroko ohiak azaldu euskunez, Karmelok berak esanda lotura handia izan dau beti txikitatik Urkiolarekin, bere amak, titiko umea zala, eroan ei eban uztaileko bigarren domekan (“Umeen bedeinkazino egunean”) Urkiolara.

Durangaldeaz gozatzeko, baita laguntzeko be prest egoten zan beti. San Migel parrokiako abadeak, abuztuan, atsedenaldea hartzen ebanean han egoten zan Karmelo ordezkoa egiteko. Modu horretan ez eban lotura eteten ez herriagaz ezta bere parrokiagaz.

Erraza zan beragaz berba egitea. Iurretar lagun koadrila, gazte, adin eta mota guztietako pertsonekin eukan hartu-emona.

Eleizgizona izateaz gain, euskal kulturarekin izan dauan lotura gauza jakina da. Berba gitxitan Durangaldean euskal kultureagaz ezagutzen doguzan zertzelada batzuk kontauko dodaz.

¹ Derioko Ikastaroan 1974an *Autobusa* izenagaz egindako aldizkaritxoan.

Honako oharra dauka: “Nik orduan, Ikastaroan, Gipuzkerazko literatura emoten neban, eta horregaitik artikulutxo hau gipuzkeraz egiten ahalegindu nintzan.”

Euskal kultura tradizionala bizi egin eban etxean Karmelok txikitatik (herri kantuak, ipuinak, bertsoak...) eta zabaldu be egin eban. *Euskerea nire bizitzan* (Labayru Ikastegia, Bilbo, 115-116. orr.) berak idatzitako liburuan Gabonetan Abendu kantetan etxerik etxe ibiltzen ziran gazte taldeak eta urtebarriko kantuak gogoratzen dauz.

Eta halantxe dino “Neure umetako hiru herri kantu” izeneko atalean¹:

“herri xehea ekarri nahi dizuet begien aurrera, gure aspaldiko herri apal eta xume hau, hainbeste gauza ederren sortzaile eta gordairu degun herri maitagarria. Norberaren herria baino maitagarriagorik, zein baina? Beraz, neure herriko hiru herri-kanta baino ez ditut hemen gogoraziko, guk haurtzaroan horren maiz kantatzen genituen kanta zaharrak, herriko eskola zabalean bata besteagandik ikasiak eta Gabon-Urteberri inguruan erabiliak.”

Iurretatik edo inguruko herrietatik deitu deusenean be beti prest egon da herri ekintzetan parte hartzeko. 1991an Iurretako Euskal Jaien 100. urteurrena (1891-1991) ospatu zanean literatur sarietako (Lore Jokoak?) epaimahaikide izan zan.

2002. urtean Juan de Orobiogoitia eskolaren 200. urteurrena ospatu zan Iurretan. Egun horretan Karmelok landatu eban haretx bat plazan, indiano horrek Iurretaren alde hezkuntza arloan eginiko ekarpena gogoratzeko.

Parte hartzeko prest eta laguntzeko be prest. Gerediagia elkarteak 1986an Durangaldeko Erdi Aroari buruzko erakusketa prestau eban Durangoko liburutegian. Bertan Elorrioko Sanagustinetxebarriko kuxtatila edo arketa erakutsi nahi genduan eta pieza hau ekarteko Gotzaindegiko baimena behar zan; bera arduratu zan, zarata asko egin barik, gestinoa egiteaz.

Herriak eta herritarrek, bakotzak bere modura, eskerrak emon deusaz Karmelori. Gerediagia elkar-teagaz lotura dauken adibide bi:

Lehena, 1969an: *Euskal idazleen lorategia* liburua argitaratu ondoren Gerediagia elkarteko zuzendaritza batzordeak Karmelori zorionak emotea erabagi eban garai haretan ezagutzen zan lehenengo idazle iurretarra izateagaitik.

Bestea, gaurko omenaldi ekitaldia da. Ez jaku ezer kostau hemen gagozan guztiok alkartzea Karmelo zanaren inguruan gure bizipenak kontatzera etorteko.

Amaitzeko, beste iurretar eta gerediagatar batek ondo definidu eustan Karmelo: “Anonimoa baina beti presente”. Halaxe zan apala, alai eta hurbila.

Eta halaxe gogoratzen dot nik be nire ikasle garaian Derioko Udako Euskal Ikastaroan, literatura irakasle bikaina, olerkirik gatxenak be gure neurriko azalpenera ekarten ebazana. Ez ebazan bere ikasleen aurpegiak ahazten, ezta izenak be. Azkeneko aldiz senideak inguratuta bazkaltzen ikusi neban, alai, nire semeei esan neutsen: “Badakizue nor dan? Bilboko gotzain laguntzailea da”. “Bai?” Erantzun eustien. Ez jakon antzematen, Karmelo zan.

Bidegileak bilduman Karmelo Etxenagusari eskainitako liburuxkan irakurritako Igone Etxebarriaren hitzekin amaituko dot:

“Iurretako Aita San Migelen ordezkaria izan da ibili den leku guztietan, herriaren harrotasuna aldean erabili du beti eta”

Adagios, y Refranes bascongados

Erana da erroz
ta eguina gaxatz

de dicho a hecho
hai largo hecho.

2 Ichiten ezpac moxaxa
ifimicoau sor porxa

3 Erroac joan ta sareac an
despues de ydo el conejo, amamos el conejo

4 Itobaxen azari ezta ezator, onpui
No se hizo lo dulce para la boca del asno

Itoba illa dancan garaxaxa bustantean
el fino muerto ta cebada el rabo.

5 Aito urreduna izami
echaco faltaco Taberac.

6 Naguia badac aitoa
emoiac artazai erroa.

7 Alpea da Maria maquilatu
berez beardu.

8 Eran dodozalaco eguiac
aterai nai deutzaz beguiac
Mal me quixen mis comadres
por q' digo las verdades.

9 Zuc ean axren jaxamon ez:
beti izango naz teleguez.

10 Patu adi onaraz
ta ona izango az.
Cum sancto sanctus eris

11 Arcoxena dan artoc.
aldean doroaz otroac.

12 Dendea badozu
lau begui beozu.

13 Guizon ordien echean
axea franca oxean

14 Aidiac beca epomic
etzau jaten bidaxerac
oreja q' tala pende bocado.

Erana ta eguina
bi dira.

15 Ituzooen bizorra quentzen daturunean
Saxtuizu zeuxea urean
quando la barba de¹⁶ vecino viene coxten
echa la tua a remojas.

17 Ez cer jan ta ez cer lan

18 Sin officio m' beneficio.

19 Guizu on, ta ez jaquin non vid. 81.
haz bien, y no mixes a quien.

20 Gacha gurdac ator
batar baldin baator
bien venpai mal, si viene sola.

21 Guxecatua bustena luce
baca lezoac bertac uste.
piensa ladron, q' todos son de su condicion

22 Maria guxea pozuetan
beax ezitxean hoxduetan

23 Olle esque joami
etoxizan mutilduxic.
fue por lana, y fino esquilado.

24 Bertentrac Medicu
Noberintzat ~~Medicu~~ bere ez.

25 Cein arco ta cein quichi
ullea ullea da beti

26 La mona por mas q' se rista de seda mona se queda

27 Otroen ulle bat bacaxic
ta beza betondoxic: becoquitic
del lobo un pelo, y esc de la frente.

28 Tozoa zur
bizcaxtean egur.
El loco con la pena es cuerdo.

29 uraren mina
Zooen atxepuina
Mal de muchos conueto de bobos.

Añibarroren errefrau bilduma polit bat

SARRERA

Bada Koldo Mitxelena Bibliotekan *Voces usuales en Vizcaya* izenburuaren azpian dokumentu eder bat¹. Dokumentu honen egile edo autorea ez dator izendaturik dokumentuan berean ez eskuidatziaren signaturan. Garaia ere ez dago erabat finkaturik, hemeretzigarren mendekoa dela bai, baina zehaztasun gehiagorik gabe². Eskuidatziko letra eta edukia kontuan hartzen baditugu, ordea, ez dugu inolako dudarik egiletzaren gainean: Frai Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) dugu egilea. Geure artikulua honetan ez dugu dokumentu guztia transkribatuko. Lan hori egina dugu, baina hizkuntza-ikerketako aldizkari berezitu baten aurkeztekoa dela deritzagu. Uste dugu literatura aldizkari honetarako era-erara datorrela lan horretako zati preziatu bat. Dokumentu horretako zati preziatu hori errefrau bilduma bat dugu. Artikulu honetarako geure ustez dokumentu horretako bitxirik politena dena aukeratu dugu, lorearen lorea.

Guztira ehun eta hamabost esaera zahar dituen bilduma eder bat aurkeztuko dugu lan honetan. XIX. mende hasierako bilduma

bat denez gero, zaharra ere bada eta paremiologiaren zein hizkuntzaren aldetik guztiz aztergarria.

Badauka, beste alde batetik, alderdi interesgarri bat bilduma polit honek: guk dakigula ez da inon argitaratu izan. Herri literaturaren eta euskararen zalea den aldizkari honetako irakurlearentzat egokia dela deritzagu errefrau bilduma hau eskaintzea.

AÑIBARRO ERREFRAU BILTZAILE

Hemeretzigarren mendean argitaratzen hasi ziren idazle klasiko askotxok izan zuten herri jakintzaren genero batzuetarako joera. Mogelek berak *Peru Abarca* liburuan, Oihenarten errefrau batzuk jartzeaz gainera, Markinaldean jasotako errefrau zerrenda eder bat eskaini zuen. Zerrenda horretan hirurogeita bost dira guztira zenbakiz zerrendaturik daudenak. Mogelek gustuko izango du txitean pitean bere lanetan errefrauak txertatzea. *Peru Abarca* lanaren ondoren argitaratu zen “Diálogo entre dos

amigos eclesiásticos, el P. Fr. Pedro de Urlija y D. Juan de Zandija” eranskinean liburuan bertan datorren *alper da Maria maqui-llatu* dator. Esaera zahar horrek badu halako gehigarri bat: *berez bear du*. Guk eskaintzen dugun Añibarroren atsotitz-zerrenda honetan Añibarrok bikoiztu egiten du Mogelen errefrau-kopurua. Bada besterik ere. P.A. Añibarrok *Voces diferenciales vascongadas* liburuan agertzen du gure zerrenda honetan ez datorren ale bakan bat edo beste. Hona hemen aurkitu ditugunak:

No por mucho madrugar, amanece más temprano: c. *gox jaguia ezta egun-sentia*. A muertos, y a idos no hay más amigos: c. *adisquide guchi illai, ta joan diranai*. Tras cornudo apaleado: c. *Adartu ostein maquillatua; ondo eguinen pagua, ate ostein palua*. De una via dos mandados: *bide batez mandatu bi*.

Hona agertu ditugun ale bakantxo hauek kendurik ez dugu besterik aurkitu. Unitate fraseologikoak, ordea, askotxo daude eta ez da gure egitekoa ale horiek hona ekartzea.

Lantto honetan guk eskaintzen dugun esaera multzo hau XIX. mendeko eder eta baliotsuenetako bat da. Zerrenda honetako mordoskada handi bat aita Manuel Larramendik bere hiztegian txertaturikoak dira. Eta Larramendiren hiztegitiko esaera zahar askok, gure ustez, itzulpenaren itxura dute. Añibarrok bildutako batzuetan ere gaisotasun bera ikusten dugu. Gutxi batzuk ez direla herrikoak esatera ausartuko nintzateke. Bai, inolako zalantzarik gabe erdarazkoen itzulpena dirudite gutxi batzuek. Añibarrok berak bildutako ehuneko portzentaia handi batean, ostera, bene-benetako euskarazko errefrauak dira.

Diogunaren froga argia da Azkuek berak bildu zituela geroago hemengo asko eta asko, eta nik neuk ere, Markinan, batez ere gurasoen ahotik bilduak ditut hemengo mordoskada bat. Lan konparatibo hori, ostera, beste aldi baterako utziko dut.

AÑIBARROREN ERREFRAUEN BILDUMA DAGOEN DAGOENEAN

Ez dugu gaurko grafiara ekarriko dokumentua. Iturrian agertzen den bezalaxe ekarriko dugu hona, beraz. Urak iturbegian duen jatorrizko edankera ederra eskaini nahi diogu aldizkari honetako irakurle landuari. Zenbaki bakoitzaren azpian bi euskal esaera ere aurkitzen dira batzuetan. Zenbaki batzuetan erdal ordaina ere ikusten dugu, gaztelaniazkoa zein latinezkoa. Guk puntu honetan eskainiko dugun bildumako ale gehienak bizkaieuskeran daude, baina ez guztiak.

Gure puntu honetan *Voces usuales en Vizcaya* dokumentuko bost orrialdeko paremiak aldatuko ditugu. Sail honek *Adagios*, y *Refranes bascongados* du izenburutzat. Guztira bost orrialdetan bi zutabetan daude errefrau guztiak. Dokumentu nagusiko 36-40 orrialdeetan daude. Guk atal honetan dokumentuko orrialdeak markatuko ditugu // zeinuen bidez, eta azpioharrean zutabea.

Geure lan honen helburu nagusia dokumentua bera ahalik eta fidelen ematea da. Zenbaki bakoitzean agertzen diren erdal itzulpen eta erdal ordainak azpimarraturik agertzen dira jatorrizko eskuidatzian. Guk atal honetan letra etzanez jarriko ditugu. Ortografia jatorrizkoa errespetatu egin dugu, euskarazkoa zein erdarazkoa. Puntuazioa, ostera, gaurko erara jartzea hobetsi dugu.

/36/

1

Esana da erraz
ta eguiña garratz.

Esana ta eguina
bi dira.
*de dicho a hecho
hai largo trecho*

2

Ichiten ezpoc moscorra
ifinico au³ sor gorra.

3

Usoac joan, ta sareac⁴ an.
Después de ydo el conejo, amamos el consejo.

4

Astoaren aoari eztia eztatorco⁵ ongui.
No se hizo lo dulce para la boca del asno.

5

Astoa⁶ illa danean, garagarra bustanean.
Al Asno muerto la cebada al rabo.

6

Asto urreduna izanic,
echaco faltaco jaber⁷.

7

Naguia badoc astoa,
emoioc astazai eroa.

8

Alper da Maria maquilatu,
berez bear du⁸.

9

Esan dodazalaco eguiac,
atera nai deustaz beguiac.
*Mal me quieren mis comadres,
por que digo las verdades.*

10

Zuc esan arren jaramon ez:
beti izango naz leleguez.

11

Batu adi onacaz,
ta ona izango az.
Cum sancto santus eris.

12

Ascorena dan astoac,
aldean daroaz otsoac.

13

Dendea badozu,
lau begui beozu.

14

Guizon ordien echean,
axea francu goxean.

//

15

Ardiac beeca egonic,
eztau jaten bedarric.
Oveja que vala⁹ pierde bocado¹⁰.

16

Auzocoen bizarra quentzen dacusunean,
sartuizu zeurea urean.
*Quando la barba de tu vecino vieres cortar
echa la tuia a remojar.*

17
Ez cer jan, ta ez cer lan.
Sin oficio ni beneficio.

18 vid. 81
Eguizu on, ta ez jaquin non.
Haz bien, y no mires a quien.

19
Gacha guraboc ator,
bacar baldin baator.
Bien vengas mal, si vienes solo¹¹.

20
Gure catuac bustena luce,
bera lezcoac besteac uste.
Piensa ladrón, que todos son de su condición¹².

21
Maria gurea goruetan,
bear eztirean horduetan.

22
Ulle esque joanic,
etorri zan¹³ mutilduric.
Fue por lana, y vino esquilado.

23
Bestentzac medicu¹⁴
noberentzat barberu¹⁵ bere ez¹⁶.

24
Cein asco, ta cein guichi,
ullea ullea da beti
La mona por mas que se vista¹⁷ de seda, mona se queda.

25
Otsoen ulle bat bacarric,
ta bera becoquitic¹⁸.
Del lobo un pelo, y ese de la frente.

26
Zoroa zur,
bizcarrean egur.
El loco con la pena es cuerdo.

27
Ascoren miña,
zoroen atsegiña.
Mal de muchos consuelo de bobos¹⁹.

/37/

28
Celango jabea,
alango tresnea.

Celango Peru,
alango Maria.
Qual es la ama, tal es la criada

29
Maña bear,
ez indar.
Mas quiere maña que fuerza.

30
Obe da ecer baño cer.
Mas vale algo que nada.

31
Gauga sartua,
guztia nastua.
De noche todos los gatos son pardos.

32
 Catua sagüen²⁰ zai.
El raposo guarda de pollos.

33
 Obrac dira amore,
 ez berba onén colore.
Obras son amores, y no buenas razones.

34 vid 78
 Ene bolsea, urac encarren, ta urac aroa²¹.
Dicho de un tabernero a quien llevó la agua su bolsa.

35 vid 128
 Sarténac cirautsan perchari,
 quen adi eper baltzori²².

Astoac esan leio mandoari,
 quen aquit orti belarri.
Dijo el sarten ala²³ caldera, quita alli negra.

36
 Fama ona badozu, lo gozo eguizu.
Coge buena fama, y echate a dormir.

37
 Adisquida, ez aideric, dagoneä²⁴ beartsuric.
Dum fueris dives...

38
 Baqueguilla sartu, gurabóc,
 ondo burua gorde beóc.
Quien desparte (ò hace paces) hace la peor²⁵ parte.

39
 Bearguille gaisto, eracusle on.
El deablo²⁶ predicador²⁷.

40
 Esana esan.

Errana erran²⁸.
Palabra y piedra suelta no tiene buelta.

41
 Jangoicoari erreguz, bearrari malluz.
A Dios rogando, y con el mazo dando²⁹. //
 Aita batzallea, seme ondatzallea.

42
 Aita zurrari, seme³⁰ gastari
A padre³¹ enduredor, hijo gastador.

43
 Adizale onari izcuntzac urri.
Al buen entendedor pocas palabras.

44
 Errementari Argandacoa berac auspoa,
 berac joa, berac plazara daroa.
 Berac lan, ta berac jan.
El herrero de Arganda, el se lo³² fuella, el se lo macha, el se lo lleva a vender a la³³ plaza.

45
 Non sua dan, quea da an.
Donde fuego se hace humo sale.

46
 Dirauen artean icoac, eztira faltaco escuac.
En tiempo de higos no faltan amigos.

47
 Inchaurreac lau, ta otsac amalau.
Mas es el ruido que las nueces.

- 48
Madari, ta andrea, ixilic dagoana da obea.
- 49
Ez oi da³⁴ ezcontza pobrereric, ez eriotza³⁵
aberatzi.
No hai casamiento pobre, ni muerte rica.
- 50
Santu ta santen artean arrizco orma bat
bitartean³⁶.
*Habla dela huida del hombre, y la mujer
aunque sean virtuosos.
Entre santa y santo pared de cal y canto.*
- 51
Ez benaz, ta ez burlaz
ez adi sartu nagusiaz
*Ni en chanzas ni en veras
con prelado³⁷ no partas peras.*
- 52
Larriago ta gueldiago.
A mas priesa mas vagar.
- 53
Non dan baguea, an da zalea.
La privación es causa de apetito.
- 54
Oitura ecandu gaistoa,
bernea ausi ta bijoa.

Usadio charrari
bernea ebagi/iduna ebagui.
Al mal uso quebrarle la pierna.
- 55
Eguia me, ez ordea ce.
La verdad adelgaza, pero no quiebra³⁸.
- /38/
- 56
Otelena³⁹ beti leena⁴⁰.
- 57
Zurea zan gura, artu orain ardura.
Tu telo quisiste, tu telo⁴¹ ten.
- 58
Aoac diño agur, ta biotzac lepoan egur.
Manos se besan.
- 59
Emon eguic⁴² beguia urreari,
nai badec⁴³ izan ugari.
Rabanos y queso trahen la Corte en peso.
- 60
Gazte ciñan, zartu zara,
len ciñeana orain zara.
Adolescens juxta viam suam, etiam cum se.
- 61
Calean badabil andrea⁴⁴,
eztabil ondo echea.
- 62
Dagoanean bon bon, eztagoanean egon⁴⁵.
- 63
Bataleguez beste, auntzen odoloste.
- 64
Gure poza putz.
Nuestro⁴⁶ gozo caio al pozo.
- 65
Zotzac eta paluac gure echecho tratuac.

66
Eche utsa, guerra utsa.

67
Ondo eginen pagua,
ate osteian⁴⁷ palua.

68
Promes eguin bózu, cumpli beardozu⁴⁸.

69
Gura ezpozu becuric,
igues urrin ocasiñoric.

70
Urri baña ongui.
Poco pero bueno.

71
Aci da lollóa
nola bedar gaistoa.
La mala hierva crece mucho⁴⁹.

72
Ortic, edo emetic, dacuscan leguez eguic.
Donde quiera que fueres, haz como vieres.

73
Goazan beste errira,
an bere chacurrac dira.

74
Esále, enzúnle.
El decidior debe ser oidor.
Ya donde las dan, las toman.

75
Ezta iñor ain gaistoric, beretzat bere danic.
Ninguno hai tan malo, que lo sea para si.

76
Ura bada gueldi, atatic beguira adi.
De el agua mansa me libre Dios.

77
Bost baño, sei obe⁵⁰.

Obe da ecer baño cer.

78 Vid. Semejante 34
Ene mandoa, urac ecarri, urac aroa.
Dicho de un molinero y arriero.

79
Esquecoa esquean
ate bedarrean.

80
Lana da ugari,
bearguillac urri.
Messis multa, operari pauci.

81 Vid. Sup. 86
Ura bada gueldi
atatic beguira adi.

Eguizu ongui,
ta ez beguira nori.
De la⁵¹ agua mansa me libre Dios.

82
Ezcondu baño len,
contu cer eguiten den.
Antes que te cases, mira lo que haces.

83
Asco eguin nai,
guichi eguin bai.
Quien mucho abarca, poco aprieta.

84
Mai, ta gai,
*A pan y manteles*⁵². *A bufo: comun*

85
Erroman bazagoz,
an legez zagoz.
Si fueris Rome...
Donde quiera que te halles, haz como vieres.

/39/

86
Bauco nori irudi,
atalac lapicoari.

Utsa ta putza.

Ezcondu baño len
contu cer eguiten den.
Supra 82
Antes que te cases, mira lo que haces.

87
Nondic lan, andic jan.
El abad de donde canta de alli yanta.

88
Nola dan hitztuna, ala da enzuna.
Esale, enzule.
*Como cantara el Abad responde el monacillo*⁵³.

89
Char sortu ta char aci,
char izango da beti.

90
Aideac alboan, baña aguinac aoan.
*Mas cerca estan mis dientes*⁵⁴ *que mis parientes.*

91
Biotza da an, non ondasuna dan.
Ubi thesaurus vester est, ibi cor vestrum erit.

92
Bai barriac, uruna zuri.
Todo principiante es alabado sirviente.

93
Gura eztabenac queric,
eztaguiela suric.

94
Arechac azala, ametzac bezala:
zarrac ecin daguique gazteac bezala.
*El roble y el quexigo tienen corteza semejante,
pero los viejos no pueden hacer lo que los
mozos.*

95
Ur emon ta uts egin,
orixe eztoc atsegin
*Darle cerca y errar
no te puede agradar.*

96
Gox gorri, biar euri;
gau gorri, biar aterri.

97
Machin ordiric ago,
eure leporic ago⁵⁵.

98
Urte bete igaro da ezcondu nintzala,
egun bat guichiago damutu jatala.

- 99
Ollarra olo:
to da no: no da to⁵⁶.
En casa de Mari Miguel el es ella y ella es el.
- 100 Vid. Supr. 15
Ardiac beeca egonic,
eztau jaten bedarric.
- Ucondoa urrean daucat,
baya ecin mun eguin deutsat.
Oveja que vala pierde bocado. Vid. 15
- 101
Isil, baña il.
Matalas callando.
- 102
Enzun ta isil, bayezco biribil.
Quien calla otorga.
- 103
Besterenac zai, ta ceureztat ez gai.
Cuidados agenos matan al asno.
- 104
Chacur zarra ezta engañacorra.
A perro viejo no hai cuz cuz.
- 105 Vide supr 42
Aita zurrari, semea gastari.
- Saldeari zurrutadea ta artoari usicadea.
A padre endureador hijo gastador. Vid 42.
- 106
Aria nolaco, arilla alaco.
Por el hilo se saca el ovillo.
- 107 Vid. Sup. 87
Nondic lan, andic jan.
- Zure umea ezta zurea langoa⁵⁷.
El abad de donde canta, de allí yanta.
Vid. Sup. 87
- 108
Peru ona baña belu.
Tarde nació Pedro para cabrero.
- 109
Eldu zan miquea Sibilian⁵⁸, an beré⁵⁹ bustena
eperdian.
¿A dónde irá el buey que no are?
- 110
Edale ona, capa zarduna.
De⁶⁰ una mala capa un buen bebedor⁶¹.
- /40/
- 111
Etse utsa, guerra utsa.
Chacur argala ardi utsa⁶².
- 112
Quitu ta quitu; atso bat il, beste bat biztu.
- 113
Madabiriaren idia, ¿non da marabidia?
- 114
S. Vicente otza, neguaren biotza.
- 115
S. Yurgi, artoac ereiteco goxegui,
S. Marcos, artoac erein da⁶³ balegoz.

116	Ardi chiquia, beti bildots.	129	Lauciriaren pupua =laumaraiaren trapua. <i>Poco mal y bien atado.</i>
117	Idi chiquia, beti bigancha ⁶⁴ .	130	Amac eguin; ta bici bear.
118	Urtean bein elexara, ta berean eperdiaz altarara.	131	Gure arecharen betea, ta ezcurric ez.
119	Eguraldi ona=bera da yaque, bera gona.	132	Artzen ⁶⁸ eztabenari saldea ez leusquio emon bear erraria.
120	Bestelengusuaren semea, lloba; atzea baño pusca bat oba.	133	Gure auzoan beiac=orroe galantac ó, erro andiac.
121	Burugin ona= lagunguin charra.	134	Bururic ez, ta chapela nai.
122	Tratuen tratu=zortzian erosi, ta laüan saldu.	135	Luqui-cumea, luqui. <i>Sepe solet filius esse Patri</i>
123	Soldadua=amaren seme galdua.	136	Catua fracacaz. <i>¿Num et Saul inter Prophetas?</i>
124	Zagua osoric=ta guiñarrabea ordirc?	137	Lecuan lecuan ardiac=baltzac eta zuriac, gurean guztiz andiac.
125	Vizcaitarra yanda ⁶⁵ otz= arabarra ⁶⁶ yan da poz.	138	Ez gatza ta ez ura.
126	Guzurra ta abarra ⁶⁷ .	139	Errementariaren etsean, zotza ⁶⁹ bartzun.
127	vid 35. Astoac esan leio mandoari: quen aquit ortic belarri.	140	Lar beré ⁷⁰ lar da.
128	Guecho baño=Bilbo obago.		

141
Ecinac eztau legueric.

142
Zayetan ciogui, urunetan ero=
o, Zayetan zoin, urunetan ero.

143
Icusten eztauen beguic=eztau gachic
(Axular pag. 290) eztu minic.

ESAERA ZAHARREN IRUZKIN LABURRA

Zerrenda honetako zenbaki batzuetan errefrau bi agertzen dira. Hona hemen bi errefrauiko zenbakiak: 1, 35, 40, 41, 44, 54, 81, 86, 88, 100, 105, 111, 115, 125. Behin, 86 zenbakian, zenbaki bakar batean hiru euskarazko esaldi daude, bi esaera zaharrak dira eta bat esapidea. 126, 138 eta 140 zenbakietan ez dator esaera zaharrik esapide bat baino. Zenbaki batzuetan errefrau bat bakarra agertu arren aldaera bi ditu. 54 eta 142 zenbakietan aldaera bi daude. 34 zenbakian ipuin edo kontakizun baten esaldi errimatua errefrau bihurturik ikusten dugu. Badira, bestalde, bi kopla esaera zahar bihurtuak:

Arechac (dau) azala
ametzac bezala.
Zarrak ezin daguique
gazteac bezala.

Kopla errefrau bihurtu hau Larramendiren hiztegian ere agertzen da. Bada beste kopla errefrau bihurtua:

Urte bete igaro da
ezcondu nintzala,

egun bat gichiago
damutu jatala.

Kopla ere izan daiteke, baina bertso erdi bat ere bada. Lan osatuago batean emango dugu bertso horren berri zein bertsosailarena. Hemengo zenbait esaera zahar Mogelen *Peru Abarca* lanean ere ikusten ditugu. Añibarrok eta Mogelek elkarren errefrau-bildumen berri ote zuten?

Esaera zahar hauetako euskarak merezi du ohar bat baino gehiago 92-*Bai barriak urun zuri* horretako *bai* hitzak “bahe” esan nahi du. Bedar hitzak bi esangura guztiz desberdinak ditu. *Bedar* hitzaren bi esangura arras desberdinak ikusten ditugu. Erdarazko “hierba” bezala, 15 eta 71 esaeretan dator. Estu edo mehar adierazteko 79 esaera zaharrean dugu 79-*Eskekoa eskean, ate bedarrean* horretan *bedar* hitzak *mehar* edo *estu* adierazi nahi du. *Etxe* hitza bi aldiz ikusten dugu Bizkaiko mendebaldeko forman *etse* 66 eta 139 zenbakietan. Bizkaiko mendebaldeko egiturak ere bat baino gehiago ditugu “eta berean” ikusten dugu 118 zenbakian⁷¹, ekialderago “eta bertan” dena.

ONDORIO BEZALA

Añibarrok herri euskarari ardura handia eskaini zion. Añibarro, Mogel bezala, esaera biltzailea ere izan zen. Axularren euskara sentenziatsua ere maite zuen, dudarik gabe. Zerrenda honetan ere agertzen da Axularren bi esaldi sentenziotsu: 99 eta 143. Gure ustez, zerrenda honetako hainbat alek ikerketa luze eta sakonago bat merezi dute. Hurrengo baterako izan beharko du. Uste dugu oraingo kasu honetan gero dioenak ez dioela bego.

Oharrak

- ¹ Dokumentu honen signatura J. U. 013806809 da.
- ² Signaturan berean 18—jartzen du. Behin dokumentua zabalduz gero, 1800 data jartzen du. Dokumentu hau guk eskuidatzian aztertu eta transkribatu genuen. Gaur egun digitalizaturik dago eta Koldo Mitxelena bibliotekako web gunera sartuz gero, kontsulta daiteke internet bidez ere.
- ³ Ezin da esan seguru nola idatzi duen *ifnico au* edo *ifnico-au*, hau da, batera edo bereiz idatzita. Guk tarte txiki bat ikusi uste izan dogu eta horrexegatik transkribatu dugu bereiz.
- ⁴ Maiuskulaz jartzen du hitz hau.
- ⁵ Lehen idazkeran *eztator* idatzi du, eta gero gainean *co* gehitu du. Guk, beraz, *eztatorco* transkribatu dugu.
- ⁶ Hitz honen ondoren beltzunetxo bat dator. Hasieran *Astoc* idatzi ote zuen?
- ⁷ Hitz hau maiuskulaz jarri du.
- ⁸ Hemen ere tarte txikia jarri du *bear* eta *du* horien artean.
- ⁹ Halaxe idazten du: *vala*.
- ¹⁰ Lehen orrialdeko lehen zutabea errefrau honekin amaitzen da.
- ¹¹ Ez da garbi ikusten, baina *solo* dela derizat.
- ¹² Hitz hau ere maiuskulaz jarri du.
- ¹³ Batera idatzi du: *etorrizan*.
- ¹⁴ Maiuskulaz idatzi du hitz hau.
- ¹⁵ Añibarrok *barberu* hitza *mediku* hitzaren gainean jarri du. Azpian gelditu den *mediku* hitza ezabatu ondoren jarri du gainean *barberu*.
- ¹⁶ Destinatio kasu bi modu diferentetan jarri du batean *-c* batez bukatua eta bestean *-r* batez.
- ¹⁷ Hitz hau *-s-* luze batekin idatzi du transkribatzaileak.
- ¹⁸ Lehenengo idazketan *betondoric* idatzi du eta gero *beco-quitic*. Kasu ablatibo bi modu diferentetara jarri du *-ric/-tic*.
- ¹⁹ Errefrau honetan bukatzen da bigarren zutabea. Errefrauren lehen hitzean minuskula bat ikusten dugu. Gainerakoen kriterioa jarraitu dugu oraingo honetan ere eta maiuskulara ekarri dugu.
- ²⁰ Hitz honetan dieresis jarri du erdarazko erara irakurri ez dadin.
- ²¹ Ez da garbi ikusten baina *aroa* izan behar du.
- ²² Hemen *eperdi beltzori* ulertu behar da. Eperdi hitz konposatuan *eper(t)-* behar luke.
- ²³ Holaxe irakurtzen dugu, batera idatzirik.
- ²⁴ Azken *-a* honen gainean bi marratxa jarri ditu Añibarrok.
- ²⁵ Uste dut batera idatzi dituela erdaraz.
- ²⁶ Halaxe irakurtzen dut *deablo* eta *ez diablo*.
- ²⁷ Añibarrok maiuskulaz jarri du *Predicador* hitza.
- ²⁸ Lerro berean idatzi ditu. Esaera beraren bi aldaera dira, bata ekialdekoa eta bestea mendebaldekoa. Horrexegatik jarri ditugu lerro desberdinetan, esaera bakartzat har ez dadin.
- ²⁹ Honaino dator bigarren orrialdeko lehen zutabea.
- ³⁰ Hitz hau maiuskulaz jarri du.
- ³¹ Erdaraz *Padre* maiuskulaz jarri du.
- ³² Batera idatzita ikusten dugu: *selo*.
- ³³ Batera idatzita ikusten dugu: *ala*.
- ³⁴ Ezabaturik hasiera: *etago*. Lehen idazketan, beraz, *etago ezcontza pobrerit* jarri du. Gure begiz batera idatzirik ikusten ditugu: *oida*
- ³⁵ Maiuskuluz ikusten dugu hitz hau.
- ³⁶ Lehen idazketan *Santu bien erdian orma bat bitartean* izan da. Gero ezabatu ondoren goiko erara jarri du.
- ³⁷ Hitz hau maiuskulaz jarria dago.

- ³⁸ Errefrauen bigarren orriko zutabea.
- ³⁹ Hitz honen ondoren *zu* ezabaturik dago.
- ⁴⁰ Lehen idazketan *lena* idatzi du eta gerora *leena*, gainean *e* bat duela.
- ⁴¹ Bi aldiz ikusten dugu *telo* eta bietan batera.
- ⁴² Ezabaturik dago *egui* horren azpian *egui*.
- ⁴³ Ez dago argi zer den. Bizkaieuskararen *badoc* izan behar luke, baina *badec* irakurtzen dut.
- ⁴⁴ Eskuidatzian maiuskulaz jartzen du *Andrea*.
- ⁴⁵ Lehen idazkeran *ichadon* jarri du. Hitz hau ezabatu ondoren *egon* jarri du Añibarrok.
- ⁴⁶ Hitz hau *-s-* handiz idatzirik dago.
- ⁴⁷ Zer jartzen du *ostean* edo *osteian*? Aukera bietan bigarrenaren alde egingo nuke apustu. Badirudi *osteian* jarri duela baina ez du *-i-* horren gainean punturik jarri. Gehienetan *-i-* gainean puntua jartzen du, baina oraingoan ez da hain kontu argia.
- ⁴⁸ Batera irakurtzen dut *beardozu*.
- ⁴⁹ Zutabe aldaketa dago esaera zahar honen ondoren.
- ⁵⁰ Lehen idazketan *oba* jarri du eta gainean *-e* bat.
- ⁵¹ Eskuidatzian batera idatzi ditu preposizioa eta artikulua.
- ⁵² Badirudi *manteles* jartzen duela jatorrizko eskuidatzian.
- ⁵³ Erdarazko ordainaren ondoren jarri du *esale*, *enzule* euskalesaera zaharra.
- ⁵⁴ Jatorrizko eskuidatzian *dientes* hitzaren ondoren komatxo bat ikusten dugu.
- ⁵⁵ Ezabaturik dago *Ascoren miña./ zoroen atsegiña*. Supra 27 *Mal de muchos, consuelo de bobos*. Supra 27 Ezabaturik dagoen esaera hau da zutabea azkena.
- ⁵⁶ Erdarazko errefrauren ondoren dator Axularrek bere *Gero* lanean dakarren esaldi edo esaera zahar hau.
- ⁵⁷ Esaera honetan transkripzio arazotxo bat dugu zein da *Zure umea* edo *Gure umea*?
- ⁵⁸ *Sevilla* hiriaren euskal ordain zaharra dugu *Sibilia*. Errefraua ere zoragarria da.
- ⁵⁹ Hemen azentuaren bidez desberdintza polit bat egiten du Añibarrok. Errefraua esan nahi du *han ere* buztana ipurdian duela. Bizkaieuskarako *bere* posesiborekin beste zerbait ulertuko genuke, guztiz grazia gabekoa.
- ⁶⁰ Lehen idazkeran *Baxo una mala capa un buen bebedor* idatzi du. Gero *Baxo* eta *una* hitzen artean, goialdetxoan, *de* preposizioa jarri du.
- ⁶¹ Berrogeigarren orrialdearen bigarren zutabea azken errefrau dugu hau.
- ⁶² Esaera honen ondoren *vid* dator. Ez dakir oso ondo zertara datorren ohar hori.
- ⁶³ Batera idatzi ote ditu ereinda edo bereiz. Lehen ustearen alde jokatu dugu.
- ⁶⁴ Esaera honetan, *beti* hitzean, tildea idatzi ote du *-e-* gainean?
- ⁶⁵ Nola idazten du Añibarrok *janda* edo *yanda*. Bi aukeren artean lehena aukeratu dugu.
- ⁶⁶ Maiuskulaz jatorrizkoan.
- ⁶⁷ Hemen bukatzen da zutabea.
- ⁶⁸ Lehen idazkeran *Aruten* idatzi du Añibarrok. Gero erdiko *-ute-* ezabatu eta gainean *z* jarri du.
- ⁶⁹ Nola idazten du *zotza/sotza*? Dudatan egon ondoren lehena alde egin dut.
- ⁷⁰ Hemen ere tildearekin 109 errefrau bezala.
- ⁷¹ Behin *elaxara eta bertan ipurdiaz altarara* esan ohi dute Markinak.

Ja-jai, Geldoetan bere bai

Aldizkari honen aurreko alea argitaratu eta egunetara jaso neban Markos Aurtenetxe sendu zaneko barria. Bera izan zan aurreko artikuluan jaso nituan bertsoak kantau eta hareen ganeko jakingarriak emon eustazana, bai eta oraingoan dakardazanak esan eustazana bere. Ez da kontua nok eta berak esandako bertsoak hari eskainiten hastea... baina hemendik gorazarre egin gura neuskio, atzera bere ohartzaraz gaituelako ahozkotasanaren transmisinoaren garrantziagaz. “Eskerrak beragaz batu nintzala” pentsau neban neure kolkorako haren hileta-egunean, “bertsook gitxienez ez ditu inok jaso barik beragaz eroan”. Beti geratuten da, halan da bere, gehiago batu ezinaren arantzea.

Aurreko zenbakian legez, oraingoan bere egiletza kolektiboaren posibilitadea zabalik itxiten dogu, Markos Aurtenetxek esandakoaren arabera, bertsook kantatearren Bolunburu izeneko “bertsolaria” famau bazan bere, tabernan “konjuntoan” egiten ebezen bertsoak Geldoetan (Zamudio, Deriogaz mugan). Halan da ze, ezin leio egiletzea Bolunbururi bakarrik aitortu. “Honeek bertsoak be *Santuerdik* eta *Bentanabakarrak* ataratakoak izango dira” esan euskun Markos Aurtenetxek. *Santuerdi* esaten eutsien Bitoriano Bolunbururi, sudur erdia eukalako. Ez zan ostera izen bakarra, baserriaren izenetik bere deituten eutsien: *Solondo*. Bertsolari laguna, Ramon Aurrekoetxea zan, “tuertoa” zala eta *Bentanabakarra* izenburladuna. *Bentanabakarra* Elorreako semea zan.

Geldoetako jazoera bat dakargu oraingo honetan bere. Auzoan gertatutakoen ganean ataraten ziran bertsoak auzoan, eta bertsook berezitasuna hor daukie, kalidadean, erri-man, metrikan, irudien erdertasunean... baino gehiago. Auzoko neskato batek mutila largau ebaneko gorabeheraren ganeko bertsoak dira honeek. Euskal tradizioan sarri agertuten dan gaia da berau. Ezagun doguz, kasurako, Bilintxen bertso-sorta famaduak –hortik artikulua honen izenburua– edo, Geldoetatik parajeagoko Eustakio Eulearen “Zazpi nobioen bertsoak”, beste asko eta askoren artean.

Bertsoetako batzuk Pili Aurtenetxek kantautu geunkazan batuta. Batak hala besteak esandakoaren artean ezberdintasunen bat egon danean oharretan ipini dogu. Honeek dira, bada, bertsoak¹, etnotestu legera emonda².

Mendiri(k) mendi, basori(k) baso³
yuanda dago Madrillen⁴.
Gure i eusuan⁵ egon biar deu
mutillen batek abile⁶.

Bere denporan kanpoti dabil
irebasiten dirue,
sarri askotan dana gasteute
paiaso derditxedue⁷.

Etzera etorri egiten da
manteniduten burue,
aiteri golpe i egiten deutzo
emon esian dirue.

(...)⁸

I aman batzunek⁹ artzian deutzo
mutil orreri kargue.

Umetxueri txiki-txikiten
artu biar yako kargue,
okerrerien jausiten bada
ondo berotu narrue.

Pase dan uden artu ei euen¹⁰
eskonduteko asmue
selakua zan igerri etzen¹¹ da¹²
akabe dakon tratue¹³.

Neskatxu orrek mutill orregaz
apartera i on egin deu¹⁴,
loteri onak urten ei deutso
ez deuenian amarreu.

Oharrak

¹ Koplai bere “bertso” esan izan jake geure tradizioan.

² Puntuazino-markak gureak dira.

³ Pili Aurtenetxe barriemoileak halan dino: *basori paso mendiri(k) mendi*.

⁴ Pili Aurtenetxe barriemoileari jasotako bertsoak holantxe errezetan dabe: *yoanta dago Madrille*. Herri-izena aldatuta, hasierako bi bertsole-rook ahozko tradizinoko formula ezaguna osatuten dabe.

⁵ Auzoan.

⁶ Gure bigarren barriemoileak halan dino: *mutiltxun batek abille*.

⁷ Iñaki Gamindek Mungian “ugari” esangureagaz jaso baeban bere (2001: 306), badirudi kasu honetan “baragarri” dala esangurea, erdaratiko “desdichado”-tik.

⁸ Pili Aurtenetek kantautako kopleak hemen batuta daukaguzan biak bilduten ditu: *Aiteri golpe egiten dotzo / emon ezian dirue / Ama bartzunek artzean dotzo / mutiltxu orreri kargue*.

⁹ Bartzuna surtarako palea da, edo lapikoak behekosuan ipinteko hankak dituan burnizko tresnea. Sustantibo moduan baino ez dogu topau dokumentauta, baina hemen adjektibo legez erabilten dala emoten dau.

¹⁰ Areak aldatuten da Pili Aurtenetek errezaetakoa: *Pase dan uden akorde jako*.

¹¹ Eutson.

¹² Pili Aurtenetek: *selangoa dan igerri dotzo ta*.

¹³ Pili Aurtenetek: *akabe dako tratue*.

¹⁴ Pili Aurtenetek: *aparter(a) ona egin deu*.

Bizkaiko bertsolariak 1935eko Txapelketa Nagusian: P. Abarrategi eta E. Uriarte

1. Lehenengo Bertsolari Eguna

Iazko abenduaren 13an, Barakaldoko BECen, Maialen Lujanbio hernaniar gazteak katebegi barri bat erantsi eutsan Bertsolari Txapelketa Nagusien kateari. Hamalau bat mila euskaldun izan ziran une historiko horren lekuko bertan. Orain arte hamabost txapel jokatu dira¹, eta iazko txapelduna dogu ohore hori izan dauan lehenengo andrazkoa. Aurten Bertsolari Txapelketa Nagusiak diamantezko ezteiak ospatzen dituala-eta, egoki eretxi deusagu Lehenengo Bertsolari Eguna gogoratzeari, baita bertso-gudu haretan parte hartu izan eben bertsolari bizkaitar bien aitamena egiteari be.

Holako egunak antolatzeko asmoa ez zan barri-barria. Izan be, martxan egozan ordurako Olerti Egunak, Antzerti Egunak..., *Euskaltzaleak* alkarteak antolatuta. Aitzolek-eta asmo sendoa eben bertsolaritzeari taberna- eta sagardotegi-sundea kendu, eta bertsolaria duintasun barri bategaz eroateko antzoki, plaza, eleiza eta ospakizun nagusi guztietara. Edozelan be, Bertsolari Egunak antolatzeko asmoa, zegaitik edo hagaitik, atzeratu egin zan, harik eta 1935eko urtarrilaren 20an, ospatu zan arte. Ekitaldia arrakastua izan zan oso: “Gure ezagueran Donosti’n euskera alde egin dan jairik ederrena, igandekoa izantzan”².

Hogei bertsolari lehiatu ziran txapelketa historiko haretan: hamasei gipuzkoar: Alkain, Basarri,

Erauskin, Etxeberria, Kortatxo, Lexo, Lujanbio, Mintegi, Nekezabal, Sorozabal, Tellaetxipi, Txapel, Txirrita, K. Zabaleta, J. Zabaleta, eta Zepai; ipartar bi: Larralde eta Matxin; eta bizkaitar bi: Abarrategi eta Uriarte. Epaimahaia honako gizonok osatu ehen: Jose Ariztimuño *Aitzol*, Joseba Zubimendi, Toribio Altzaga, Joseba Olaizola, Txomin Olano eta Manuel Lekuonak.

Saioa Aitzolen berba batzuk hasi zan. Gero, J. Zubimendi gai-jartzaille eta saio-zuzendariak, era klasikoan bideratu eban lehenengo ariketa, bertsoz: “Bakoitzak nai duena / lezake kantatu; / doiñun azke zerate / gaia aukeratu...”. Bina bertso. Aukerea baliatuta, Basarrik, garaiko Euskal Pizkundeko iruditeria erabiliar, Aitzolek-eta gustura entzuteko moduko bertsoak abesteari ekingo deutso: “Bertsolariak eman diote / Txeko erriari gorantza, / *Mireio* batek edergallutan / yosia zuen Provenza...”. Hasieratik bertatik, bete-beteen asmatu dau Basarrik: Aitzolek begien aurrean dauka berak amestutako bertsolari eredugarri ha.

Bigarren saioan bertsolariak hiruna bertso abestu zituen, gaia honakoa zala: “Euskal izkuntza galtzen ari da / ta galtzen ba’da euskera, / Euskalerriko seme guziak / betiko galduak gera”. Basarrik emon eutsan hasiera saioari, eta *Jautarkol* olerkariaren eta Arana Goiriren aipuakaz hornidu zituan bere bertsoak, zenbait esaldi hitzez hitz erabilita. Saio honexetan abestu eban Txirritak “Larogei urte gaiñean ditut” bertso historikoa. Bere aurrean dotore jantzitako gazte bat eukan; euskera jaso erabilen gazte harek; aipu kulturalak bertso-berbato erabilzan Basarrik... Epaimahaian egoan Aitzol abadea seinalatuaz, bere egoeraren barri maisuki emon eutsen Txirritak Poxpolin antzokira batutako bertsozaleai: “Euskera ia aztu zait eta / erderarikan jakin ez, / maixu batekin eskolan laxter / asi bear det latiñez!”.

Hirugarren saioan, Zubimendi jaunak puntua jarrita, hiruna bertso kantatu zituen bertsolariak; eta,

laugarrenean, ofizioak emonda, bosna. Hamahiruna bertso kantatu ostean, txapelketea eguerdiko ordu bietan amaitu zan. *Bertsolari Guduak 1935-1936*³ liburuan, txapelketa honetako hainbat bertso irakurri leitezke.

Ebatzia, baina, Eusko Etxean eginiko bazkaria amaitu arte ez zan aditzera emon: txapelduna –aho batez– Basarri; bigarrena, Matxin; hirugarrena, Zepai; eta laugarrena, Alkain⁴. Epaimahaikoen arabera, bardintasan handia egon zan puntuazinoen artean, eta sari gehiago egon balira, zerrendea luzeago izango zala inoen.

Gaurko talaiatik begiratuta, harrigarri egiten jaku, hurrengo urtean txapela irabaziko dauan Txirrita bertsolaria, ordurako mito bat zana, lehenengo lau horreen artean ez ikustea⁵. Era berean, azpimarratzeko modukoa da bertsolari bizkaitarren inguruan agertzen dan aitamen urritasuna. Izan be, J. Zubimendik *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburuan 1935eko txapelketatik jasoten dituan 45 bertsoetatik bakarra da bizkaitar bertsolariak jagokena: puntua emonda Uriartek kantautako bat, hain zuzen be. Kontuan harturik 1936ko Txapelketa Nagusian ez zala Bizkaiko bertsolariak aurkeztu⁶, ahaleginduko gara Abarrategi eta Uriarteren ganeko zertzelada batzuk emoten, gerra aurreko bertsolaritzearen lekuko historikoak ditugu-eta.

2. Prudentzio Abarrategi *Besamotza*

Lehenengo Bertsolari Txapelketearen inguruko artikuluetan-eta, zehatz agertzen da partaide bakoitzaren herria. P. Abarrategiren kasuan, ordea, *Bizkaia* agertuko da sistematikoki. Noiz jaio zan eta noiz hil be, ez da inon aitatzen.

Aita Zavalak argitasun apur bat damosku Uzta-pideren *Lengo egunak gogoan* liburuan: “Abarrategi *Besamotza*, Urduliz, Bizkaia”⁷. Halandaze, bat

dira *Besamotza* bertsopaper saltzaile ezaguna⁸ eta Abarrategi bertsolaria; badakigu jaioterria be zein eban gure protagonisteak: Bizkaiko Urduliz herria.

Jaioterria zehaztuta, Bizkaiko Eleizearen Artxi-bategi Historikora⁹ jorik, posible izan dogu Abarrategiren bateo-agiria lortzea: Prudencio Abarrategui Torrontegui, Urdulizko Santa Maria eleizan, 1873ko apirilaren 28an bateatua. Gurasoak: Juan Antonio Abarrategui Elorduy eta Maria Manuela Torrontegui Aldecoa. Beste datu askorik ez daukagunez, ezagutu ebenen testigantzetatik abiatuta hurreratuko gatzakoz Abarrategi *Besamotza*-ri. Bateo-eguna kontuan harturik, esan geinke Abarrategik Lehenengo Bertsolari Txapelketan abestu ebanean 61 urte zituala.

Urduliztarra bat-bateko bertsolaria zana ez dago dudarik. Edozelan be, bertsopaper saltzaile modura egin zan ospetsu eta ezagun Euskal Herriko lekurik gehienetan, eta *Besamotza* ezizenez *-Manko(a)* be agertzen da inoiz edo behin- deitzen eben garaiko bertsozaleak. Honan zer dinoan Iñaki Egañak, euskaldun izendatuen bere zerrenda berezian:

“Abarrategi, Prudencio (s. XX. Bertsolari). Cantero, natural de Urduliz. En un aciago día, un cartucho de dinamita le arrancó ambas manos. Pero no fue el fin del mundo. Para sobrevivir, Prudencio comenzó a escribir poemas, versos, en papel, que recitaba y vendía por unas pesetas. Iba de pueblo en pueblo y de feria en feria ofreciendo sus composiciones. ¿Quién las transcribió cuando se quedó ciego?”¹⁰.

Uztapidek, bere aldetik, gorago aitaturiko liburuan, Abarrategiren deskribapen zehatza damosku:

“Au beso-motza zan, da onek ere boza ederra zuan. Jeneralean, papel saltzen zebiltzanak, geienak eztarri onekoak izaten ziran; bestela ez

baitu balio. (...) Besoak, biak motzak zituan bizkaitar onek; esku-muturretik moztuak. Jaten ez nuan beiñere ikusi; ez dakit nola manejatzen zan; baña dirua ederki kontatzen zuan. Brusaren patrikaran ibiltzen zituan sosak; esku-mutur batekin aterako zituan andikan; zabala zuan, ba, esku-muturra, ta gañean aterako zituan, da beste esku-muturrekin botako zituan zure eskura pezetaren ganbioak. Olaxe manejatzen zan ura”¹¹.

Gizon bikaina zan Abarrategi, Uztapideren ertxian: metroa eta laurogei zentimetro luze, eta ehun kilorako ez ei eban asko faltako. Brusa urdin luzea aldean, zoli abesten zituan saldu beharreko bertso-sortak: “Boza ederrarekin kantatu ere egingo zituan, da asko saltzen zituan”. Eskuetako elbarritasuna zergaitik eukan ez ekian Uztapidek, ez zalako inoiz hori preguntetan ausartu: “Galdetzeko etzan gauza egokia ere, ta ortan gelditu ginan”. Hurrengo lerrootan Uztapidek xehetasun gehiago damosku:

“Gero, gerra-denporan, berriz, palta izan zan. Frantzia aldean-edo ibillia izan bear zuan. Nik ez nuan luzaro emen ikusi, ta an zebillela aditzen genduan¹². Gero Erreterin ikusi nuan, aztu ta geroko batean. Piska bat zartzera egiña zegoan ordurako. Urte asko ziran nik ikusi ez nuala, ta ez da arritzekoa neri zartua iruditzea, onera Oiartzunera etorri eta geroko kontuak dira-ta. Emen ez dakit senideren bat edo zer eukiko zuan Erreterin. Nik ala pentsatu nuan. Ura zarra da onezkeru, bizi baldin bada. Ez det geroztik ikusi ta ez dakit zertan dan”¹³.

Aita Zavalaren *Lexo bertsolaria* liburuan be, badago Abarrategiren ganeko aitamen interesgarri bat, bertso saltzailearen bizimodua iruzkintzen dauana :

“Inprentatu ondoren [bertsopaperak] *Besamotza*’ri ematen zizkion saltzeko. *Besamotza* bertso-saltzalle bat zan; seguru asko, Euskalerrian inoiz izan dan bertso-saltzallerik ezagunena. Bizkai’ko Urduliz’en jaioa zan. (...) Laguntzeagatik ematen omen zizkion. Besamotzak amarna xentimo saltzen zituan paperak. Noizean bein, biak alkarrekin saiatzen ziran bertso-paper saltzen, eliz-atarietan, plazetan, eta olakoetan kantari asita”¹⁴.

Auñamendi entziklopediak beste data interesgarririk bat ematen deusku urduliztarraren bizitzearen nondik norakoak zehaztu ahal izateko: “Ha sido el más famoso *bertso-saltzalle* (vendedor de composiciones) de todos los tiempos. Aún hoy se le recuerda mucho. Se le conocía con el nombre de *Besamotza* (El manco). Compuso también alguna que otra composición que imprimió y él mismo vendió. Hacia 1957 vendía cupones de lotería por las calles de Bilbao”¹⁵. Azken datu hori kontuan hartzen badogu, 84 urte inguru izango zituan orduan urduliztarrak.

Prudentzio Abarrategiren bertsogintzea

Tamalez, ez daukagu Abarrategiren bat-bateko bertsoirik; ez 1935eko txapelketakorik, ez ostantzekorik. Idatziak be banaka batzuk baino ez dira. *Bertsolariya* aldizkarira jotzen badogu, urduliztarraren bertso-sorta bi topauko ditugu: “Oraingo neskatxari”¹⁶ eta “Neskatxa ederra nago ta...”¹⁷ izenekoak. *Bertsolariya* aldizkariakaz egin zan bildumaliburuaren aurkibidean hirugarren sorta bat agertzen da *Abarrategi* sinadureagaz (“Praixku artzaya abeslari”), baina kasuon, ez da *Manco* ezizena agertzen; bai, oster, *Soraluze*’tik ailea. Bertso-

keraz zein hizkuntzaz nahiko desbardinak dirala esan beharra dago.

Bertsopaper bietan neskatxak dira protagonista, eta gaia landukeran nahiko ikuspuntu klasikoa darabil Abarrategik. Gipuzkeraz dagoz idatzita, oso hizkuntza herrikoian. Lehenengo sorteak 15 koplak ditu; bigarren sortan, aldiz, 12 bederatziko puntuko darabilz. Kasu bietan, amaieretan erosle posibleari zuzentzen jako, erosteko gonbitea luzaturik. Lehenengoan: “zar ta gaztiak ikasitzeko / paper bana artu”; eta, bigarrenean: “emen saltzeko daude / gus-tu dubenentzat”.

Aitaturiko bertso-sorta horreetaz aparte, P. Abarrategiren hiru bertsopaper dagoz Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian. Lehenengoak “Bertzo Berriak. Gora Paulino Uzkudun, Aupa” dau izenburu. Sinadurea *Abarrategi* da, eta lehenengo bertsoan irakurri leitekeanez, 1927koa da. Gipuzkeraz idatzita dagoz, eta Bilbon argitaratu zituan.

Bigarren bertsopaperak “Bertso Berriak ¡Gora Paulino Uzkudun! Aupa” dau izenburu, eta 1928an dago datatuta: “Beasañ-en L. Zunzunegi’ren etxean 1928-an”. *Abarrategi*’tar *Prudensio*’k sinatzen dau, eta gipuzkeraz idatzita dago.

Hirugarrenak “Bertso Berriak” dau izenburu eta ez dakar datarik. Edozelan be, 1927kotzat hartu leiteke. Gaia aizkora/korrika apustu bat da, urte horretan jokatu zana. Sinadurea, *Abarrategi* da, eta Erreterian dago inprimatuta. Bertsook be, gipuzkeraz idatzita dagoz.

Abarrategiren bertso-sortetan harrigarri egiten jaku gipuzkerearen nagusitasuna. Horrek, itaun batzuk dakarskuz burura: Berak berataraz idazten zituan holan? Bateren batek laguntzen eutsan? Zelakoa zan haren bat-bateko bertsogintzea...? Material barriak agertu artean ezin itaunok erantzun.

3. Esteban Uriarte *Utarre*

Bizkaiko bertsolarietaren historian leku esanguratsua daukan bertsolari hau, Diman jaio zan 1894an. Hogeta bost urtegez ezkondu, eta, handik lasterrera, Bermeora aldatu zan familia: “Gazterik joan zen Mañura ikazkin eta harez gero, Bermeon emango zuen bere bizialdia hargin eta udaleko enplegatu bezala”¹⁸. Kartzela frankistetan osasuna galduta, bere lanbideak, hargintzak, eragindako gaixotasun batek jota Bermeon bertan hil zan, 1947. urtean¹⁹.

Uriarte gaztetxutan hasi zan bertsoan, eta gaztea zala idazten, 1920an Kirikiñori Dimatik bialdutako bertso-sortan ikusi leitekeanez²⁰. Hogeita sei bat urte daukazan bertsolari-idazle gaztea euskaltzale eta abertzale sutsu dagerkigu bertsootan. Era berean, orduko idazle gehienen garbizaletasun ikutua beraganduta dauka *Arratiako txori txikiak*²¹: “Kirikiño, zuk nitzat ba-dozu / Lekurik izparringian, / Luginatzaz gaur aurkituten naiz / Zegozer esan gurian...”.

Uriarteren euskaltzaletasunaren adierazgarri da 1930eko martiaren 18an *Euzkadi*-n argitaraturiko “Ibarrangelua” artikulutxua. Laburra da oso: prosazko sarrerea eta ahapaldi bakar bat. Sarreratxuan Ibarrangelun zergaitik dagoan esan ondoren (“arri landuzko illobiak egiten”), bertako jenteak euskera-rekiko eban loturea azpimarratzen dau *Utarre*-k: “...euskeldunaren jatorria-ta / beti erdera agoan. / Au emen ez dot ikusten eta / ze atsegiñez nagoan: / neure biziya emongo neunke / pozik Ibarrangeluan”.

Gerran sartuta, abertzaletasun kutsua areagotu egingo da dimoztarraren bertso-sortetan. Dakigunez, hiru bertso-sorta argitaratu zituan gerran bertan jaiotako *Eguna* egunkarian²². Hirugarren sortea da, hain zuzen be, Joseba Tapiak bere “Agur Intxorta Maitte”²³ CDko “Laban daukagun opille” abestia²⁴ egiteko erabili ebana. Sorta horretako azken bertsoa dakargu lerrootara; izan be, azken lerroak damotso izenburua Tapiaren abestiari. Dakigunez, sorta berau dogu *Utarre*-k argitaratutako azkena:

Gora euskotar abertzaliak,
gudari ta euzko-langille;
iñor ez dua geu ez bagera
gutzat gauzonaren bille.
Begiak argi, adiña garbi,
mingaiña ixil ixille,
garaian gagoz erakusteko
zein dan eiztari abille.
Zutik guztiok iñok jan barik
laban daukagun opille.

Gerran, Esteban harginak, gehienbat, aterpeak-eta egiten jardun eban, harik eta nazionalak Bilbon sartu ziran arte. Orduan, Bilbotik Santoña aldera egin eban Euzko Gudarosteagaz. Hango itunaren ostean preso hartu eben, eta El Dueson (Santoña), Bilboko Larrinagan eta Burgosko presondegian ezagutu eban arrazoirik bako kartzelaldien samina. Dimoztarrak karu be karu ordaindu behar izan eban bere abertzaletasuna, 1943. urtera arte egon zan-eta giltzapean. Handik lasterrera, 1947an, isildu zan Bermeoko urretxindorra, 53 urte zituala.

Esteban Uriarteren bertsogintzea

X. Amurizak *Bizkaiko Bertsogintza I* liburuan (524-525. or.), “Dimako idiari” izeneko sortea aitatzen dau, eta Uriarterena izatea oso leitekeana dala gehitu. Halaxe da. Izan be, bertso-sorta hori, bertsopaper modura, Koldo Mitxelena Kulturuneke bibliotekan dago. Bertsopaper horri jagokonez, esan beharra dago Amurizaren liburuan agertzen dan sortea zortzi bertso dituala²⁵, eta originala hamaika ahapaldikoa dala. Era berean, ohartu behar da originaleko 8 eta 10. ahapaldiak nahastuta agertzen dirala Patxi Bilbaoren bertsinoan, baita lekuz aldatuta be; izan be, nahasiriko ahapaldiak sorta barriko 4 eta 5. bertsoak dira.

Bigarren sorta bateri jagokonez, zera dinosku Etxanoko behargin nekaezinak: “Beste bertsopaper interesgarri bat be heldu jaku, Alfonso Irigoienen artxiboari eskerrak. Batzuetan, errima nasai samarra badarabil be, bertso-sorta hau egin ebana bazen zeozer”²⁶. Sortearen izenburua “Agure zelosua” da, eta bertsopaper hori be Koldo Mitxelena bibliotekan dago. Kasu honetan, sorta biak bat datoz bertso kopuruari jagokonez. Ha ta guzti be, badago aldaketatxu bat, KMK-ko bertsopaperoko bederatzigarren bertsoa, bosgarren izatera pasau da-eta A. Irigoienen funtsako bertsinoan.

Esan dogunez, Uriartek bertso-sorta ugari (*Euzkadi, Eguna...*) eta zenbait bertsopaper argitaratu zituan. Bat-bateko bertsogintzeari jagokonez, ostera, lekukotasun gitxi daukagu. X. Amurizak dinoskunez: “Uriarteren bat-bateko bertsogintzatik, emoitza urria geratu jaku. Kepa Enbeita Urretxin-dorragaz askotan ibiltzen zela dinoe sasoiko lekukotzek, baina haren bat-bateko bertsoak, guk dakigula, bat edo bi besterik ez jaku heldu”²⁷. Labur bada be, aitatu daiguzan Uriarteren plazaz plazako emoitza batzuk.

Lehenengo lekukotasuna B. Pujana bertsolariak damosku: “Nik lenengoz entzun neutsien bertsolariak izan ziren Esteban Uriarte Dimekoa semez, ezkondu eta gero Bermeon bizi zana, eta Kepa Enbeita, Zeanuriko plazan, agostuko Andra Mari jaietan 1927an edo holan uste dot”²⁸. Gerora, kantu lagun be izan eban Pujanak Uriarte: “1935ean Dimako Uriarte eta Basarri izan zituen lagun, Zeanuriko sei abadek meza berria eman zutenean”, dinosku Igor Estankona poeta gazteak²⁹.

Handik urte bira, 1929an, txapelketa baten hartuko dau parte Uriartek. Kasuon, lekukotasuna B. Enbeitarena da: “Hogeitahiru urte nebazala, Mungian txapelketa bat eratu eben. Sei bertsolari batu ginan: Uriarte, Bartolo, Zarraga, Kastrejana, Ormaetxe eta ni. Ni neu geratu nintzan txapeldun eta Uriarte bigarren”³⁰.

Faustino Etxebarria dimoztar bertsolariak, jakin-garriak ez eze, *Utarre*-ren bat-bateko bertso batzuk be opesten deuskuz. Izan be, 1932. urtearen bueltan, hamabost bat urte zituala, Faustino gaztetxuak, Dimako Santa Ageda ermitara egun pasa joanda, aukera izan eban Uriartegaz saio txu bat egiteko³¹. Hona hemen, Uriarteren lehenengo bertsoa:

Gazte estimatzen dot
zure etorrera,
biok erri bateko
ta biok batera.
Poztu egin nazela
noia esatera,
ta nik dodan indarra
zuri emotera.

F. Etxebarriak Uriarteren beste bertso bat be gogoratzen dau. Esan leiteke saio horretan Uriartek pozarren ikusi ebala Dimako herrian bertsolaritzearen katea ez zala eten, Faustino gazteak eroan eikeala jarraipenaren lekukoa:

Mutiko zara ta poztuten naz
orain zu ikustian,
ni zarra naz ta ordeazkoa
neure errian ixtian.
Emoten dau sut neure eskua
biotza bete-betian:
erria ondo zaindu egizu
beste bat jaio artian.

1935-36 urteetan, gerra piztu artean, hamaikatu agerralditan hartu izan eban parte Uriartek, sarritan orduko bertsolaririk ospetsuenak kantu lagun zituela. Aitagarría da 1936ko bagilaren 28an, Lekeitian, VII. Olerti Egunaren inguruan antolaturiko bertso saioa. Azkue aita-semeen omenez eginiko jaialdian, orduko bertsolari entzutetsuenak (Basarri, Uztapide, Txapel eta Zepai) batera abestu eban *Arratia-ko Txori Txikia*-k, Bizkaiko bertsolaritza ordezkatu.

Amaitzeko, 1935eko I. Bertsolari Txapelketa Nagusira bueltauko gara, berau dateke-eta Esteban Uriarteren bertsolari-bizitzan unerik garrantzitsuenak. Dakigunez, I. Bertsolari Gudu honen inguruko kroniketan aitamen gitxi be gitxi agertzen dira Uriarteren ganean. Gorago aitatu dogun *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburu kanonikoan haren bertso bakar bat agertzen da, J. Zubimendik emondako puntuari erantzuten deusona, hain zuzen be:

*Ekin zazu oraintxe
nere lagun zarra...*

Orretako bai dala
orain ordu txarra.
Ba-dakizu aragiz
naizela malkarra,
kanturako amaitu
da nere indarra³².

Zelango saioa egin eban dimoztarrak Donostiako txapelketan³³? Abel Muniategik bosgarren-edo geratu zalakoa dauka: “1935eko urtarrilaren 20an Donostiako Kursaal-en egin zen Euskal Herri guztiko Txapelketara azaldu zen. Baziren hogeí bat bertsolari eta Uriartek bostgarren saria jaso omen zuen”³⁴. Esanda daukagunez, lau sari baino ez zituan banatu epaimahaiak; baina Jose de Artetxe idazleak be aurrerengo ikusi eban dimoztarra sarizerrenda posible horretan: “Lástima grande que la escasez de medios (...) impidiera que mayor número de bertsolaris pudieran ser destacados en la calificación. Entre ellos Kortatxo, el de Lastur, el poeta bizkaino Uriarte, el azpeitiano Txapel, los de Errenderi, Ordizia, Ayete, todos sin excepción”³⁵.

* * *

Gauza asko aldatu dira azken hirurogeta hamabost urte honetan bertsolaritzan: bertsolari baserritarrak unibertsitario bilakatu dira; brusa luzeak *forro polar* bihurtu jakuz; Kursaal zaharreko Poxpolin areto apala, *Bilbao Exhibition Centre* erraldoiak ordezkatu dau; gizalabak oholztan ez egotetik txapeldun izatera pasau dira... Bertsoak, baina, hortxe dirau, hizkuntza zaharrean sustraituta beti be: “beti ur berria edaten, betiko iturri zaharretik”.

Oharrak

¹ Hona hemen txapeldunen zerrendea eta urteak: Basarri, 1935; Txirrita, 1936; Basarri, 1960; Uztapide, 1962, 1965 eta 1967; X. Amuriza, 1980 eta 1982; S. Lizaso, 1986; J. Lopategi, 1989; A. Egaña, 1993, 1997, 2001 eta 2005; eta M. Lujanbio, 2009.

² *Argia*, 720, 1935-01-27, 1. or.

³ Zubimendi, Joseba: *Bertsolari Guduak 1935-1936*, Euskaltzaleak, Donostia, 1936.

⁴ Diru sariak 100, 75, 50 eta 25 pezetakoak izan ziran, hurrenez hurren.

⁵ “Txirrita’rentzat saririk izan ez ba-zan ere, Eusko Abesbatzako batek *boxt* duroko bat eman zion bertsolaririk zarrena zalako” (*Argia*, 1935-01-27, 2. or.).

⁶ “1936’garren urtean, Donostia’n ospatu zan Bertsolari Egunean behintzat Bizkai’tik etzan inõrtxo be an aurkeztu; emen ziran Dima’ko Uriarte, Mungia’ko Bartolo, Begoña’ko Betolaza, Getxo’ko Llona, Laukiniz’ko Eulia ta gaiñerakoak Kepa’gaz [Enbeita] sarri bertsotan ibilliak. Baiña etziran agertu, muxikarrak eurak be ez eben adorerik izan gipuzkoarrakaz egun andi aretan indarrak neurtzeko.” (Aita Onaindia: *Gure bertsolariak*, Gráficas Bilbao, Bilbo, 1964, 315. or.).

⁷ Olaizola, Manuel *Uztapide: Lengoa egunak gogoan (I)*, Auspoa, Itxaropena, Zarautz, 2. ed., 1975, 157. or.

⁸ Honan zer dinoskun Joanito Dorronsorok: “*Besamotza*. Prudentzio Abarrategi. Seguraski, Euskalerrian inoiz izan den *bertso saltzailerik ezagunena*” (*Bertsotan 1789-1936*, GIE, Donostia, 1981, 228. or.).

⁹ <http://internet.aheb-beha.org>

¹⁰ Egaña, Iñaki: *Quién es quién en la Historia de los vascos*, Txalaparta, Tafalla, 2005, 13. or. Itsutu zaneke xehetasun hori, bestalde, ez da ostantzeko lekukotasunetan agertzen.

¹¹ *Lengoa egunak gogoan (I)*, 53. or.

¹² *Lengoa egunak gogoan (I)* liburuko 52. orrialdean, Jesus Elosegik Abarrategiri Maulen eginiko argazki gogoangarri bat

agertzen da: argalago ikusten da Donostiako txapelketan baino, txapela eta brusa jantzita, irribarrets... Argazkiaren data honakoa da: 1937ko maiatzaren 2a.

¹³ *Ibidem*: 54. or. Esan geinke, Uztapidek 1950-52 urteen bueltan ikusi ebala Abarrategi akabukoz.

¹⁴ Zavala, Antonio: *Lexo bertsolaria*, Auspoa, 79-80-81, Zarautz, 1968, 17-18.

¹⁵ www.euskomedia.org/auñamendi/5875

¹⁶ *Bertsolariya*, 23, 1932-02-21, 6. or. Sorta hau kanta bildumatu baten argitaratu eban Aita Onaindiak: *Bertso berri eta kanta zar (I)*, 1957, 59-61.

¹⁷ *Bertsolariya*, 33, 1932-05-01, 4-5.

¹⁸ Muniategi, Abel. “Bertsolaritza Bizkaian”, *Jakin*, 14/15, 1980 apirila-iraila, 17-29.

¹⁹ Uriarterengana hurreratzeko, eskertzekoak dira Iñaki Esparzaren artikuluok: “Esteban Uriarte”, *Begitu*, 18, 2003, 6-7; eta “Esteban Uriarte”, *Begitu*, 20, 2003, 16-17. Era berean, ikusi: “Uriarte Etxebarria, Esteban”, in Esparza, Iñaki & Larrea, Angel : *Arratiako euskal idazle aitzindariak*, Arratiako Udalak - BBK, Oñati, 2004, 283-287; eta Iruarizaga Barragan, Raket: “Esteban Uriarte Etxebarria *Utarre*”, in Askoren artean: *Arratiako idazle aitzindarien antologia*, Artea, 2005, 529-538. Liburu biok interesgarriak dira oso, Arratiako *Parnaso* aberatsa ezagutu ahal izateko.

²⁰ “Ixidore Deunez Bermeo’n”, *Euzkadi*, 1920-05-28, 6. or.

²¹ E. Uriarteren inguruan hiru ezizen agertzen dira: sorta horretako bosgarren ahapaldian berak aitaturiko “Arratiako txori txikia”, “Bermeoko uretxindorra”, eta, berak ia sistematikoki erabilitako “Utarre” (Uriarte **tar** Esteban).

²² Estebanek pozarren hartu eban euskera hutsean argitaraturiko egunkari honen agerpena: “Agur bero bat neure barrutik / eguneroko EGUNA. / Zeure bitartez lortu geñeke [geinke] / Euzkalerriko zoruna” (*Eguna*, 1937-02-04, 4. or.).

²³ Tapiá, Joseba: *Agur Intxorta maite. 1936-37ko gudako kantuak*, CDa, Gaztelupeko Hotsak, Soraluze, 2001.

²⁴ Esteban Uriarteren bertso-sortreak zazpi bertso dituan arren, Joseba Tapiak 3, 4, 5, eta 7. ahapaldiak baino ez zituan musikatu. Musikariak bertsoak norenak ziran jakin barik aukeratu eban Uriarteren sortea; izan be, abestiaren letrearen ondoren honako testutxu hau dakar kanta-liburuxkak: “Utarre, garai-ko ezizenen arabera, U’tar E. izanen zen. Ezin izan dugu jakin nor den”.

²⁵ Amurizak bere obran dakarren bertsoia Dimako Patxi Bilbaori jaso da (Askoren artean: *Doinu Zaharren Inguruan*, UEU, 1990, 17-18).

²⁶ Amuriza, Xabier: *Bizkaiko bertso-gintza III. Gerra aurreko emoitza*, Bizkaiko Bertsozale Elkarte, Durango, 2006, 183. or.

²⁷ 1935eko txapelketako bertsoa aitaturik, zera gehitzen dau etxanotarrak: “Uriarteren beste bat-bateko bertso bat be

gordetzen da, berea dela guztiz ziurra ez da baina. Behin, tabernan, ordaintzeko modurik ez edo gogorik ez zeukan mutilzahar bati honako hauxe kantatu ei eutsan: Mutilzaharren bizitza / beti doa penaz / bentaja gitxi dauko / etxetik urtenaz. / Nik diru gitxi eta / hik bapez apenas / neuk gonbidatuko haut / poltsan daukotenaz” (Ibidem, 183. or.).

²⁸ *Begitu*, 18, 2003, 6. or.

²⁹ Estankona, Igor: *Basilio Pujana*, Bidegileak, 47, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2007, 6. or.

³⁰ Enbeita, Balendin: *Bizitzaren joanean*, Elkar, Donostia, 1986, 63. or. Balendinek zera be gehitzen dau: “Herrietako jaietatik aparte, hauteskunde garaian, ez nintzan gelditu ere egiten. Behin, egun berean, sei mitinetan parte hartu beharra izan neban. Aita, Uriarte eta ni izaten ginan gehienetan bertso-lari, eta Agirre, Lauaxeta... etab. hizlari”.

³¹ *Begitu*, 18, 2003, 7. or.

³² *Bertsolari Guduak 1935-1936*, 2. ed., 45. or.

³³ Badakigu laugarren saioan, ofizioak emonda, Tellaetxipi erreteriarraz kantau ebana: Tellaetxipi, “pelotaria”; eta, Uriarte, “dantzaria”. Tamalez, ez jaku saio horretako bertso-rik heldu.

³⁴ *Jakin*, 1980, 14/15, 26. or.


³⁵ Artetxe, Jose de: “Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura”, *Euzkadi*, 1935-01-25, 1. or.

Aholku oker baten emaitza zuzenak

Olerkigintza mailan, oro har, zein literatur eskola edo tendentzia da hobea: sinbolismoa ala errealismoa (gizarte olerkigintza, zehazki)? Ez da galdera inozoa. Bitoriano Gandiagak min handia hartu omen zuen Gabriel Arestik sinbolismoa gaindituta zegoela esan zionean, noiz eta *Elorri* argitaratu eta gutxira¹. Hainbeste lan eta ilusio sartu liburu horretan, eta, tupustean, *demodé* zegoela entzun behar; norengandik eta euskal letren bilbotar *popearen* gandik! Horren sakon eta mingarri izan zitzaion Bitorianori nahigabe hori ezen gehiago ez idaztea erabaki zuen. Zorionez hori ez zen gertatu (ezinezkoa omen zaio arrazako olerkariari –honelakoxea genuen Gandiaga– idazteari uztea)², baina Gandiagaren eta Arestiren arteko topaketa horrek aldaketa nabarmena ekarri zion frantziskotarraren idazkerari (eta, bide batez, neurri batean bederen, euskal literaturaren bilakaerari ere bai). Zer gertatuko zitzaiokeen euskal literaturari *Hiru gizon bakarka* edota, Arestiri dagokionez, *Harri eta Herri* libururik gabe?

Badakit hasierako galdera engainagarria izan daitekeela, horrelako galdera bat planteatu eta erantzun behar baita, ez soilik, ezta nagusiki ere, teoria mailan (nik egin dudan bezala), historia mailan edota izen zehatz eta ezagunekin baizik. Eta historikoki planteatuta, erantzun mota (moda) guztiak onargarriak dira. Zein da olerkari hobea Vicente Aleixandre (sinbolista) ala Gabriel Celaya (gizarte olerkaria), esateko? Eta maila horretan xehetasunek dute protagonismo osoa: zergatik erkatu olerkari zehatz horiek, hots: Aleixandre eta Celaya eta ez beste batzuk, eta abar? Ados. Baina ez dut uste funtsik gabeko iritzia denik esatea, sinbolistek (Beaudelaire, Rimbaud, Juan Ramón Jiménez, Cernuda...), oro har, emaitza hobeak ekarri dizkigutela literaturara gizarte olerkariak baino (Celaya, Otero...).

Perspektiba horretan, historiak frogatu du Arestik (iritziak ematerakoan, beti irmo, oldartsu eta presati) ez zuela arrazoi nahikorik izan Gandiagari hitzetik hortzera emandako sinbolisten kontrako



Gabriel Aresti

iritzi horretan, gaur egunean, oro har, sinbolistek indartsuago baitiraute gizarte olerkariak baino.

Baina, itzul gaitezen Arestiren eta Gandiagaren arteko topaketara. Elkartze hori gertatu omen zen 1962 urtearen ondoren, Gandiagak urte horretan argitaratu baitzuen *Elorri* poema bilduma sinbolista: “Lehen liburu hori atera eta harrera hotz samarra izan zuen. Bere lagun zirenek eta gero ere lagun izaten jarraitu duten batzuek kritikatu egin zuten, ez zela garaiko poesia esan zuten. Arestik, esate baterako, ez zuen bat ere miresten *Elorri*, nahiz eta Gandiagak Aresti asko maite zuen. Horrek min handia egin zion Gandiagari. Poesia soziala eta politikoa modan zegoen sasoiaren beste modu bateko poesia egiten jarraitu zuen (Gandiagak), berea, bat-batekoa zena. Gerora egin dituen bere baitako azterketak eta aitortzak ere ezin litezke ulertu lehen liburuaren ondoren jaso zituen kritika horiek gabe”³.

Urte horretarako Arestik *Maldan behera* poema bilduma sinbolista argitaratu berria zuen (1960an

ere), ez arrakasta handiz (Euskaltzaindiak saritua izanik ere), eta, seguru asko, Gandiagarekiko topaketa gertatu zenean, Aresti 1964an argitaratuko zuen *Harri eta Herriko* gizarte poema taxutzen murgildurik zegoen. Gandiagari mingarria izan zitzaien aholku hura Arestik borondaterik onenaz eman zion, berorren esperientzian oinarritua. Borondate onenaz, bai, baina, ikusiak ikusi, arinkeria nabarmenez ere, kontuan hartzen badugu, urte hartarako, Espainia mailan, gizarte olerkigintza gainbehera zihoala (euskaldunak –azkarrenak ere– berandutxo, beste behin?⁴).

Sinbolismotik gizarte olerkigintzara makurtze horretan, Arestiren kasuan, baliteke eragina izatea: batetik, irakurle arrunten artean *Maldan beherak* izandako harrera hotza (ez da inoiz izan poema erraza)⁵, eta bestetik, Arestik Blas de Oteroz lilurata sentitzea. Izan ere, Gabrieleak, *Maldan behera* idatzi eta berehala albo batean utzi zuen, ordura arte maisutzat hartua zuen Pedro Salinas: “Nire iritzian poeten artean, gaurkoak klaro, hoberenak

espainolak, batez ere P. Salinas, bere *La Voz a ti Debida* (Zuri zor izaneko abotsa) eta *Razón de Amor* (Amatzeko arrazoia)” eta Blas de Oteroren poemetan guztiz endredatua geratua zen (Aresti endredatua geratu ohi zen bezala: goitik behera): “Es un coloso este Otero, el mejor poeta castellano desde que murió Salinas”⁶.

Hobera egin?


Arrazoirik ote zuen Gabriel Arestik horren ziur jo zuen mailu kolpe horretan: “Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet / poesia / mailu bat / dela”⁷? Egia da, Arestik Gandiaga lehenardiari ziurtatu zion bezala, olerkigintza sinbolista, *Elorri* kasu, antzu bilakatua zela 1960ko hamarkadan? Frankok jeneral(ísimo)ak (‘Jajak’, Arestiren hitzetan) inposaturiko salbuespen-egoera hura lirikarako edo zeharkako esaerarako desegokiagoa izan ote zen, profeten oihua baino? Galdera beste era batera egin dezakegu: literatura ikuspuntutik *Harri eta Herri* poema liburua hobea da *Maldan behera* baino?

Bada, iritziak iritzi, badirudi ezetz: Koldo Mixelena, 1974an, *Harri eta Herri* argitaratua zenetik hamar urtera, honela mintzatu zitzaigun *Maldan behera*: “Por lo que hace al lenguaje, no creo que su riqueza, su variedad o su propiedad hayan alcanzado nada comparable en toda la obra de Aresti y muy poco en la literatura de cualquier otro autor vasco: él nos ha enseñado antes que nadie la calidad de la lengua que se puede conseguir con una medida dosificación de elementos de origen muy diverso, o nos lo ha reenseñado, porque acaso ya lo habíamos sabido alguna vez”. Ildo beretik mugitzen da Ibon Sarasola ere: “En nuestra opinión, esta obra constituye la cumbre de la producción poética de Aresti, al menos en lo que respecta a los valores

puramente literarios... *Maldan behera* es, en su elaborada articulación interna, su verso potente, su frase rotunda y su extraordinaria riqueza y complejidad de metros y rimas, la obra cumbre de la poesía de Aresti desde un punto de vista estrictamente literario”; eta, gehiago ez luzatzearren, iritzi berekoa omen dugu Jon Juaristi ere: “El riquísimo mundo simbólico de sus primeros poemas se empobrece, en función de la finalidad didáctica que atribuye a su poesía durante los años sesenta” (gizarte olerkiaz ari dela ematen du)⁸. Ez omen dator bat iritzi horrekin I. Aldekoa: “(Aresti) poetaren ahotsik lortuena, nire ustez, *Euskal Harriako* orrialdeetan aurkitu [dut]⁹”.

Gauden honetatik ikusita, beraz, Arestik ez zuen arrazoi handirik izan Gandiagari poesia sinbolistari uzteko gomendatu zionean. Gandiagak, haatik, kasu egin zion, eta “gure hizkuntzak adina iraungo duen” *Elorri* olerki liburu ederra idatzi (1962) eta jarraian “publikorako sekula gehiago ez idazteko erabakia” hartu zuen: “Zehar jaio omen *Elorri* bezelako hitz joko eta hitz jolasdun liburu intimista denbora galtzeko ez ezik, jostailu kaltegarria eta ebasiobide hutsa zela” kontuan harrarazi baitzioten modan zeuden “gizateriaren egoera injustiziazkoaz, sufrimenduzkoaz, eta esperantza gabekoaz konturatu eta kanturatu ziren kontzientzia berriko poetek: Gabriel Celayak, Bladi Oterok, Otsalar-ek (Juan San Martinek), Jose Azurmendik eta Gabriel Arestik”¹⁰.

Dena den, isiltasun epe horretan, Gandiagak idazten jarraitu zuen... eta ez zakarrontzirako¹¹, bere buruarentzat baino: “Behar nuen idatzi, beti gustatu zaidalako nere buruarekin hitzegitea, nere buruarekin komunikatzea. Hamar bat urte hola pasatu nuen. Niretzako idatzi nuen. Behar nuen idatzi. Paper zuri horren aurrean, nere kontzientziaren ispilu beltza bezala ipini hori, eta hor isladatuz joan nere sentipenak, esankizunak, iritziak, ikuspegiak eta abar. Hori egiten jarraitu nuen”¹².



Bitoriano Gandiaga

Hobeak ziren isiltasuneko idazkiok eta gerokak: *Hiru gizon bakarka*, *Uda batez Madrilén...* Urbiako lau haizeetara zabalduriko edota, euria lagun, Arantzazuko Santutegiko klaustroan errezi-tatzeko *Elorriko* ‘poematxoak’ (horrelaxe Gandiagak¹³) baino? Kritiko askorentzat ez, Gandiagarekin berarekin hasita: “Niretzako orain arte egin dudan gauzarik onena horixe da. *Elorri* bere simpletasunetik partituz. Dena dela, nahi duenak ikusi, formaren aldetik ez naiz aldatzen asko *Elorritik Hiru gizon bakarkara*. Poesia suelto gehiago dagoela *Hiru gizon bakarkan*. Baina poesia sueltoa, esan nahi dut idazteko forma sueltoa. *Elorri* ere bada-go. Hori esplotatu nuen nik asko”; eta Ibon Sarasolak: “*Elorri* (es) el poema más ambicioso y logrado de la posguerra”, eta J. M^a Lekuonak ere: “(*Elorri*) Mendatako olerkariaren libururik onena omen. Neronek ere halaxe pentsatzen dut, batez ere Bitorianori entzun ondoren *Elorri* zela bere poemategirik hoberena, agian”¹⁴.

Banaiz ni neu gai horri zuzen dagokion pasarte interesgarri baten lekukoa. Bitoriano Gandiagarekin berbetan nengoen arratsalde batean, hauxe esatera ausartu nintzen: “Ez dut neuk zuek bezain garbi ikusten zure poema bildumarik onena *Elorri* denik, eta behin baino gehiagotan *Hiru gizon bakarka* poema liburua hobea dela uste dut”, eta Gandiagak: “Ez... *Hiru gizon bakarka* oso tristea da”. Ez nion ezer erantzun. Gero mila bider gogoratu dut Gandiagak berak Oliteko maisuari euskal abestiez erantzun ziona: “Behin maisuak harrapatu egin gintuen eta beste zenbait gauzaren artean zera esan zigun: ‘Los cantos vascos son tristes...’. Nik ez nekien zer esan, baina banengoen horrekin zerbait lotuta eta esan nion: ‘... pero son verdaderos’”¹⁵, tristurak ez baitio literaturari ezer kentzen, benetako baldin bada.

Nire iritziz, B. Gandiagaren *Hiru gizon bakarka*, literatura aldetik, liburu ‘hobea’ da *Elorri* baino, helduagoa, konplexuagoa, asmo handikoago, sar-

korragoa. Nik uste dut B. Gandiagak literatura gailurra *Txakolinaren Ospakuntza Iean eta Zan* (tragedia eta dantza, mina eta poza nahastuta, zein nagusi?), *Korupekoakean*, *Hamaseiharrietan*, *Artasoko Salmuetan* (non euskal mitologia [lurra] otoiz bihurtzen den: non gizarte olerki ausartagorik? non sinbolismo nabarmenagotik?) eskuratzen duela eta poema multzo horiek guztiok *Hiru gizon bakarka* liburuan aurkitzen ditugu. Hala eta guztiz ere, ez naiz eztabaidatzen hasiko horren kritikari prestuekin, are gutxiago, beraien iritziak defenditzen ari naizen tesiarekin ados datozkidanean.

Gizarte olerkigintzak zer duen alde eta kontra

Kalitatea kalitate, gertatu dena hauxe da: gizarte olerkigintzak, gure artean, arrakasta izugarria izan zuela. Arrakasta horretan faktore asko eraginkorrak izan omen ziren: batetik, Frankok (barka, Jajak) inposaturiko errepresio politika gogorrek sorrarazitako mina edo errabia, Euskal Herrian are gogorragoa eta eraginkorragoa izan zitzaiguna; b) gizarte olerkariak, abeslariak lagun usu, errazkiago (dena da erlatiboa) zentsura hesiak gaingitzen ikasi zuten, beste protesta ekintza gehienek baino, c) jendearen nagia edo, entzutera errazago makurtzen baikara, irakurtzera baino. Arrazoiak arrazoi, gizarte olerkariak 40-50eko hamarkadetako gizakiek zituzten arazo larriekin konektatzen hobeto jakin izan zuten beste mota zein tonuko olerkari gehienek baino (sinbolistek tarte), eta hori, gizarte olerkigintzan parte hartu zuten guztien meritua da.

Ildo horretan, gizarte olerkariak hizkuntza ulerterraza hobetsi zuten: gehingoentzat: “la inmensa mayoría” (horrelaxe Oterok) idazten baitzuten¹⁶, olerkari sinbolistek erabiltzen zuten hizkuntza hermetikoaren aldean: “neure lau/bostentzat idatzi egiten dut” (horrelaxe J. R. Jiménez-ek).

Izan ere, Arestik, T. S. Elioten arrimuan, *Maldan behera* guztiz hizkuntza hermetikoan (hots, sinboloz josian) idatzi zuen, eta hori dela motibo, irakurle askorik ezin izan zuen lortu eta horiek elitekoak, interpretazio partzialak eta ez konbergenteak eman dizkigutenak: “*Harri eta herriren fama izugarriak estali eta itzali zuen poema zail baina miresgarri honen (Maldan beheraren) literaturtasuna*”¹⁷.

Bestalde, arrisku batek mehatxatzen zuen gizarte olerkigintza, Jose Anjel Valentek ‘formalismo temático’ deiturikoak: gaia kanpoko dimentsioari lotzen zaio ia era eskusibo, errepikakor eta alderdikoian, olerki tonua monotonoezi eta aurreikusteko modukoa bihurtaraziz.

Protesta egiterakoan, gizarte olerkariak tonu hanpatu(egi)a bereganatu ohi zuten (bazeagoen beste modurik?) eta erretorika errekursoez larregi (nabarmenegi) baliatu ohi ziren. Oro har, gizarte olerkiak gehiago dira mitinetan errezitatzeko, bakarka irakurtzeko baino. Bide horretan, olerkariak erretorika figurei lehentasuna ematen diete eta ez tropoei (metaforei eta abarri); eta figura erretorikoei dagokienez, esateko formak hobesten dira pentsamendu figurak baino gehiago. Baliabide mugatu horiek bozeramailearen (olerkariaren) pertsonifikazioak baldintzatzen (mugatzen) dituzte erabat: olerkariak sermolari, mitinlari edo, positiboki esanda, profeta bihurtzen dira, berba egiteko gaurko eredutik urrutitxo dagoena.

Dena den, baliteke gizarte olerkigintzari kalterik handiena egin ziona honako hau izatea: gizarte olerkariak, sarritan, ez ziren talde minduetakoak –hots, langile, kultura gutxitukoak...– izaten eta sakonki (barrutik) ezagutzen ez zuten ‘herri’ edo ‘klase’az aritu ohi ziren, bere klasekoak ez zirenen ahotsa bihurtu nahian. Horrela, hanpatuaz gain, artifizial ere nabarmetzen dugu gizarte olerkari askoren ahotsa, behin baino gehiagotan.

Gandiagaren eta Arestiren kasua

Herri zein klase mindutik kanpoko izatea ez zen izan, inolaz ere, ez Arestiren, ez Gandiagaren hobena. Alderantziz. Biok ala biok euskaldun pobreak ziren eta euskalduntasunaren pobrezia eraman behar izan zuten, inguruko askoren axolagabetasunaren (eraso zein irainen) artean: “Euskara setiatua, eraso, beldurtua eta lotsagarri jarria genuen geure begien aurrean. Gainera, guztiak mende harturik ginduzkaten kateetan eta zigorpean, ezertariko ez ezetarako askatasunik gabe. Baina ez gintuzten zeharo arnas-hustu eta guk ahal genuen neurrian arnasari eutsi nahi izan genion, gutxi eta eskasik bazen ere, euskaldungoaren birika izateari ekinez”¹⁸.

Batak zein besteak (Gandiagak gehiagotan Arestik baino) euskara eta euskal kultura hartu zuten gizarte olerkietarako gaitzat, eta horren sakonki sartua zitzaien bioi euskara, horren konprometitua ziren euskararekin, horren galduak zituzten, azienak, korrituak, osasuna euskararen euskal literaturaren lehian... ezen beraien olerkietan, (Espainiako) gizarte olerkaririk gehienengan ez bezala, egiazkotasun kutsua baino zerbait gehiago ere (“euskara salbatuz, euskara baino zerbait gehiago ere salbatuko genuelako ustetan”¹⁹) nabarmentzen dugun²⁰: “Todos los esfuerzos contemporáneos por escribir acerca de personas o acontecimientos, no importa cuán importantes, que no son conocidos por el poeta de forma íntima y personal, están condenados al fracaso”²¹. Eta ez jakite hori baliteke gertatzea Espainiako ‘herri’ txiro eta zapalduak idatzi zuten burgesia edo elitetik irtendako olerkari askori²². Baina hori, zorionez, ez zen ez G. Arestiren, ez *Hirugizon bakarkan* B. Gandiagaren kasuan.

Oharrak

¹ LEKUONA, J. M^a, “*Elorri*, argitaraldi berrian”, in *Elorri*, AFA, 1968, 8-9. or.: “Hau da benetan preziagarri *Elorri*-ren modelakuntzan: teknika landua, originala, gerraurrekoen eta hirurogei eta hamarreko hamarkadakoen haritik. Poesia modernoaren eredutakoa, gaurregun ere baliagarritasun utziezinezkoa duen poema bilduma”. MIRANDE, J. (Gandiagari gutun batean): “Niretzat zure antzeak gogoratzen dit Frantziako symbolisten manera, bai eta Erdi-mendeko poeta keltikoena, batez ere, Gales-erriko ‘bardo’-ena”.

² GANDIAGA, B., “Gandiagarekin, esperantza urratu nahi eta ezinean”, *Argia*, 1985, 1049 zkia, 25-28. or.: “Nik *Elorri* egin eta gero utzi egin nion idazteari... bueno utzi ez nuen egin, jarraitu nuen idazten baina neretzako jadanik”.

³ AZURMENDI, J., *Gara*, 01.02.22, 60. or.

⁴ ROVIRA, P., *La poesía de Jaime Gil de Biedma*, Ediciones del Mall, Barcelona 1986, 37. or.: “La mayor parte de la crítica coincide en afirmar que en los poetas que alcanzan la madurez expresiva alrededor de 1960 se produce un cambio en la orientación de la poesía española de posguerra. Este cambio... surge de la discrepancia con la poesía social... son poetas que advierten el callejón sin salida en que se ha colocado la poesía social”. ORTIZ ALFAU, A. M., “Aresti en la distancia”, *Zurgai*, 1979, 11. or.: “Lo que se había dado en llamar *poesía social* había entrado en crisis, cumplida su misión; el final de este movimiento lo iba a marcar el libro de Blas de Otero *En castellano*, publicado en 1959. El mismo año en que aparece en Bilbao *Maldan behera*, primer libro de Gabriel Aresti que nada tiene que ver con la poesía social”.

⁵ SARASOLA, I.: “Hitzaurrea” in Gabriel Aresti, *Poemak*, Kriselu, 1976, 84. or.: “*Maldan beheraren* ‘frakasoaren’ ondorioz (poema noski ez zen ulertua izan, ez zentzuz, ez literatur balioz), Arestik bere poemagintza birplanteatzen du, bere poesi produkzioaren lehen etapa hertsiz”.

⁶ ARESTI, G., *Gutunak* (Txomin Peilleni, 59.02.03).

⁷ ARESTI, G., *Harri eta herri*, V.

⁸ SARASOLA, I., “Hitzaurrea”, o. c., 51. or. *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Barcelona, 1976, 163. or. JUARISTI, J., *Literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1987, 121. or.

⁹ ALDEKOA, I., *Zirkuluaren hutsmina*, Alberdania, Donostia, 1993, 105. or.

¹⁰ GANDIAGA, B., “Nere obraz”, *Hegats*, 4, 212. or. MITXELENA, K., *Egan*, 1962 (1-3), 85. or. Mitxelenak BGren olerkiak miretsi egin zituen. Ez dakigu zer dela eta, Mitxelenak “Ramón Menéndez Pidal-en *Flor nueva de romances viejos* (olerki) liburuxoa bidali zion BGri, eta honek, eskerrak ematerakoan, horren antzekoak idatzi gogo zuela erantzun zion (1959-VI-10)”. Ikus “Koldo Mitxelenaren euskal gutunak”, 26 or.

¹¹ GANDIAGA, B., “Izarrei egiten nien idazten nuenaren erre-oparia edo zakarrontziari egiten nion neure poematxoen eskaintza”: “-Nik ez dut orain idazten / paper-saskirako baizen, / agian, noizbait, zeozer”.

¹² GANDIAGA, B., *Euskaldumon Egunkaria*, 97.12.04, 26. or.

¹³ GANDIAGA, B., “Ni neu euskal idazleetako bat”, *Hegats* 17/18, 1997, 107-108. or

¹⁴ SARASOLA, I., *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid, 1976, 169. or. LEKUONA, J. M.^a, *Bitoriano Gandiaga eta Mendata*, Mendatako Udala, 2001. or.

¹⁵ GANDIAGA, B., “Gandiagarekin, esperantza...”, o. a., 27. or.

¹⁶ OTERO, B., *Con la inmensa mayoría*, Losada, Buenos Aires, 1960.

¹⁷ SARASOLA, I., “Hitzaurrea”, 50. or.: “Irakurketen bitartez testoari buruzko familiartasun bat lortu baguenen ere, ez genuen erdietsi haren osotasunaren zentzuaz jabetzea”. Ikus beste hau ere JUARISTI, J., *Literatura vasca*, o. c., 116. or eta j.

¹⁸ GANDIAGA, B., “Nere obraz”, o. c., 209. or.

¹⁹ *Ibidem*, 209. or.

²⁰ ROVIRA, P., o. c., 33. or.: “El problema de la poesía social, paradójicamente, se deriva de una comprensión muy superficial de lo social, puesto que lo primero que debiera de entender un poeta que se quiera ‘social’ es el papel que puede jugar en su contexto, un papel que, dadas las circunstancias, sólo podía tener interés asumiendo el personaje hasta el fondo (SG, Miguel Hernandez-ek egin zuen bezala?*)”, es decir, aceptando críticamente la voz de su propia clase, constituyéndola así en ‘testimonio’ de un punto de vista social, en lugar de pretender superarla mediante la truculenta identificación con –y suplantación de– un ‘pueblo’ bastante desconocido”. * M. Lasak komentatu dit BGren itxura fisikoak (arpegi-azalak?) M. Hernández-ena gogora ekartzen ziola.

²¹ AUDEN, W. H., *La mano del teñidor*, Barral, Barcelona, 1974, 67. ROVIRA, P., o. c., 34. or.: “De la misma manera que se acepta que sólo es universal y eterno el que es local y muy de su tiempo, ha de aceptarse que sólo puede hablarse a los demás cuando se habla para uno mismo. Pero antes hay que haber vivido entre los demás”.

²² HIERRO, J. in DE LUIS, L., *Antología de la poesía social*, Alfaguara, Madrid, 1965, 105. or.: “Y es que el poeta (social), salvo raras excepciones, desconocía eso que le llamaba *pueblo*. Por de pronto lo redujo –reducción efectuada a partir de libros, no del conocimiento directo– a campesinos curtidos, trabajadores de sol a sol que empuñan una hoz hasta para dormir, y a obreros industriales con mono azul y la inglesa en la mano. Y la falta de saberes libresco (de los del pueblo) se identificó con la falta de sabiduría”.

JOSU WALIÑO. *Izarren artzaina.*
Txalaparta, 2009ko azaroa. 92 or.

Fantasiak eta errealidadeak eskutik erooten gaitue gaztetxoentzako liburu entretenigarri honen 92 orrietan. Batez be erakusten jakuna da amesak bizi gaituala eta inor ez dala ames barik bizi. Eta, era batera, amesak beteteko sortzen dira. Hori argi euki behar da beti, sasoi gogorretan sano inportantea dalako. Ames egiten dogun bakotxean izar bat bizten da zeruan, eta ames bat beteten dan bakotxean izar igeskor batek zerua zeharkatzen dau.

Ez da kasualidadea liburuko protagonistea Izar deitzea eta gehien maite dauana izarrak izatea. Izarrak dira negarraren, tristuraren, euri-egunen, une ilunen, bakarti sentidutearen, garrasi eta golpeen erremedioa, okasino ilunetan guztia argitzen dabenak, ames egiteko bidea emoten dabena.

Izar neskatoaren unibersoa txikia da: amagaz bizi da baserrian. Aitaren faltea sentiduten dau, gerreak bete-betean harrapetan dauz, gerreak okertutako gizona bizi da etxean (izan be, “gerraren eraginez gizon-emakumeen bizimodua erabat aldatzen da modu batera edo bestera”), baina ha ta guzti be, badagoz une gozoak: “...amari eskua emanda oinez ibiltzen nuen bide zaharra, euria egiten zuen egunetan basaz beteriko putzuak saltatuz, eguraldi ederra zegoen egunetan eguzkiaz gozatuz”.

Ume guztien antzera, Izarrek be badauka gordelekua: basoaren erdian dagoan hatxa. Harek balio deuto ames egiteko, babesa topetako, seguru sentiduteko. Eta hantxe ezagutuko dau izarren artzaina be. Izan be, izarrek jagolea behar dabe, eta pertsonaia fantastiko honek jagoten dau amesak egia konbertidutea, zeruaren baltzean galdu ez daitezana.

Kontu polita, iluna, tristea, gazi-geza, baina akabuan kontentugarria eta itxaropentsua. Bestalde, gaur-gaurko gaiak aitatzen dauz, tratu txarrak, langabezia, gazteek hur-hurretik ezagutuko dabean errealidadeak.

Holan dala, zeruari zurt egon beharko dogu aurrerantzean, gure amesak bizten daben izarra topau eta izar igeskor noz bihurtuko zain. Baina trankil egon geinke, horretarako badaukagu izarren artzaina eta.

Arantza Elxebarria Iturrate



